



OINARIN DANTZA TALDEA

Dantza bizirik dago gurean

200 dantzari eta txistulari inguruk Antzuolako kaleak alaitasunez jantziko dituzte | 32



Gazteak eta helduak operara hurbiltzeko saioa, Oñatin | 23



Radio Moscow taldearen blues-rock doinuak, gaur | 33

Liburu eta disko truke azoka, Aretxabaletan datorren astean | 25

MEMORIA ETA KALTE-ORDAIN ESKE

1936ko gerran euskal erresistentziaren ikurretako bat, Intxortako frontea jausi zeneko 75 urteak gogoratuko dituzte Elgetan | 2



Pako Etxebarria, Ane Beldarrain, Jon Etxezarraga, Mari Carmen Amoriza eta Juan Ramon Garai. | GOIATZ ARANA

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

"Efizientzia energetikoa nahi dugu"

IMA BERISTAIN
Antzuolako alkatea | 20



"ABBren egoitza, maiatzerako"

RAMON AJURIA
Aramaioiko alkatea | 26



Kale gorrian geratu behar dutenendako logelak egokitzen

Arrasateko parrokiak 22 ohe bideratuko ditu behartsuendako | 12

"Probatu ondoren gehienak zeuden atez atekoaren alde Hernanin"

Pello Zubiria |
Kazetaria eta Hernaniko Zero Zabor taldeko kidea | 8



Lanbus autobus zerbitzua bertan behera utzi dute kostuarengatik

Abuztura arte behin-behineko zerbitzua egongo da | 22

Iker Elortza Espainiako Kopako finalean | 30



SINADURAK

Gustuko lana | 6
RUFINA OLASAGASTI

6 | Errekorrak gara
JON BEREZIBAR

Gu ere elefante hiltzaile | 25
OIER ETXEBARRIA

40 | Adierazpen Askatasuna
AINTZANE OIARBIDE

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 30
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Champions Operazioa
Alda zaituz Fordera eta eraman ezazu deskontua
5.000€

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

Ford gama. Kontsumo mistoa: 3.3-10.3 (l/100km). CO2 isurtzea: 87-244 (g/km)

Go Further

Gerrako memoria eta kalte-ordaina eskatuko dituzte

- ▶ Intxortako frontea jausi zen orain dela 75 urte
- ▶ Etzi, domeka, ekitaldia egingo dute Elgetan
- ▶ "Oraindik inork ez du barkamena eskatu", diote

LEIRE KORTABARRIA | ELGETA
Etzi, domeka, 1936ko gerran euskal erresistentziaren ikurretako bat, Intxortako frontea jausi zeneko 75 urteak gogoratuko dituzte Elgetan. Hain zuzen, 1937ko apirilaren 24an desegin zen frontea, eta tropa frankistak eta haien aliatuenak Elgetara sartu ziren, errepresio gogorra eta sekulako sarraskiak eginez. Gertakari haren memoria historikoa berreskuratzeko ekitaldia egingo dute Elge-

tako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkartek, eta Debagoieneko alkate gehienek eguaztenerako baieztatuta zuten han izango direla. Eibarko Udaleko ordezkari bat ere joango da, eta gonbidatuta daude ere Gernikako eta Durangoko udalak, besteak beste. Ekitaldian izango dira ere Idoia Mendia, Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, eta Martin Garitano, Gipuzkoako ahaldu nagusia; EAJ alderdiak ere baiez-

tatu du joango dela; eta egun hauetan dabilta gonbidapenari erantzuten sindikatuak, memoria historikoaren inguruko elkarteak eta beste guztiak. Elgetako Udalak 70 bat gonbidapen bidali ditu, eta bazkaritara 70 pasa lagun eta "omenaldirako, gehiago" batuko direla kalkulatu du.

Omenaldira dei egin diete ere, nola ez, "gerran zehar hildakoen senideei, baita hain era heroikoan Elgetako sektorean aritutakoei".



Bergara 1936ko irailean jausi zen. Argazkian, alemanen tankeak Bergarako plazan. | INTXORTA

Fronte estrategikoa

Gerran, Espainiako II. Errepublikaren kontra altxatutako garaipenaren beste kapitulu bat izan zen hura; haren aurretik, Debagoieneko herri guztiak, bata bestearen atzetik, hartuta zituzten faxistek.

Elgetako frontea estrategikoa zen Euskal Herria defenditzeko, eta hortik zetorren kolpistek hura gainditu nahi izatea. Hala, kolpistek martxoaren 31n hasi zuten

Bizkaiko eraso, baina ekainaren 19ra arte ez zuten lortu Bilbora sartzea, Elgetako frontea bidea ixten zuelako. Apirilaren 24an eta 25ean, Elgeta suntsitu zuten eta Bizkaia jarraitu zuten, makina bat bonbardaketa eginez; Gernika, adibidez, apirilaren 26an bonbardatu zuten.

Hori guztia gogora ekartzeko balioko du etziko ekitaldiak, eta baita "zauriak ixteko" ere, Intxorta 1937 elkarteko Juan Ramon

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com

blum **FRANKE** **GRUMAL**
LOGISIETE **KESSEBÖHMER**

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK



Garbigailu integragarria, AWM 129

- A klasea
- 7 kiloko karga
- 1.200 b/min

Prezio garbia,
RAEE barne:

447,65€



Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)

- A/A/A+ klasea
- Zarata maila: 47 db ½. • Karga automatikoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

410,80€



Combi EBQH 20223 F –No Frost totala–

- A+ klasea /
- 200x60x65,5 (AlxZabxFon)

Prezio garbia,
RAEE barne:

685,20€



Labe pirolitiko –Newstyle linea–

- A klasea
- Pirolitiko

Prezio garbia,
RAEE barne:

425,86€



Indukzio-plaka, Kic 631 TB –biselatua–

- zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control
- (TB biselatua)

Prezio garbia,
RAEE barne:

345,80€



Mikrouhin-labea, MIC 201 EX

- 20 litro, 32 cm-ko hondea,
- altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa

Prezio garbia,
RAEE barne:

175€



TA 1937 KULTUR ELKARTEAK JASOTAKOAK

ESANAK

"Omenaldira deitzen diegu hildakoen senideei eta modu heroikoan Elgetan aritu zirenei"

"Elgeta hartzeko asmoz, 100 eta 200 kiloko bonbak bota zituzten, herria txikitu arte"

JUAN RAMON GARAI | ANTOLATZAILEA

INTXORTA 1937 EKITALDIA

DOMEKAN

10:30 Harrera Espaloia Kafe Antzokian.

12:00 Omenaldia Intxortako Atean; eguraldi txarra bada, Espaloian.

► Salbadorrera martxa, eta lore eskaintza zibilen fusilamenduak oroitzen dituen monumentuan.

► Andoingo Banda Errepublikarrarekin Elgetara jaitsiko dira gero.

14:30 Bazkaria Espaloian.

APIRILAREN 29AN

► Lubakietara bisita gidatua. Izenematea: turismoa@elgeta.net.

Nafarroa kalea, ikur frankista

Aralarrek iazko otsailean proposatu zion Justizia Sailari EAEko ikur frankista guztien errolda egin eta haiek kentzeko diru-laguntzak onar zitzan. Hori egiteko batzorde teknikoa eratu zen, eta txostena egin zuen. Bada, Aretxabaletako Nafarroa kalea eta Arrasateko Nafarroa etorbidea katalogoan sartu dira, eta zergatia hau da: Aretxabaletaren kasuan, behintzat, Nafarroa Brigada omentzeko erabakia izan zen, gerra osteko agintariak hartua. Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran ere etxebizitza-plaka asko katalogatu dituzte.

Garaik *Magazinea*-n esan duenez: "Memoria historikoa ezinbestekoa da, egia, justizia eta kalte-ordaina ez direlako bete. Askatasunez bizi izateko, oraina ulertzeko, beharrezkoa da iragana ezagutzea".

Bestalde, antolatzaileek esaten dutenez, "gogorrena da, 75 urte pasatu eta gero, oraindik inork barkamenik eskatu ez izana".

Buruzagi zibilak

Hasieratik eta gerrak iraun zuen bitartean, kolpistak militar profesionalak ziren; gainera, Espainiako matxinatuek Italiako, Alemaniako eta Marokoko faxisten laguntza jaso zuten, eta hala izan zen Elgetan. Aldiz, II. Errepublikak defenditzen ziharduten gudari eta milizianoen buruzagiak "zibilak ziren: Felipe Bediaga, Pablo Ugarte, Segundo Olazagoitia, Patxo Gorritxo, Felix Casero, Pablo Beldarrain...", gogoratzen dute antolatzaileek.

Hain zuzen ere, Pablo Beldarrainek idatzitako *Historia crítica de la guerra en Euskadi (1936-1937)* liburua aurkeztu zuten atzo, eguena, Espaloian, eta han izan ziren Beldarrainen senideak. Liburu osoa lehenengo aldiz argitaratzen da, izan ere, orain arte bi kapitulu bakarrik argitaratu izan dira, 80ko hamarkadan. Intxorta 1937 elkarteak Juan Ramon Garaik liburu horren garrantzia azpimarratu du: "Objektibitate osoz idatzita dago; Bel-

darrainek onartzen ditu ondo eta gaizki egindakoak. Baina ez hori bakarrik: 20 urte baino gehiago ibili zen liburua idazten". 27 plano batzen ditu liburuak, "denak berak eskuz eginda; hau da, oso ondo ezagutzen zuen zer gertatu zen, mendiz mendi, kotaz kota...".

Pablo Beldarrain bera bilbotarra zen, eta zibila. "Abertzalea zen, eta Euskalduna lantegian peritua. Gerra hasi zenean, Abandoko batzokira joan zen eta bertan hasi zen, miliziano hasten zirenei fusila zelan oratu erakusten", kontatzen du Juan Ramon Garaik.

Elgetan zeresan handia izan zuen: "Iraile bukaeran Kanpazarko frontera etorri zen; gero, Ubideara joan zen, eta martxo erdian etorri zen Elgetara. Martiartuko komandantea izan zen", borobiltzen du Garaik.

Behin eta berriz, porrot

Beldarrainek eta bera bezalako beste zibil askok egindako defentsari esker, Intxortako frontea 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte iraun zuen.

1936ko urriaren 4an, Molak izan zuen lehenengo porrota, ezin izan zuen eta Intxortako lubakia gainditu. Handik zazpi hilabetera, etorri zen bere tropa, baina "munduko faxista guztien laguntzarekin: alemanak, italiarrak, mairuak... eta bere indar guztia-



Martiartuko komandantearen liburua aurkeztu zuten atzo. | GOIATZ ARANA

DATUA

70

LAGUN

Bailarako eta kanpoko udal ordezkariak, alderdi politikoak, erakundeak... etorriko dira; 70 lagun baino gehiago izango dira bazkarian, eta gehiago, omenaldian.

rekin, Elgeta hartzeko asmoz", esaten du Juan Ramon Garaik. Baina 20an, lubakia txikitu eta gero, ezin izan zuen berriz ere hura hartu; hau da, bigarren aldiz porrot egin zuen. Apirilaren 23an, berriz, indarberrituta bueltatu zen: "Lehenengo, bonbardaketak egin zituen, 100 eta 200 kiloko bonbekin, herria txikitu arte, eta berriz ere Molaren tropen porrotarekin bukatu zen".

Baina azkenean, hilaren 24an, Elgetako frontean zeuden gudari eta milizianoek, ikusita Elorrio jausita zegoela, utzi egin zituzten lubakiak. Hortik aurrera, Elgetak "gerraren aurpegi bortitzena jasan

zuten: atxilotetak, fusilamenduak, sorgin-ehiza, emakumeekiko errepresio basatia, bortxaketak..."

Bergarrei izen-abizenak

Memoria historikoa berreskuratzeko bidean ere, eta domekako ekitaldiarekin lotuta, gerrak Bergaran izan zuen eraginaren inguruko argazki erakusketak arrakasta handia izan du orain arte, eta oraindik apirilaren 29ra arte dago berau bisitatzeko aukera. Joan den astea bukatuta, 1.500 bisitari izan ditu dagoeneko Bergarako Aroztegi aretoan dagoen erakusketa horrek.

Toribio Jauregik Leica kamera batekin egindako argazkiak dira, eta luzaroan ganbara baten egon ziren. 1936ko uztail eta abuztuan hasi zen Jauregi argazki horiek ateratzen, batez ere milizianoei; eta, Bergara jausi eta gero, indar faxistei: hala, gaur egun edozein zur eta lur uzteko moduko argazki baten, nazien tankeak Bergarako plazan agertzen dira.

Baina protagonista nagusiak herritarrak dira, izan ere, argazkietako gudari eta milizianoei izen-abizenak ipintzeko bergararren laguntza eskatu zuten antolatzaileek. Horrek ere erantzun bikaina izan du: Juan Ramon Garairen esanetan, "bergarar asko aita, aitaita... ezagutzen dabilta, eta dagoeneko izen asko ipini ahal izan dira".

2012
2013

OK

Lanerako gertu!

HETEL

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

Ate Irekien
Jardunaldiak

Apirilak 25, 18:00
Maiatzak 26, 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

Aldundiak enpresei laguntzeko lau programa ditu


M.B. | ARRASATE

Abenduan adostu zuten Bilduk eta EAJK krisiari aurre egiteko aurrekontuetatik diru-partida batzuk erabiltzea. Hain justu ere, tokiko garapena bultzatzeko 2,4 milioi euro bideratuko dituzte. Orain, diru hori zehazki zertan erabili adostu dute.

Bada, asmo guztiez zehatz-mehatz informatuko diete enpresei Aldundiko ordezkariak eskualde eskualde; Debagoienara hilaren 24an, martitzenean, etorriko dira, Garaia Berrikuntza Gunera, 18:30ean, hain zuzen ere.

Arcelor-Mittaleko Madrilgo langileak, Bergarara

Arcelor-Mittalek Olaberriar, Zumarragan eta Bergaran dituen lantegietan eta Zaragozakoan kokatu nahi ditu Madrilgo Villaverden itxi duen plantako langileak. Multinazional indiarrek birkokatu nahi dituen 200 langile horien artean, gehienek, 160k, Gipuzkoako lantokiak aukeratu dituzte. Bereziki, Olaberriako lantokirako eskaerak egin dituzte langile horiek, eta gutxiago Zumarraga eta Bergarakoetarako. Hain justu, 80 birkokatu nahi dituzte Olaberriar; gainerakoak, Zumarragan eta Bergaran.



Kulturako klustroan jarri dituzte erakusmahaiak. Irudian, Bergarako Migel Altuna zentroarena. | LEIRE KORTABARRIA

Gaur itxiko ditu ateak Lanbide Heziketaren azokak

Arrasateko Kulturaten ireki zuten atzo, eta ikasle asko ibili ziren; 18:00ak arte egongo da zabalik gaur

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Gazteen etorkizunean pentsatuta, formazioak orokorrean eta bereziki Lanbide Heziketak eskaintzen dituen aukeren berri emateko azoka ireki zuten atzo, laugarrenez, Debagoieneko Mankomunitateak eta bailarako ikastetxeek

Arrasateko Kulturaten. Goiaz! izenarekin, eskualdeko ikasle, langabe eta interesa duten guztiei dago zuzenduta eta oraindik joaterik izan ez duenak gaur ere badu aukera, 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:00etara egongo da eta zabalik.

Atzoko eguna oparoa izan zen Ikasle asko ibili ziren atzo Lanbide Heziketa azokan –antolaztaileek 600 aurreikusitako dituzte bi egunetarako–.

Bailarako Lanbide Heziketako zentroek –hamar guztira–, formazio zentroek, enplegu zer-

bitzuek, ekintzaileendako zerbitzuek eta bestelako erakundeek jarritako erakusmahaiak gain, oso harrera ona izan zuten zenbait ikasleek egindako proiektuen erakusketek eta bisita gidatuek.

Ekintza osagarriak ere izan ziren. Hala, goizean bi hitzaldi entzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek: bat, ekintzaile gazteen esperientzia, eta bestea, atzerrira lanera joatearen gainekoa. Hain justu ere, atzo goizeko hitzaldietarako bete egin zen Kulturateko hitzaldi aretoa. Bailarako ekintzaile arrakastatsuek euren enpresak sortu zituztenetik izan duten esperientzia konpartitu zuten, lehenengo. Tartean, Alet taldeko Haritz Etxanizek gazteak animatu egin zituen ekintzaile izatera.

Gero, Mondragon Korporazioko Jokin Laspiur arrasatearrak, Txinan 9 urte bizi eta lan egin izan duenak, atzerrian lan egitearen inguruan jardun zuen. Haren hitzetan, "Lanbide Heziketa egin dutenak ere joan daitezke atzerrira. Lanerako gogo da garrantzitsuena. Gure enpresak multilokalizatuak dira, eta beti beharko dute zuzendaritzan, ekoizpenean... lan egin nahi duen jendea". Bestalde, Violeta Morcillok, Lanbideko Eures aholkulariak, Europako lan-aukeren gainean ere hitz egin zuen.

Gaur hitzaldi gehiago

Gaur, egubakoitza, azokarekin batera ekintza osagarri hauek egongo dira: 08:45etik 13:30era, ekintzailetasun tailerrak Garaionen eskutik; eta hiru hitzaldi ere egongo dira: 10:00etan, Profesionaltasun ziurtagiriak; 11:00etan, Enpresa eta formazio izenekoak; eta 12:00etan, Lan-elkarriketa nola prestatu (gaztelaniaz).



ULMA Manutención, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIA

Eguna: 2012ko apirilaren 27a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: MU Enpresagintzako auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
5. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
6. 2011ko ekitaldiari dagokion interesen sortzapena.
7. Heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
8. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak.
9. POGU III eta ULMA Manutención, S. Coop.eko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikulua aldatzea, hala badagokio.
10. ULMA Manutención, S. Coop.eko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikulua aldatzea, hala badagokio.
11. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
12. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
13. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
14. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
15. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
16. Ahalmenak eskuordetzea.
17. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituztenak. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Manutención, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketan testu osoa aztertzea, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko apirilaren 16a

Hondakinen kudeaketa berbagai izan da asteon ere

Batetik, Zero Zabor Astea abian da; bestetik, atez atekoa gustuko ez duela berretsi du PSE-EEK

M.B. | ARRASATE

Zero zabor filosofia bailaran gehiago ezagutzera emateko asmoz, hitzaldi eta dokumental emanaldiz osatutako egitaraua egin du Debagoieneko Zero Zabor Taldeak asteon bailarako zenbait herritan. Besteak beste, EHUKo irakasle Gorka Buenok eta Pello Zubiria kazetari eta Hernaniko Zero Zabor Taldeko kideak hitzaldiak egin dituzte. Bestalde, eskaintako dokumentalen artean, Debagoieneko Zero Zabor Taldeak egindako *Erraustegiari ateak ixten* izeneko dago.

Zero zabor, festa giroan

Astlehenean abiatu zuten Zero Zabor Astea eta festa giroan agurtuko dute asteburuan. Hain justu ere, bihar, zapatua, festa giroko eguna ospatuko dute Bergaran:

09:00etan San Martin plazatik Antzuolara ibilaldia egingo dute, atez ateko sistema ikustera; 13:00etan, trikipoteoa egongo da San Martin plazatik hasita; 14:30ean, bazkaria Munibe plazan egokitutako karpan (txartelak salgai daude 8 eurotan Oñatiko Bar Oñatin; Aretxabaletako Arlutzen; Bergarako Arranon, Kortazar eta Bulen; eta Arrasateko Iratin); bazkalostean kantaldia egongo da Josu Zubia eta Ubera bakarlariekin; 18:00etan zero zabor filosofiaren aldeko kalejira egingo dute plazatik abiatuta; eta 22:00etan, kontzertua egongo da gaztetxean Krisis, KKK, Su-etena eta Kalamidaz taldeekin.

Domekarako, berriz, irteera antolatu dute Villabona, Usurbil eta Hernanira 16:00etan. Zero zabor filosofia atez atekoa baino gehia-

go dela azaldu nahi dute herri-tako eredu praktikoak erakutsita: ontziratu gabeko produktuak saltzen dituzten dendak ikusiko dituzte; esne makinak; pixoihal berrerrabilgarriak; arrandegi eta harategietan tuperrak erabiltzen...

"Atez atekoa garestiagoa da"

PSE-EEK argi utzi du beste behin atez atekoaren kontra dagoela eta bostgarren edukiontzia defendatzen duela, martitzenean Arrasaten egindako hitzaldian. Susana Corcuera PSE-EEren Gipuzkoako Udal Politika arduradunak eta Manuel Blazquez Ingurumen teknikariak hartu zuten parte. Atez atekoa sistema garestiagoa dela, osasunarendako kaltegarria, ezerosoa eta inpaktu bisual eta estetiko handia ekartzen duena direla esan zuten eta gaineratu zuten Bilduk ematen dituen birziklatze datuak –%85 eta %90–, ez dituztela lortu European birziklapenean eta konpostajeon maila onena duten herrialdeek ere. Bestalde, Bilduk gehiengo duen 34 udalerritan atez atekoak ezarri nahi izatea "inposizioa" dela ere gehitu zuten.

Komentuak ixtea izango da frantziskotarren lan ildoetako bat

Datozen hiru urteetako programa egin dute Pazko astean Arantzazun

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Juan Mari Martinez de Illarduia aguraindarrak izango da Arantzazuko frantziskotarren probintzial berria datozen hiru urteetan. Eta haren laguntzailea, ordezkoa, izango da Joxe Mari Arregi oñatiarra. Arregik azken hiru urteetan izan duen kargua izango du beste hiru urtez, eta Illarduia, berriz, Telesforo Zuriarrainen lekua hartuko du. Oñatiarrak, aguraindarrak eta beste bost frantziskotarrek osatuko dute gidaritzaren taldea. Talde hori bi hilabeteetan behin elkartuko da joan den astean Arantzazun egindako kapituluetan adostu zuten programa aurrera ateratzeko.

Komentuen itxiera

Datozen hiru urteetako lan ildo nagusiak bi izango direla aurreratu zuen eguenean Joxe Mari



Joxe Mari Arregi eta Juan Mari Martinez de Illarduia, Arantzazun. | O.E.

Arregi oñatiarrak Arantzazun: "Egiten dugun lana kalitatezko lana izatea eta komentuen itxiera. Gero eta gutxiago gara gelditzen garenak, gero eta zaharragoak, eta aurreikusten dugu urtean komentu bat itxi beharko dugula. Aztertu behar dena da nongoa, hemen ez ezik, Gaztelan edo Kantabrian ere baditugulako etxeak.

Aukeraketa horren zergatiak, arazoak eta han dauden egoitzak berria ere aztertu behar da. Prozesu luzea izango da, gogorra, burokraziatik eta sentimenduengandik".

242 frantziskotar

Azken hiru urteko balorazioa, hurrengo hiru urteetako progra-

ma eta kargu berriak izendatzeko kapituluak egiten pasa dute Pazko astea 41 frantziskotarrek Arantzazuko komentuan.

Kapitulu horiek egin aurretik, Erromatik bidalitako bisitatzailerak, Valentziako Angel Talens kasu honetan, Arantzazuko frantziskotarrak sartzen diren probintzia berean dauden beste komentuetan egon zen: Gipuzkoan zazpi komentu, Bizkaian lau, Kantabrian, Nafarroan eta Valladoliden bina eta Burgosen, Sorian eta Madrilen beste bana. 20 komentu horien egoera aztertu zuen bisitatzailerak eta hango frantziskotarren kezka, iritziak eta aurrera begira dituzten aukerak entzun zituen. Komentuetan jasotako informazioarekin txostena egingo du Erromara bidaltzeko. Eta berdin egingo du Probintzial berriak ere. Arantzazuko kapituluetan hartutako erabakiak eta iritzi guztiak helduko dira modu horretan Erromara.

Momentu honetan 242 frantziskotar daude Arantzazuko probintzial beraren babesean: horietatik 174 penintsulan daude eta 47 Paraguan, Bolivian, Korean, Kuban eta Dominikar Errepublikan dituzten misioetan.

Abokatu gehiegi ote dagoen aztertuko dute Oñatin

M.B. | ARRASATE

Oñatiko Lege Soziologia Nazioarteko Institutuak urtero antolatzen dituen saiok astean hasi dira. Saiootan, gizarte-protesten kriminalizazioa, enpresa eraberritzaileen funtzionamendu arauak, erlijio aniztasuna, politika ekonomiko globala, giza eskubideak eta ingurumena eta krisi globalaren erregularizazioa bezalako gaiak landuko dituzte nazioarteko zenbait adituk, guztira 11 saiotan. Atzo eta gaur gai hau aztertuko dute: *Abokatu gehiegi? Gertaerak, arazoak, ondorioak eta konponbideak*. Saio horren koordinatzaileak Eyal Katvan (Israel), Carole Silver (AEBetako Indiana University) eta Neta Ziv (Israelgo Tel Aviv University) dira eta horiekin batera 18 adituk jorratuko dute gaia.

Asteon zabaldu du Aldundiak 14 eta 17 urte artekoendako udalekuetarako izen-ematea

Zozketa bidez erabakiko dira plazak eta izen-ematea hilaren 24an itxiko dute

M.B. | ARRASATE

Udaleku horietan 7, 10 eta 15 egunetako egonaldiak egin ahal izango dira eta helburua da gazteen aisialdia modu aberasgarrian erabiltzea. Aurten, gainera, egonaldi bereziak izango dira: ur kirolak praktikatzeko aukera, Maulen; Surf egitekoa, Zarautzen; eta antzerkia lantzeko, Hondarribian.

Eskaintza hiru ataletan banatzen da: batetik, 180 plaza zenbait autonomia erkidegorekin batera koordinatzen dira -Madril, Extre-

madura, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Murtzia eta Nafarroarekin- eta gaztelaniaz egingo dira lekuko gazteekin nahastuta; 250 plaza euskarazko udalekuetan izango dira -Andaluzia, Araba, Zuberoa, Menorca, Alicante eta Valentzia; eta 14 plaza frantsesez egingo den udalekuetan, Pirinio Atlantikoetako departamentuan.

Askotariko ekintzak

Txanda guztietan mota desberdinetako ekintzak egingo dira,

abentura jardueraz gainera kulturalak eta ludikoak: mendi irteerak, eskalada, kanoiak jaistea, piragua, bela, urpeko igeriketa, raftinga, malabarismoa, antzerkia...

Izen emateko epea apirilaren 24an itxiko dute eta gazteek bakarrik edo gehienez hiru laguneko taldeka egin dezakete eskaria www.gipuzkoa.net/oporraldi helbidean edo kanpainan parte hartzen duten bulegoen bitartez: Arrasaten, 943 25 20 65 zenbakian; Bergaran, 943 77 91 60 zenbakian;

Eskoriatzan, 934 71 46 88 zenbakian; eta Oñatin, 943 71 82 57 zenbakian.

Zozketa egingo dute

Udalekuetarako lekuak zozketa publikoaren bidez eta notarioaren aurrean esleitu dira eta emaitzak maiatzaren 8tik aurrera jakinaraziko dira kanpainan parte hartu duten bulegoetan eta Interneten.

Zozketan plaza lortu dutenek behin betiko izen-ematea maiatzaren 10tik 18ra egin beharko dute.

Horrekin guztiarekin batera, etxean postaz jasoko duten ordainagiriaren jarritako kuota ordaindu beharko dute, eta, gainera, izen-ematea gauzatzeko eskatzen diren agiriak ere gehitu beharko dituzte.

Maribi Ugarteburuk hitzaldia egingo du Bergaran hilaren 25ean

Maribi Ugarteburu Ezker Abertzalearen bozeramaileak hitzaldia egingo du hilaren 25ean, eguaztenean, 19:00etan, Bergarako Irizar jauregiko areto nagusian. Euskal Herriarentzat bakea eta demokrazia lortzeko bidean Ezker Abertzaleak egindako lanaz eta gaintzeko dauden oztipoez arituko da Ugarteburu. Presoak, biktimak, erabakitze eskubidea, desarmea... dira jorratuko dituen gaietako batzuk.

Hitzaldia irekia da eta interesa duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte parte hartzera.

Bost boluntariok eman dute izena Izeba Proiekturako

Egoera zaurgarrian dauden adin txikikoen osaba-izeba gisa arituko dira, integrazioan lagunduz

M.B. | ARRASATE

Izeba proiektura pertsona edo familia boluntarioak batzeko asmoz Baketik-ek abiarazitako informazio-kanpaina oso balantze positiboarekin itxi da. Kanpainaren helburua egoera babesgabeen dauden adin txikikoen osaba-izeba gisa jokatzeko gutxienez 30 boluntario gehitzea zen eta 39 boluntariora heltzea lortu dute.

Boluntario horietako bost Debagoienekoak dira: bi Arra-

satekoak, Aretxabaletako bat, Arrasateko bat eta Oñatiko bat. Kanpaina horren aurretik beste bi boluntario zeuden Bergaran. Hortaz, zazpi boluntario daude Debagoienean Izeba Programan.

Hobeto integratzea helburu

Izeba proiektua Arantzazuko Baketik zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politikarako Departamentuak 2009an sinatutako hitzarmen

batzen bitartez jarri zen martxan. Proiektuaren ardatza Gipuzkoan bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren, eta orain baita bertako adin txikikoen ere, osaba-izeba izateko prest dauden pertsona edo familia boluntarioen sarea sortzea da.

Helburu nagusia gazte horiek gure inguruan hobeto integratzen laguntzea da eta berriazko helburua adingabe horiei familiaritateko erreferentziak ematea. Horrela, bizi diren harrera zentroaz gain, adingabe horiek erreferentziako familia bat izango dute, iloba bati eskaintzen zaion hurbileko tratua emateko prest. Familia horien zeregina honakoa izango da: gurasoengandik urrutiko dagoen ilobarengatik, ikasketak direla-eta esaterako, hurbil dagoen osaba-izebak egingo lukeena.

Zeregin horrekin lotutako ekintza zehatzak, besteen artean, hauek izango dira: astean behin etxera bazkaltzera edo txango batera gonbidatzea, aldiro tele-

fonoz deitzea, arazo pertsonalak edo ikasketekin lotura dutenak konpontzen laguntzea, hizkuntza ikasten laguntzea, erosketak egiten laguntzea...



vibike
bikes & triathlon

Parking propioa. 400 m²ko erakusketa zure zain.



Bergarako Atea 24 • Gasteiz • www.vibike.com

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
http://goiena.net/iritzia/



Gustuko lana

Aurreko batean lagun batek aipatu zidan urrun zeukan lantegira joatea zein nekeza egiten zitzaion. Lantokia urruti izanik, nekagarria egiten zitzaioa joan-etorrietako denbora eta gastua, familiarekin eta lagunekin egoteko tarterik ezin hartua, bere asmo eta afizio pertsonalak alde batera utzi beharra denbora faltagatik...

Lana norberaren dohainak garatzeko dela uste izan da gure gizartean, baina lan honek baldintza batzuk bete behar ditu horretarako. Pertsonaren ahalmenaren neurrikoa behar du izan lanak eta baliabide egokiak behar ditu lanpostuak. Ordu asko izateak gaintitu lezake bere ahalmena.

Ahalmena izateaz gain, enpresara eta lanpostura egokitzeko formazioa behar du pertsonak, nahiz eta aurretik hainbat titulu izan. Enpresak beregandik zer espero duen eta nola eman jakin behar du.

Garapen pertsonalaren helburua betetzeko, lana bera gustukoa izatea da hurrengo baldintza. Aspergarria izan daiteke eguneroko ohituratik irteten ez delako edo menperatzailea esijentzia eta dedikazio handiegia eskatzen duelako, bizitza lanaren menpe jartzea behartzen duelako. Laneko giroa atsegina izatea ere garrantzitsua da lana gustukoa izateko, lankideak elkarren lehian jarri ordez elkarri laguntzen jartzen dituenak. Edozein lan egiteko zailtasunak gaintitzeko borondatea behar da eta langileak beharrezko dohainak eta formazio egokia baditu, lanaren ezaugarriak eta lankideen arteko giroa dira borondatearen pizgarri nagusiak, lana gustuko egiten dutenak.

Langile familiakoak garenontzako bizitzako ardatz nagusietako bat da lana eta bizimodua aurrera ateratzeko lan egitea beste erremediorik ez du jende gehienak, errentetatik bizi diren bakan batzuk salbu. Neure aldetik asko ikasi dut lanean, disgustuak izan ditut, baina baita poz handiak ere. Lankide fin eta leialak izan ditut orokorrean eta eurek lagundu didate aurrera egiten. Horregatik, eta erraza ez bada ere, uste dut merezi duela gustuko lana bilatzeak.

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

Errekorrak gara

Ez markak hausteagatik; inflamableak,ugarriak baizik. Bitxia da orain gutxi zerbaitek axolarik eza totala eragiten zuen eta zelan egunetik gauera barrenak errearazten dizkigun eta asaldatzen garen. Parra dit Espainiako Erregearen fartsa iraingarriaz konturatzea batean edo zaborrarenekin zer egin gurean. Sutsuak dira eztabaidak derrepente. Hori horrela, kontu handiz ibiliko beharko ditugu pospoloak eskuan darabiltzaten horiekin, materialugarriak leherketak eragin baititzake eta agian piromanoei eurei zarta lekieke guztiak muturren aurrean. Erne beraz. Gaiak arduragarriak dira, ezin ukatu, eta pasioa polita da, baina ez gaitzala keak itsutu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Irakaskuntza pribaturantz

Mikel Garcia
http://argia.com/erredakzio-mahaia/

Sistema publikoa ahultzea da pribatizazioaren ardatzetako bat.

Zerbitzu publikoaren lan-baldintzak kaskartzan dituzunean, nahikoa inbertitzen ez duzunean, baliabideak murriztu eta kudeaketa txarra egiten denean...

... muzin egiten diozu kalitate ona mantentzeari.

Sistema publikoarekiko irudi txarra zabaltzen duzu, eta are gehiago, jendeari sinestarazten diozu zerbitzu publikoak ez direla eskubidea, pribilegioa baizik, testuinguru ekonomikoak baldintzatuta.

Hezkuntzarekin ari da gertatzen (eta laster izango dugu Osasun arloko murrizketa neurrien berri).

PPren Gobernuak erabaki du hezkuntzan dirua murrizteko modu ona dela, besteak beste, ikasgeletako haur kopurua handitzea, irakasleek eskola-ordu gehiago ematea eta bajaran dauden irakasleen ordezkapenik ez

kubritzea lehenengo bi asteetan.

Nafarroako Gobernuak esan du Madrilgo aginduak beteko dituela, eta Jaurlaritzak dio eskumenak nori dagozkion aztertuko duela, baina Espainiako Gobernuaren presioa handia izango da neurriok Estatuko erkidego guztietan bete daitezten.

Kurioski, hezkuntza publikoari murrizketak egitearekin batera, seme-alaba pribatuan izateagatik jaso daitezkeen onura fiskalak handitu egin ditu PPK bere gobernupean dauden hainbat erkidegotan.

Ez litzateke harriztekoa izango irakasleek lan-baldintza hobeak bilatzea ikastetxe pribatuetan, eta gurasoek ere pribatuen aldeko apustua egitea seme-alabei kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko.

Ados, irakaskuntza publikoan ildo ugari daude hobetzeko, euskarari eskaintzen zaion tratamendua eta Curriculuma kasu, baina kalitatezko hezkuntza publikoak izan behar du helburua, eta berau ahultzea, murriztea, eta pribatizazioaren aldeko estrategian baztertzea ez da bidea.

Ekialdean pentsatua

Pello Zabala
http://berria.info/blogak/pellozabala/

Jaun goikoez gizakia sortzen saiatu zirenean, ez zuten guztiz aparteko ta konpletoa egin, eta, osatze aldera, ematen hasita eman zioten euren etikotxo, baina gizakiak jaso zuentxoaren apenas erabiltzen ondo, nonbait, eta kentzea pentsatu zuten.

Asanblada ezohiko ta propialean bildu ziren jainko-puskatuori non izkuta zitekeen eztabaidatzeko. Batek, denen artean zutik, honela esan zuen: *-Jar dagigun mendiaren goien-goienan.*

Baina berehala erantzun zion beste batek: *-Et, et... Goreneraino igota atzeman egingo du ta.* Hirugarren batek, orduan: *-Eta ozeanoaren hondo-hondoan jarriko bagenu?* Agudo etorri zen erantzuna: *-Ezta pentsatu ere. Behe-beheraino jaitzita han ere aurki dezake ta.*

Azkenik, bildutakoen urruti batetik honako hau entzun zen: *-Onen-onena, bere bihotzaren barren-barrenean gordetzea izango dugu, hara inoiz ez du iristerik izango ta.*

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER ARRASATE 20500:
Otalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com


Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale.
Difusioa: 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekarria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adieraztako initzen erantzukizunik.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Haize berriak Aranzadi Ikastolarentzat

Ane Barruso

(Aranzadi Ikastolako zuzendaria)
Bergara

Haize berriak, aro berria hasi du Aranzadi Ikastolak. Bere 40. urtebetetzearekin batera etorri zaizkio aldaketa handiak, itxaropentsuak, pozgarriak.

Izan ere, 2011ko ekainean, UNED Patronatuari esker, Aranzadi Ikastolak fraide dominikoez egindako "lagapena" berreskuratu zuen eta horren atzetik aldaketak etorri dira. Horietako batzuk bergarar guztiek biziko dituzue. Esaterako, nork ez du herri bazkari bat egin zutabe patioan (patio-columns), edo nork ez du entseatu danborrada patio horretan? Orain, berriz, bere itxura eraberritu, garbitu, txikundu egin dugu eta prest dago haur txikiak hartzeko, 0 eta 2 urte bitarteko haurren barreak, alaitasuna hartuko ditu bere baitan. Bestalde, beirate dotore horren beste aldean urteetan egondako Gureak Tailerren ordez, 3 eta 4 urteko haurrak kokatuko dira, makinaren ordez, jostailuek beteko dute leku hori.

Beste aldaketa garrantzitsu bat herriarentzat Haurtxoaren desagerpena izan da. 1974ko urrian ireki zuen Alkartu Naik haurtzaindegia herriaren beharrak ikusita, eta herriari zerbitzua ematen 38 urte egon ondoren, Aranzadirekin batzea erabaki du.

Eta horrekin guztiarekin batera, UNED Patronatuak egindako lagapenaren ondorioz garrantzitsuena etorri da: obrarako baimen eta, horri esker, 30 bat urte ikastolako kideak bananduta egon eta gero, batuta egotea.

Aste honetan egin dugu, hainbat urtetan zain egon eta gero, poligonotik plazarako trasladoa. Hori bai aldaketa sakona eta pozgarria, nahiz moduak ez diren egokienak izan, obretan bete-bete dagoen eraikin batean beste 125 ikasle sartu behar izan ditugulako eta beste 100 gela prefabrikatuetan. Horren ondorioz aurtun gure ikasleek ez dute teknologia tailerrik izango, ezta gimnasia ere. Bi informatika gela izango ditugu 750 ikaslerentzat, ikasturte zati batean laborategirik ez... Hauek denak derrigorrezko gaiak izan arren eta Hezkuntza sailburuordeari ekainera arte itxarotea eskatu, erantzuna ezetza izan zen, Aste Santu ondorengo egunean beraiek hasi behar omen dituzte eta Martinez de Iralako obrak. Hala ere, pozik gaude, bukatu da urte hauetan izan dugun hainbat deserosotasun, hainbat eraso, hainbat arazo.

Ikastola berriz batuta dago, handitu egin da, gainera, eta

GUTUNAK

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez, 1.900 karaktere izan behar dituzte (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.

Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

egun 0-18 urteko eskaintza egiteko moduan dago. Berritu egin da, gaztetu egin da, modernizatu egin da.

41 urte hauetan gurekin egon zareten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu eta, benetan, asko zaretela eskerrak merezi dituzuen bergararrak, ikusi besterik ez zegoen Kilometroak jaia antolatzeke lan egin zenuten 2.000 herritar horiek. Hemen dago zuen ekarpena, ikastolak egun bizi duen obra honetan.

Bukatzeke, esan, Aranzadi Ikastolak herriarekiko duen konpromisoa berretsi egiten duela: kalitatezko euskal heziketan eskaintzeko konpromisoa, alegia, indar gehiagorekin, baliabide berriekin, ilusio handiarekin, berrikuntza pedagogiko nahiz arkitektonikoekin.

Aro berri bat hasi du Aranzadi Ikastolak.

Ez beldurtu hondakinekin

Pello Zubiria Kamino
Usurbil

Oñatin Zero Zabor taldekoek konbidatu naute apirilaren 20an hitz egitera gai honen inguruan: *Atez Atekoa, bosgarren edukiontzia... Norena da birziklatzeko ardura?* Pozik azalduko naiz kontatzera zer ikasi dugun urteotan Usurbilen (bertan jaioa naiz) eta Hernanin (hemen bizi naiz).

Inor ez garenez jaio dena ikasita, guk ere zaborrei urte luzez begiak itxi dizkiegu, errauste plantaren arriskua gainean ikusi dugun arte. Hondakinak erretzearen kutsadurak eta honen ondorioek kezkatuta, asko ikasi behar izan dugu bai errausketaz eta bai erraustu beharrik gabe munduan dauden alternatibez. Printzipalena hau: etxeetan gure ohiturak pittin bat aldatuta posible dela denok sortzen ditugun hondakinak denon artean askoz hobeto aprobetxatzea.

Gipuzkoa oso ari da orain eztabaidatzen hondakinez, eta hori oso ona da. Diskutitu dezagun libreki, azaldu gure zalantzak eta kezak, eskatu informazioa, entzun iritzi ezberdinak... Baina gure eztabaidan ez dezagun sekula begien aurretik kendu gaiaren

benetako mamia: posible baldin badugu hondakinen %80 edo gehiago aprobetxatuz %20 edo gutxiago botatzea zabortegian, ez daukagu eskubiderik alderantzizkoa egiteko, ezin dugu hondakinen %70 edo %80 alferrik galdu errauskailuan kiskaliz, bai gure eta bai gure ondorengoen osasuna kaltetuz.

Orain dela bi urte, Hernaniko emakume talde batek antolatutako bilkuran Maddalen Lujanbio bertsolariak *Eskuak zenbat dezaken* manifestua irakurri zuen. Maddalenen lehen hitzak uzten dizkizuet: "Kosta egiten da aldatzea. Beldurra ematen du aldaketak. Ohitura segurtasuna da eta heldulekua. Baina eskuak mudatu dezake keinua, ahalegin txiki bat baino ez da beretzat. Dena batean pilatzen zuena berezi dezake hainbatetan. Eta egunean-egunean atarian utzi. Berritasunaren ikara, berritasunaren indarra bihurtu dezake eskuak. Ausartu egin behar du, froga egin; moldatu, hobetzeko".

Debagoiena kalejiran!

Ane Eginola eta Amaia Osa
(Debagoiena Zero Zabor)
Debagoiena

Bukatzeaz dago Debagoieneko Zero Zabor astea! Asteleheneetik ostiralera hitzaldiak eta dokumental emanaldiak izan ditugu Bergara, Arrasate, Oñati, Elgeta, Eskoriatza eta Aretxabaletan. Larunbat goizean Antzuolara oinezko irteera egingo da atez atekoa bertatik bertara ezagutzera. Atez atekoa zero zaborrerako bidean pauso garrantzitsu bat da, baina ez da bakarra, badaude gehiago ere. Izan ere, sortzen dugun zaborra murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko beste hainbat adibide jada martxan daude Gipuzkoako hainbat herritan: bokadiloak biltzeko zorro berrerabilgarriak, *a granel* saltzen duten dendak, tupperren erabilera harategi eta arrandegietan, pixoihal berrerabilgarriak, behi esnea zuzenean hartzeko esne makinak, etab. Hori guztia bertatik bertara ezagutzeko igandean 16:00etan Villabonako plazan jarri dugu hitzordua.

Larunbatean bazkari herrikoi batekin indarrak hartuta, arratsaldean aldarrikapenari ere tartetxo bat egingo diogu eta horretarako Zero Zabor filosofiaren aldeko kalejirari emango diogu hasiera 18:00etan Bergarako plazatik. Zero zabor ez da atez atekoa bakarrik, haratago doan filosofia bat da, gure osasuna, ingurumena eta ekonomia ardatz hartuta munduan zehar zabaldu den pentsaera bat da. Esan dezagun ozen zaborra murriztearen, berrerabiltzearen eta birziklatzearen alde gaudela! Aldarrikatu dezagun zero zabor herriak nahi ditugula gure bailaran! Erakutsi dezagun hondakinak erretzeko beharrik ez dugula eta lehengai bezala aprobetxatzeko gai garela!

Golgotaz gogait dagoen Diego Martiarturi

Begoña Arana
Aretxabaleta

Errespetua zor diogula elkarri, diozu.

Hala nator, ni ere, errespeturik handienaz, nire iritzia ematera. Zuretzat higuinarrriak diren horiek niretzat zer diren esatera.

Nik urtero-urtero ospatu izan ditut Aste Santuko ospakizunak, zelebratu, Jesukristoren gureganako, gizakiarenganako maitasun hunkigarria. Gizon on baten azken egunak. Maitasunari leial, sinisten zuenarekin azken arte koherente izan ziren Jesusen azken egunak.

Txikiak, baztertuak, gaixoak, emakumeak... defendatu zituelako gurutzeari josi zuten gizonaren azken egunak esker onez, gogoratuz. Nola azaldu bihotzeko sentipen hauek, nola esan ni maitatua naizela sentitzeak sortzen didan poza... Aste Santuetan gogoratzen, berritzen, bizitzen dugun Jesusen maitasun hori...

Aste Santuko egunik ederrena, berriz, Pazko goiza. Zorioneko goiza. Nik neuk ospatzen dudana egunik zoragarriena. Nik bezala ospatzen dutenak zorionduz. Gurutziltzatu guztiak gurutzetik jaisteko egin zuen ahaleginengatik gurutziltzatu zuten Jesusen garaipena ospatuz,

gurutziltzatu guztien garaipena ospatuz.

Jainkoak arrazoia eman diola gogoratuz, ez dutela berdugoek irabazi, ez Jesusekin, ez eta gaurko eta betiko, hango eta hemengo gurutziltzatu guztiekin. Berdugoek ez dutela arrazoirik!

Horra Pazkoa. Aste Santuaren gailurra. Garaipena, heriotzaren gaineko garaipena. Gurutzeari jositako gurutziltzatuaren garaipena, gurutziltzatu da beneragarri, munduko gurutziltzatuak beneragarri, Jesusengan garaile.

Mendietako gurutzek, berriz, Golgotako gurutzearen oroimenez, Jesusen garaipena eta gaurko gurutziltzatuak gogoratuz, horien azken garaipena eskertuz, niri ez didate batere trabarik egiten, alderantziz baizik, loreak eta txorien kantuak ederragotzen. Adeitasunez.

Erramu Zapatuko bazkaria!

Aitor Aranzabal

(Erramu Zapatuko bazkariko lagun taldea)
Bergara

Badira 5 urte Erramu Zapatua indartu behar zela ikusita lagun talde bat batu ginela. Bi arrazoi nagusi aurkitu genituen horretarako: alde batetik, euskal nortasuna eta ohiturak bultzatzea; eta bestetik, goizeko egitarau bat egun guztikoa bihurtu zedin lortzea.

Aurtengo edizioa ere joan zaigu eta balorazio oso positiboa egiten dugu. Herri bazkarian jende asko eta giro ezin hobea, eta txarangarekin kale animazio ikaragarria egon da.

Hala ere, hau guztia ez litzateke posible izango herriko hainbat merkatariri esker izan ez balitz. Horregatik eskerrak eman nahi dizkiegu Mizpildi eta Konde okindegiei; Bixain harategiari; Mujika, Raizabal eta Larrañaga gozotegiei; Miner ardoei; Mertxe urdaitegiari; San Pedro frutategiari; Hamaika, Depor, Kortazar, Euxebio, Bule, Ariznoa eta Frontoiko tabernei; Berroia inprentari eta Bergarako Udalari.

Honez gain, eskerrak baita aurtun bazkaria zerbitzatzen eta mahaiak jasotzen lagundu diguten guztiei eta txarangari ere, benetan. Eta esker berezi bat bost urte hauetan gurekin lan egin duten sukaldariei.

Baina jakin badakigu horrelako bazkari bat antolatzeke lan handia dagoela atzetik; horregatik, datorren urtera begira eta bazkari herrikoi hau gal ez dadin laguntza eskatzen dizuegu. Honela, pertsona gehiagoren artean gauzak hobeto eta errazago egingo baitira. Beraz, animatu!

Besterik gabe, eskerririk asko eta hurren arte.

Pello Zubiria | Kazetaria eta Hernaniko Zero Zabor taldeko kidea

"Bilketa selektiboaren osteko hondarrarendako zabortegiak garbiagoak eta egokiagoak dira"

- ▶ Pello Zubiriak hitzaldia egingo du birziklatzearen arduraz, gaur, egubakoitza, Oñatin
- ▶ Usurbilen jaio eta Hernanin bizi da, eta atez atekoaren esperientziaz jardungo du

ENEKO AZKARATE | OÑATI

Hiri hondakinez, bosgarren edukiontziaz, atez atekoaz, birziklatzearen arduraz... jardungo du Pello Zubiriak gaur, egubakoitza, Oñatiko kultura etxean, 18:30ean. Debagoieneko Zero Zabor Astearen barruan antolatuta den berbaldietako bat da. Kazetaria, Hernanin bizi da eta hango Zero Zabor taldeko kidea da.

Zeinena da birziklatzeko ardura? Hondakinaren ardura denona da, denok sortzen ditugulako. Sinplea da azaltzen, eta ulertzen ere ez da oso konplikatu. Praktikara eroaten dugunean edo eztabaida soziala pizten dugunean konplikatu da. Edo praktika txarrak erabiltzen ditugunean. Gure ardurak da, kontsumo ero honetan sartuta gauden guztiona, hobeto kontsumitzea.

Erakundeek herritarrek behartu ditzakete birziklatzera eta modu jakin batean birziklatzera?

Ez dakit erakundeek zertan eta zenbateraino behartu gaitzaketen. Baina hor dugu adibide tipiko bat, tabakoarena. Denok genekien kaltegarria zela. Baina egun bat iritsi behar izan du, seguruenik aseguru enpresek horretara behartuta, non debekatu egin duten erretzea. Eta aspaldi debekatu zuten errekaratza botatzea, edo mekanikariei debekatu egin zitzaizen ibilgailuek erabilitako olio errekaratza botatzea. Munduak arauen gainean funtzionatzen du; zebra-bideak errespetatzea ez da hautazkoa.

Posible da hondakinaren %80 edo gehiago aprobetxatuz %20 edo gutxiago botatzea zabortegira?

Bai, horixe! Baina hori ez dut nik esaten. Adibide grafikoa jarzearren. Hernanin atez atekoa ezarri behar zela jakinda, Zero Zabor talde txiki bat eratu genuen, lehena. Antolatuta genituen jardunaldi batzuk eta horietara etorri zen CIUko Josep Maria Tost, gaur egun Kataluniako hondakinaren agentziako zuzendaria dena. Une hartan zen atez atekoa erabiltzen zuten herri katalanek sortutako elkarteko presidentea. Hark berbaldia egin zuen eta esan zigun %80 eta %85 ere birzikla zitekeela, hondakinak sailkatuta bilduz gero. Badakigu badaudela produktu asko ezin daitezkeenak birziklatu. Eta hor dago lana. Esaterako, produktu horiek fabrikatzen dituztenak, pixkanaka, behartuz birzikla ezin daitezkeen produktuak ez ekoiztera edo ez saltzera.

Zein da birziklatzen ez den %20 horrendako irtenbidea?

Errauskailuan erre ezin daitezkeen produktuendako dagoen soluzio bera. Izan ere, hondakinak erreta ere, amaieran, beharrezkoa da zabortegi edo guk deitzen diogun *errefusategi* bat. Baina hondar horri, alde aurretik organiko guztia kendu badiogu, ez du kutsatuko. Gainera, errefus horri, aurrerago, topatuko diogu soluzioen bat. Izan ere, birzikla ezin daitezkeen %20 horri buruz ari gara, baina, zaborra errauskailuan errez gero ere, azkenean, %25ekin, hondar berri bat sortzen dugu. Hondar kutsatua. Bilketa selektiboaren abantaila, hortaz, agerikoa da kasu honetan ere.

Aipatzen dituzun errefusategi horiek laster bertan behera geratu beharko lirakeen zabortegi antzekoak izango lirake?

Oraingo zabortegietara dena nahastuta doa. Hortaz, ez dauka zerikusirik planteatzen ditugun *errefusategi* horiekin. Gipuzkoan dago aurreikusita Mutiloan zabortegi berri bat, egun batean errauskailua egiten baldin bada, sortzen diren hondarrak, eskoria toxikoak, sartzeko. Eta, horretaz gain, kontuan hartu beharko genituzke errauskailuak. Horiek kanpora beste toki batera eroan beharko lirake. Hortaz, bilketa selektiboa egin ostean, birziklatu ezin daitezkeen inerte horrendako zabortegiak askoz ere egokiagoak eta garbiagoak dira.

Bosgarren edukiontzia marroia, materia organikoa jasotzeko, jarriko balitz Gipuzkoa osoan, atez atekoarekin lortzen den adinako birziklatze mailara iritsiko ginatke?

Bosgarren edukiontzia denendako derrigorrezkoa izan behar bada, has gaitzen hondakinak batzeko bi sistemak konparatzen eta ikusiko dugu emaitzak hobeak izango direla atez atekoarekin. Gainera, esaterako, aukera bat bada materia organikoa eroatea edukiontzia batera eta han egotea hiru egun katean, eta beste aukera bada nire etxeko atari aurrean zintzilik utzi eta hiru ordura eroatea, bada, azken hau egokiago iruditzen zait. Arazoa da, bere garaian hiri hondakinaren planifikazioa egin zutenek, erabaki zutela ezin zitekeela jendea behartu birziklatzera.

Errauskailuak horren kutsakorrik dira?

Frantziako medikuen kolegioak, eta elkarte hauek oso kontserbadore eta ofizialistak dira, eskatu dio gobernuari moratoria bat errauskailu berriri ez jartzeko. Duela bost urte-edo hartutako



Oñatin izango da gaur Pello Zubiria. | HITZA

"Hernanin, probatu ondoren, gehienak zeuden atez atekoaren alde"

"Frantzian eskatu dute medikuek ez jartzeko errauskailu berririk"

"Zertarako nahi dugu labe handi bat dena erretzeko eta gu geu kutsatzeko?"

erabakia da. Nuklearren arriskuez sarri berba egin da, badakigu arriskutsuak direla. Hortaz, ezbeharrak gertatzen denean aieneka hastea ere...

Europako hiri handien erdiguneetan ere badira errauskailuak...

Eta pestizidas beteta dago Europa. Baina posible bada kutsatu barik, ahalegin txikia eginda, gauzak egitea, egin ditzagun. Hori da gakoa. Atez atekoa edo gaikako bilketa egitea, modu orokortuan, posible baldin bada, merkea eta egingarria bada, eskuzko bilketan lanpostuak sortuz eta hondakinaren tratamenduan teknologia sinpleagoa erabiliz..., zertarako nahi dugu labe handi bat, dena erretzeko, eta azkenean gu geu kutsatzeko eta sekulako zorretan sartzeko?

Atez ate batzea garestiagoa dela dioenik bada, ordea.

Denborak erakutsiko du hori ere. Usurbilgo datuak ditut nik. Hiri hondakinak batzeko hiru sistema

konparatu zituzten han: lau edukiontzikoa, bost edukiontzikoa eta atez atekoa. Atez atekoa garestiagoa ateratzen zen lau edukiontziko bilketa baino, baina merkeagoa zen bosgarren edukiontzia herri osora zabalduz gero. Neurketa horiek egiten direnean, bestalde, osasunari eta ingurumenerari egiten diogun kalteak ez dira kontuan hartzen.

Usurbilen jaioa zara eta Hernanin bizi zara. Zela moldatu zarete hondakinaren atez ateko bilketarekin Hernanin?

Hernaniko Udalak enkargatu zion ikerketa bat egitea soziologia enpresa bati, atez atekoa ezarri eta urtebetera. 500 baino inkesta gehiago egin zituzten. Atez atekoa ezarri aurretik, hasieran, gutxi batzuk zeuden erabat ados sistema horrekin; herritarren beste zati handi bat zegoen ikusizun, zetorrenaren aurrean, eta zati handiena zegoen aurka. Probatu ondoren, urtebetera, gehienago zegoen alde, gustura, eta gutxiengo zegoen aurka. Eta gehien gehienek zioten arazo gabe egiten zutela atez atekoa.

Zabor turismoa dioten hori sumatu duzue, hau da, hernaniarrek ondoko herrietara eroaten dute zaborrik?

Astigarraga eta Lasarte ondo ondoan ditugu eta, esaterako, Ana Urtxuegiak, Lasarteko alkate zela, sumatuko balu hondakin kopuruan igoerarik, jakingo genuke horren berri. Ez zuen halakorik egin. Oso pertsona berezia izan behar du, eguna joan eta eguna etorri, zabor poltsa hartu, autoan sartu, eta ondoko herrira eroaten duena. Badaude halakoak, baina gutxi dira.

Zergatik igo zaizkizue Hernanin hiri hondakinak batzeko sistema aldatu zenuenetik?

Ez, ez. Hori izango da, gainera, Gipuzkoan hurrengo aztergai. Nire ustez, Irunen eta Hondarribian gaikako bilketarik egingo ez dutenez, sortuko dute errefus asko eta zerga handiagoak ordaindu beharko dituzte horregatik. Guri eta hondakinak gaika batzen ditugunoi, ostera, merkeago aterako zaigu. Kaltetuak ez gara izan behar gauzak ondo egiten ditugunok; alderantziz. Praktika onak saritu behar dituzte erakundeek eta, esaterako, etxean konposta egiten duenari, organiko zirkulaziotik ateratzen duenari eta hondakin guztiaren %40 kentzen duenari, saritu egin behar zaio. Uste dut Europara begira jartzen ari garela eta denok pilak jarri behar ditugula.

Zure buruan dena antolatua dago. Marrak, koloreak, moduluak, angeluak... Gauza bakoitzak funtzio bat bete behar du, alderdi estetikoak baztertu gabe. Horregatik Kibuc-en altzari-proposamen ugari aurkituko dituzu, egia bihurtzeko zure ideiak eta zure mundua. Zuk egiten duzu Kibuc.

ZU zara arrazoia



910 €

(75.83 x12 hilabete interesik gabe)



3D proiektuak doan

KIBUC Gure Ametsa

Landeta Hiribidea 1, **Azpeitia** Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com

www.kibuc.com



Proiektu eta eraberritze integralak

KIBUC

altzariak eta osagarriak

Azkenean etxean

Nuit programa. Oheak (150x190ko koltxoarentzat), oheburukoak eta gau-mahaitxoek osatutako multzoa. Akaberak: haritza errauts kolorean eta zerbinoak. Neurria: 320 zm. Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. BEZ barne. * Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.



INTXORTA 75 URTE

*1937ko apirilaren 24an faxistek Elgeta hartu zuten.
Zibil eta milizianoak fusilatuz, neskatu zein emakumeak bortxatuz*

APIRILAK 22 IGANDEA

12:00

**INTXORTAKO ATEAN
OMENALDI-EKITALDIA**

ELGETARA MARTXA

- ANDOAINGO BANDA
ERREPUBLIKARRAREKIN
- LORE ESKAINTZA SALBADORREN

14:30

BAZKARIA

*Izena emateko:
turismoa@elgeta.net edo 943 768 022*

APIRILEAN ZEHAR

BISITA GIDATUAK

*Izena emateko:
turismoa@elgeta.net edo 943 768 022*

APIRILAK 8 IGANDEA

APIRILAK 15 IGANDEA

Haur eta gurasoentzako bisitaldi berezia

APIRILAK 29 IGANDEA

*Oroimena, egia, justizia, erreparazioa
eta herriz ez gertatzeko bermeak*



ELGETAKO UDALA



INTXORTA 1937
KULTUR ELKARTEA

HERRIAK

ARRASATE



Garbiñe Aramendi eta Bittor Murgiondo arrasatearrak, Mojategi inguruan dituzten erlauntzetan. | JON BEREZIBAR

DATUA

20.000

ERLE

Erlauntz bakoitzean 20.000 erle bizi daitezke, batetik besterako kopurua ezberdina izatea ohikoena bada ere.

le lehiatu ziren: Gipuzkoako eskualde bakoitzetik hiru eztagilek parte hartu zuten; hain justu ere, urtarrilean egindako eskualdeko txapelketetatik garaile irten dako hiru eztagile. Deban egindako lehiaketan Jose Luis Azpeitia, Fermin Telleria eta Garbiñe Aramendi bera nagusitu ziren; hirurak arrasatearrak.

Zegaman egindako Gipuzkoako txapelketa hiru kategoriatan banatu zen: lore askoko eztiaren kategorian, Zeledonio Askasibar zarauztarrak eroan zuen lehen saria; eta akazia-eztiaren kategorian, Itsasondoko Manuel Agirrek; Aramendik, osterara, txilar eztidun poto batekin eraman zuen txapela. Epaimahaiaren erabakia "ezustean" harrapatu bazuen ere, baieztatu digu pozik jaso zuela saria. Horrekin batera, datorren urtean ere txapelketara aurkezteko asmoa duela gaineratu du.

Eguraldiak ez du laguntzen

Bestalde, aurtengo uztari buruz ere egin digu berba arrasatearrak. Eguraldiak baldintzatuta datorrela esan ostean, gaineratu du eguzkia ezinbestekoa dela. Argi dauka Aramendik: "Eguraldiak asko baldintzatzen du uzta. Eguzkia behar da; azkenaldiko eguraldiak ez du laguntzen, eta erleak barruan daude. Udaberrian eguzkiarekin loreak zabaltzen direnean hasten dira lanean".

Horren harira, honakoa gaineratu du: "Urtean behin jasotzen dugu guk ezti; hain justu, irailan. Ondo ibiliz gero, 100 litrotik gora hartzea espero dugu. Itxaropen hori daukagu, behintzat". Haren senarra ere itxaropentsu agertu da, eta haratago joan da, 200 litro-ra hel daitezkeela esanda.

Debagoiendarrek badakite kalitate oneko ezti egiten

- ▶ Eztagile onak ditugu bailaran; tartean, Garbiñe Aramendi arrasatearra
- ▶ Gipuzkoako ezti ilun onenagatik saritua izan da Zegamako txapelketan

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Kalitatezko ezti topatzeko ez dugu urrutira joan behar. Erlezain onak ditugu gurean; tartean, Garbiñe Aramendi arrasatearra. Apiril hasieran Zegaman egindako Erle Egunean, Gipuzkoako ezti ilun onena egiteagatik saritua izan zen hura.

Bittor Murgiondo senarrarekin batera Mojategi inguruan duten zelaian topatu dugu, han dituzten erlauntzetan lanean. Aurten sarituak izan badira ere, urteak daramatzate ezti egiten; Murgiondok 40 urte inguru daramatza erleekin lanean. Denera, 17 erlauntz dituzte gaur egun senar-emazteek: orain dela bi urte Mojategi jarritako bederati erlauntzei, Mutiloako Lierni auzoan dituzten beste zortzi gehitu behar zaizkie. Mojategira heldu aurretik, gainera, hamabost bat urte eman zituzten Aretxabaleto Arbizelai inguruan.

Erretiratu direnetik horretan buru-belarri dabilzala onartu

ESANAK

"Asko zaindu behar dira; orain, ez dira bi urte baino gehiago bizi izaten, gaixotu egiten direlako"

"Norbaitek Asiako liztorren habiak ikusten baldin baditu, Udaltzaingora joateko eskatzen diogu"

GARBIÑE ARAMENDI | EZTIGILEA

digute: "Hemendik irten barik". Horren harira, jakinarazi digute erleek arre eta denbora eskatzen dutela. Horren harira, honakoa aipatu du Aramendik: "Asko zaindu behar dira. Lehen, erleak ipintzen ziren eta gero ez ziren kentzen, eta, kasurik egiten ez bagenien ere, bizirik irauten zuten. Orain, erleak ez dira bi urte baino gehiago bizi izaten, gaixotu egiten direlako".

Liztorrak, oso kaltegarriak

Gaixotasunez gain, kutsadurak ere erleen bizitzan eragin zuzena duela gaineratu du, baita azkenaldian Asiatic iritsitako liztor inbaditzaileek ere. Horren harira, honako deialdia egin nahi izan du: "Oso arriskutsuak dira, erleendako eta baita pertsonendako ere. Neguan lur azpian egoten dira eta udaberrian zuhaitzetan egiten dituzte habiak, oso garai. Norbaitek ikusten baldin baditu, Udaltzaingora joan dadila. Senarra bera iaz Uribe auzoan

agertutako habia bat kentzen ibili zen suhiltzaileekin batera. Kalte handia egiten dute".

Debako lehiaketan sailkatua

Oztopo horiek guztiek, dena dela, ez dute ekidin Aramendiren ezti Gipuzkoako ezti ilun onena izatea. Ezti lehiaketaren hamalau garren edizio horretan, 21 ekoiz-

Tranpak Asiako liztorren kontra

Asiatik iritsitako liztorrekin "beldurrez" dabilzala baieztatu digu Aramendik; izan ere, "azkar" akabatzen ditu hemengo erleak. Horiek zelan jokatzeko duten azaldu digu arrasatearrak: "Liztor inbaditzaileak gainean geldirik egoten dira, itxoiten, eta gure erlea erlauntzetik irtetzen denean, hegaka doala lehenengo burua mozten diote eta jarraian erdiko zatia hartzen dute jateko".

Hori ekiditeko plastikozko botilekin egindako tranpak jarri dituzte, eta honakoa esan: "Orain erakutsi digute tranpak zelan jarri, eta dagoeneko jarrita daukagu horiek. Mojategi dagoeneko zazpi harrapatu ditugu, guztiak erreginak. Horiek harrapatzea da, hain justu, garrantzitsua".

OHARRAK

GAZTARI ONGIETORRIA

Gaur, egubakoitza, Jose Inazio Gaztañaga *Gazta* preso ohiari ongi etorri ekitaldia egingo diote Herriko plazan. 19:00etan egin dute hitzordua. Ostean afaria egingo dute. Txartelak salgai daude Iluntz eta Taupa tabernetan.

ERRETZEN UZTEKO IKASTAROA

Udalak erretzen uzteko ikastaroa antolatu du, doan. 10-12 lagunendako lekua izango da, eta taldea osatzeko maiatzaren 2an, hitzaldi informatiboa antolatu dute, 17:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan. Talde terapiaren funtzionamendua azalduko dute, eta pertsona bakoitzaren balorazioa egingo da. Hor antolatuko dute 10-12 laguneko taldea, eta hortik aurrera, zortzi saiko tratamendua hasiko dute, maiatzaren 8an. Saioak martitzenero izango dira, 17:30etik 19:00etara, Kulturaten. Izena emateko: BAZ: 943 25 20 00.

UMEEN DANBORRADA KO IZEN-EMATEA

Umeen danborradarako izena emateko egunak zehaztu ditu SUDC elkarteak: apirilaren 23tik 27ra, SUDC elkartearen egoitzan, Nafarroa etorbidean. 18:00etatik 19:30ak arte egongo dira izenak hartzen.

Orioko udalekuetako plaza guztiak bete dira dagoeneko

Urtero moduan, aurten ere izen-ematea zabaldu orduko bete egin dira Txatxilipurdik antolatzen dituen Orioko udalekuetarako bi txandetarako plazak. Badira baina beste aukera batzuk udaleku itxietan: Bergarako Jardun elkar-tearekin elkarlanean, Zeraingo aterpetzeko udalekuetarako izena eman daiteke oraindik (10-12 urtekoendako). Eta 14-16 urtekoendako Kosta ala Kosta udaleku ibiltarirako ere gaur, egubakoitza, bukatuko da epea. Udaleku irekietarako (2-10 urtekoendako), berriz, maiatzaren 11ra arte eman daiteke izena.



Horazio Argarate parrokoa, abade-etxean egiten dabilzan obrak erakusten. | MONIKA BELASTEGI

Kale gorrian geratu behar dutenendako logelak

Arrasateko parrokiak hiru etxebizitza bideratuko ditu etxe barik geratzen direnei babes emateko

UBANE MADERA | ARRASATE

Krisiak geroago eta ondorio latzagoak ditu gurean. Horren adierazle da Arrasaten ere badaudela familia batzuk dagoeneko etxe barik geratu direnak. "Hilabete honetan bertan, zazpi familiak etxetik irten egin behar izan dute. Batzuek seme-alabak dituzte, gainera. Kontua da orain arte dirulaguntzekin, eta justu-justu, baina alokairuan bizi ahal izan direla. Baina laguntzak kendu egin dizkiete, eta gainera, prezioak (argindarrarena, urarena...), igo. Familia horiek orain arte lagun edo senideen artean etxerik etxe ibili dira, baina horiek ere bukatu egingo zaizkie laster, eta kale-kalean geratuko dira", kontatu du Horazio Argaratek, Arrasateko parrokoak.

Bada halakoei laguntzeko zerbitzua prestatzen dabilza Arrasateko parrokia eta Caritas: "Abade-etxean 120 m²-ko bi etxebizitza berritzen gabilza, eta bi oheko zortzi logela egokituko ditugu bertan. Bestalde, Gesalibarren ere badugu beste etxebizitza bat, eta han beste sei lagunendako lekua egokituta dugu; gaur egun

bi familia daude bertan bizitzen", kontatu du parrokoak. "Ezin duguna egin da kalean geratu behar diren familia bakoitzari etxe bat utzi; baina sukaldeak eta komunak konpartituta, hiru etxebizitza

tzotan logelak egokituko ditugu eurenendako, sikiera aterpea eta babes emateko. Abade-etxea handia da, eta une honetan bi lagun bakarrik bizi gara bertan", gaineratu du Argaratek.

Caritasen beste zerbitzuak

LAN-POLTSA Etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Iaz 200 lagun zeuden lan-poltsa horretan eta 102 sartu ziren lanera..

LAGUNTZA Lehen arropa ematen zuten, baina dirua emanda arropa ere eros daitekeenez, orain laguntza ekonomikoa ematen dute. Iaz 150 lagun artatu zituzten.

IKASTAROAK Etxeko lanen gaineko ikastaroak abiaraziko dute maiatzean.

Boluntarioak behar dituzte

Caritasek laster abiaraziko dituen zerbitzu berri guztiak emateko, baina, laguntasuna behar dute. "Gaur egun hamar lagun dabilza lanean boluntario modura, baina batzuk nagusiak dira, eta gainera, zerbitzu berriak eman behar ditugunez, jende gehiago behar dugu. Dagoeneko etorri zaizkigu pare bat emakume berri lanerako gertu, baina eskertuko genuke laguntza handiago", azaldu du Horazio Argarate parrokoak.

DATUA

22

OHE

Arrasateko hiru etxebizitzatan 22 ohe egokituko ditu parrokiak.

Abade-etxeako etxebizitzak berritzeko obrak hasita dituzte, eta ekainean bukatuko dituzte, "Sanjuanetarako-edo". Uztailean bertan abiarazi gura du Arrasateko parrokiak zerbitzu berria.

Bulego duinagoak

Bestalde, Caritasen berak Abade-etxearen sotoan duen egoitzan ere obretan dihardute. "Handitzen gabilza, zerbitzu duin bat emateko. Orain arteko lokalak ez du jendeari behar bezalako arreta emateko leku duinik izan. Jende asko kalean egoten da; beste asko gauza intimoak kontatzera datoz, eta inguruan jendea dutela kontatu behar izan dituzte euren gauzak, batere intimitate barik. Ba hori konpontzeko lauzpabost bulego egokituko ditugu orain, gehi harrera gela zabal bat", jakinarazi du parrokoak. Obra horiek ere ekainean bukatuko dituzte.

Txanda hartzea komeni

Bien bitartean, baina, handitze obra horien eraginez murriztu egin behar dute Caritasen bulegoaren zerbitzua. Orain arte martitzen eta egubakoitz arratsaldetan zabaldu dute bulegoa; bada obrak bukatu arte egubakoitzetan bakarrik zabalduko dute (17:00-19:00). "Dena den, ahal da alde zurretik zita hartuta gurekin egotea (egubakoitzetan bertan egin behar da hitzordua), edo gu euren etxeetara joango gara...", dio parrokoak.

Zerbitzu hobea

Era berean, hark azpimarratu du behin egoitza handituta, zerbitzua bera ere handitu egingo dutela. "Arazo edo beharren arabera antolatuko dugu. Orain arte gure zerbitzuaren erabiltzaileak batera etorri dira; hau da, euren arazoak guztiz desberdinak izan arren ere, batera etorri dira lan-poltsan sartu gura zutenak, dirulaguntza bila zetozenak... Aurrerantzean, berriz, arazoaren arabera antolatuko ditugu jendeari arreta emateko egunak eta tokiak".

merkecartuchos®
printing solutions

> ERREKARGA
> SALMENTA

TONER ETA TINTA KARTUTXOEN ERREKARGA ETA SALMENTA

Loramendi 2 - Arrasate - 943 79 99 31 - arrasate@merkecartuchos.net
Bergaran ere jasotzen ditugu: SUGOI - Irizar pasealekua 2 - Bergara

Iparraldeko eta Nafarroako ordezkariak azokan

Ahate deribatuek eta landareak dira biharko, zapatua, azokako berritasunak

UBANE MADERA | ARRASATE

14 saltoki izango ditu Seber Altubeko hileroko azokak (09:00-14:00), hiru berri tarteko: "Etorriko da Iparraldetik ahate deribatuekin (pateak, ahate-parrak, konfiteak...eta halako gauza gozoekin) Ortzaitetik (Behe Nafarroa) Arnabar base-ria. Eurak jarri dira gurekin harremanetan interesa dutelako zuzeneko salmenta hemen egiteko. Inoiz izan dira Santamasetan, kalitate oso oneko produktuak ekartzen dituzte, eta inguruan berritzailea dela esan genezake, hemengo base-rietan ez dagoelako halakoe-tarako ohiturarik", azaldu du Marga Garmendia udal ordezkariak.

Tafallatik landareak

Bigarren berritasuna Tafallako (Nafarroa) bizitegi bat (Viveros Montañas) izango da. Hark ekarriko ditu orturako landareak, lora landareak eta aromatikoak. "Sasoia da landare apaingarriak eta ortukoak aldatzeko, eta saiatuko gara ekartzen halako produktuak. Hau iaz etorri zen, gustatu zitzaion gure plana, eta noizean behin etortzeko asmoa badu. Ekarpen bereziena da aromatikoena", gaineratu du udal ordezkariak.

Bidezko merkataritza ere bai
Arrasatera etorrita eta hirugarren berritasun moduan, Harre-

manek bidezko merkataritzako produktuekin postua jarriko duela ere iragarri du Garmendiak Arrasate Irratian. "Asmoa da gure azokan lekutxoia egitea halakoei, ekonomia txikiak eta jasangarriak bultzatze aldera, bat egiten duelako hemengo azokaren helburuarekin. Bada-kigu bidezko merkataritzaren helburu asko daudela nekazaritzako ekoizle txikien alde, eta gure azokaren helburuetako bat ere bada zuzeneko salmentarako bideak erraztea".

Ardo ekologikoa eta beste

Horiez gainera, ardo ekologikoa, sukaldeko tresnak, okela ekologikoa, gazta sortak, ibarreko bizitegiak landareak, eta zela ez, azokako muina diren Arrasateko bost baserriko produktuekin osatuko dute biharko azoka, Garmendiaren esanetan. Era berean, erosleek horren gustuko duten otarren zozketa ere egingo dutela iragarri du.

DATUA

14

SALTOKI

14 postu izango ditu biharko azokak; tartean, hiru berri.

Makrobiotika zer den bertatik bertara ezagutzeko aukera eskainiko du Ekin elkarteak

Makrobiotika jendeari gerturatzeko helburuarekin, Ekin Emakumeak Elkarteak hitzaldia antolatu du hilaren 26rako (eguna) Kulturategiaren Jokin Zaitegi aretoan, 18:00etan. Hitzaldi hori Egoitz Garro aholkulari makrobiotiko eta irakasleak emango du. "Bizimoduak eta jateko aukerak dugunak gure osasunean eta ongizatean bereziki eragingo du. Beraz, makrobiotikak janeurri eta bizimodu egokiaren garrantzia nabarmentzen du", adierazi dute antolatzaileek.

Bihar Gaztetxe Eguna, 21. urteurrena ospatzeko

Aste osoan izan dira gaztetxearen 21. urteurreneko ekitaldiak; gaur lau talderen kontzertua izango da

U.M. | ARRASATE

Zorioneko dabil Arrasateko gaztetxea, AGAKOk ibilbidea hasi zueneko 21. urteurrena ospatzen dabilta-eta apirilean. Aste osoko ekitaldi sorta izan dute orain. Eta amaiera borobila emango diote astebururako antolatu dituzten ekitaldiekin: gaur kontzertuak, bihar, Gaztetxe Eguna eta domekan, poesia musikatu.

Kontzertuak

Gaurko egunari dagokionez, 22:00etan hasita, Astakask, Diktadura, Material Rechazado eta

Kaleko Urdangak taldeek kontzertuak egingo dituzte (sarrera: bost euro).

Gaztetxe Eguna

Bihar, zapatua, izango da baina, egun osoko jaia: Gaztetxe Eguna. 11:00etan hasiko dituzte ekitaldiak, gazte eztabaidekin. 13:30ean, triki bertso poteoa egingo dute, eta goiza amaitzeko, herri bazkaria 15:00etan. Bazkarirako txartelak Irati eta Basati tabernetan eskura daitezke, bost eurotan.

Arratsaldeari dagokionez, berriz, 18:00etan, Azkaiter Pelox

bergararrak disko berriko abestiak aurkeztuko ditu. Kalejira egingo dute 20:00etan, eta eguna bukatzeko, ska festa 22:00etan Skasti eta Luz de Putas taldeekin.

Astea bukatzeko, domekan, *ain_1 larralde* poesia musikatu saioa egingo dute.

Gaztetxe Eguna

Ez dira, baina, oraingo asteburuan izango AGAKOren 21. urteurreneko azkeneko ospakizun ekitaldiak. Bestelakoen artean, apirilaren 28rako 16:30etik 22:00ak arte umeen jolasak, zirkoa, eta besteak beste, La banda del abuelo, Mery May and Bang Bang eta Transit Blues taldeen kontzertuak antolatu dituzte. Eta bitartean, bi hitzaldi (emakume indigenak eta nekazaritza, apirilaren 24an eta etxebizitzaren gainekoa apirilaren 25ean) eta, batzar orokorra (apirilaren 27an) ere egingo dituzte.

"Bakarrik erabiltzen ditugu ileari kalterik txikiena egiten dizkioten produktuak"

Ines Andres arrasatearra 26 urte daramatza ileapaintzaile lanak egiten Arrasaten. Ilean ile-apaindegiaren ugazaba da, Zerrajera kalean. Lau langileko taldea dauka.

Argidauka Ines Andresek zein den bere lehentasuna ile-apaindegian: "Ilearen osasuna da nire kezka. Ez bakarrik ilea ondo moztu eta hari kolore polita eman; helburua da ilea mozteko teknika onak erabiltzea, eta horri esker hemen egiten dugun orrazkera gero norberak etxean zaindu ahal izateko modukoak izatea eta ematen diogun koloreak ondo irautea. Baina, bereziki, ilearen osasuna zaintzeko kezkatzen nau".

Hori lortzeko ahalegin handia egiten dute: "Lehen mailako markekin lan egiten dugu. Horrez gain, urtean behin Londonera joaten gara teknika berriak ikastera. Eta hiru hiletik behin Madrilera joaten naiz, ile-apaintzaileen irakasle zentro batera. Ni neure irakasle-formadore



Ezkerretik eskumara: Ines Andres, Itziar Oiarzabal, Maider Concepcion (5 urte laranen), Isa Cuevas (16 urte laranen); eta Laura Villena (10 urte laranen).

"Ilearen osasuna da nire kezka. Hemen egiten ditugun orrazkerak norberak etxean zaintzeko modukoak izan daitezela eta koloreak ondo iraun dezala"

naiz eta Madrilera erakusten didatena hemengo profesionaleri erakusten diet".

Ilanerabiltzen dituzten produktuen kalitate altua azpimarratu du Ines Andresek: "Bakarrik erabiltzen ditugu ondo testatuta dauden eta ileari kalterik txikiena egiten dizkioten produk-

tuak. Eta hori kontuan hartuta, azpimarratu behar da, oso prezio normalak ditugula ematen dugun kalitate altuarendako".

Jaunartze eta ezkontzak
Bestalde, gauden sasoiaren, jaunartze eta ezkontzei begirako zerbitzua ere ematen dute laranen: "Jaunartzeetan neskakilak orraztu egiten ditugu; eta ezkontzetan, ezkontideak orraztu eta makillatzeaz gainera, edozein motako apaingarriak ere egiten ditugu. Gainera, eskaintza berezia dugu: orrazkera frogekin, makillaje frogak oparitzen ditugu.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

iaran
ile apaindegi mistoa

Estentsioak
Solariuma
Makillajea
Oxidatzaile gabeko kolorazio berria
Tratamendu kapilarrak

09:30 - 19:30 larunbatak: 08:00 - 14:30

Zerrajera 1 • ARRASATE • Tel.: 943 79 61 79

MUren etorkizuna erabakiko duten hiru partiduetako lehena, bihar

Jaitsiera faseko lehen itzuli ederra egin badute ere, Larreategiren taldeak joan den astean galdu eta gero asko estutu da sailkapena

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Edalontziak erabat beteta jarraitzen ez badu ere, joan den asteko emaitza txarrak ez du baikortasuna galtzeko nahikoa motibo ekarri. La Salleren kontrako partidura arte topera zegoen MUren edalontzia, ondo merezita, jaitsiera faseko partidu guztiak irabazi ostean Arrasateko taldeak sailkapeneko hirugarren posturaino egin zuelako salto –seguenik lehenengo hirurek baino ez diote eutsiko kategoriari. Asteburuan La Salleren kantxan galdu ostean, berriz, euforiak beharada txikia izan du, ez horrenbeste kanpoan galdu izanagatik –inork ez zuen aurreikusten partidu guztiak irabaztea– baina bai kontrario zuzenek lortutako emaitzengatik; Biok taldeak Lizuani irabazi izanak, eta Tabirakok Cenicerori, izugarri estutu du sailkapena.

Hala, lider dagoen Lizuanek 23 puntu ditu, 22 Araberririk, eta jarraian hiru talde daude 21na punturekin: Mondragon Uniber-



Martxel, San Inazioen kontrako lehen, saskira botatzeko gertu. | JULIO CALLEJA

tsitatea, Biok Zerbitzuak, eta La Salle. Eta ezin baztertu, azkenik, Tabirako, 20 punturekin. Hau da, sei talde hiru posturengatik borrokan, eta bost jardunaldi jokatzeko. Diogun moduan, azken porrotaren ondoren sailkapeneko berdintasun horrek uxatu ditu orain arteko emaitza bikainek –bost partidu, lau garaipen– eman-

dako *feeling* onak. Dena dela, bost jardunaldi geratzen badira ere, datuak eskutan, MUK datozen hiru partidutan erabakita utzi dezake etorkizuna.

Etxean jokatuko ditu bi

MUren etorkizunaren gainean baikor izateko motiboen artean nabarmenena da orain momentuan

MU dela sailkapenean hirugarren postuan sailkatuta dagoena, hau da, Josu Larreategiren mutilen eskuetan dago dena, ez dute beste emaitzei begira egoteko beharrik.

Horrekin batera, hiru partidu garrantzitsu horietatik bi etxean izango dira, Iturripen, San Cerninen kontra, eta Biok Zerbitzuak kontra. Eta kanpoan jokatu-ko dutena Durangon izango da, Tabirakoren kantxan. Hau da, hiru talde horiek dira sailkapenean MU estutzen dabilen hiru talde, hau da, kontrario zuzen dira, baina atzetik daude hirurak, eta hori beste abantaila handi bat da. Azkenik, talde zuri-moreak denboraldian zehar egindako lanaren fruitua jaitsiera fasean jasotzen dabilzala ikusteak baikor izaten laguntzen du, etxean oso-oso indartsu daudelako –harmailatik taldeari bultzatza egitea izugarri eskertuko lukete. Hala, bihar, zapatua, 18:00etan jokatu-ko dute MUK eta San Cerninek, Iturripen.

Ekainaren 3an egingo duten Aiba! mendi martxa, bi ibilbiderekin

X.U. | ARRASATE

Aiba! mendi martxako 2012ko edizioa prestatzen buru-belarri dabilza Besaideko ordezkariak. Hala, ekainaren 3an egingo dute ibarrean barrena egiten den mendi zeharkaldi ederrenetakoa, eta dagoeneko zabalik dago izenematea. Hitzorduan parte hartzeko (ez da mendi lasterketa, eta ez da sailkapenik egongo) gehienez 300 lagun onartuko dituzte antolatzaileek, eta *kirolprobak.com* atarian eman daiteke izena (federatuek 20 euro, ez federatuek 25 euro).

Izenematea datorren astelehenean zabalduko dute, apiri-

laren 23an, eta maiatzaren 31ra arte emango dute horretarako tartea.

Bi ibilbide

Aurreratu moduan, Aiba!-k sorreratik izandako asmoei eutsiko die, lehiarako asmo barik mendian kirol jarduera egiteko hitzordu aparta izatea baino ez du xede.

Aurten ere bi ibilbide izango dira, bakoitzaren sasoiaren arabera, *Mari* (43km) eta *Azpiko* (36km). Aiba! martxak Aramaio-ko ibarrari buelta emango dio aurten ere, baina *Mari* bidea aukeratzen dutenek Udaltx eta Anboto igo beharko dituzte.

Orientazio ikastaroa AEDren Elkartruk egitasmoaren barruan

Elkartruk egitasmoaren barruan, AEDk orientazioaren gaineko ikastaroa emango du, eta dagoeneko zabalik dago izenematea epea. Ikastaro hori Oxel Arrieta arrasatearrak emango du, eta lau orduko ikastaroan arlo teoriko eta praktikoa landuko dute; besteak beste, mapak irakurtzen eta iparrorratza erabiltzen erakutsiko du Arrietak. Plaza mugatuak izango dira, eta datorren apirilaren 25a da izena emateko azken eguna (5 euro). Horretarako, deitu 943 77 12 28 telefono zenbakira, edo idatzi *aed@aedelkartea.com* helbidera

Josu Letonak eta Jose Luis Maquedak urrea Espainiakoan

Ibarreko Kenpo taldeetako hainbat ordezkari izan ziren Espainiako Txapelketan, eta azpimarratzeko lana egin zuten, besteak beste, Josu Letonak eta Jose Luis Maquedak. Letona arrasatearrak urrea jantzi zuen puntukako borrokan, marroi eta beltzen kategorian (84 kilotik gora). Eta, Maqueda ere lehenengo izan zen 84 kilora arteko kategorian. Horiekin batera, Iñaki Sisto bigarren izan zen 84 kilora artekoetan, eta Iker Letona hirugarren 84 kilotik gorakoetan. Mikel Galbez gazteak ez zuen dominarik lortu, baina lan ona egin zuen.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Sonografos-Aldatz	2-1
Dublin-Iritzitu	3-6
Dribling-McAwenDauen	6-6

SAILKAPENA

A TALDEA	P	J
1 Iritzitu	6	2
2 Dribling	4	2
3 Abokajarro	3	1
4 Sonografos	3	2
5 McAwen	1	2
6 Aldatz	0	2
7 Dublin	0	2
B1. TALDEA	P	J
1 AT. Betrayer	3	1
2 Iluna	3	1
3 Fidel & Discipulos	0	1
4 Portaboleiros 2.0	0	1
B2. TALDEA	P	J
1 Aston Birra	3	1
2 Lasagabaster	3	1
3 Iluntz	0	1
4 Ekaitz	0	1

PARTIDUAK

APIRILAK 21, ZAPATUA

10:00 Lasagabaster-Aston Birra / **Sono.**

11:00 Sonografos-Iritzitu / **Lasagabast.**

12:00 Iluntz-Ekaitz / **Iritzitu**

13:00 McAwen-Dublin / **Ekaitz**

APIRILAK 22, ZAPATUA

10:30 Fidel & Discip. - Portabolei. / **Aldatz**

11:30 Abokajarro-Aldatz / **Fidel & Disc.**

12:30 AT Betrayer-Iluna / **Abokajarro**

Dribling: Atsedena.

Atsedeen luzearen ostean, buelta lanera

Aste Santuan aurrekusi baino atsedeen luzeagoa hartu ostean itzuliko da torneoa Zaldibarrera. Hala, asteburuan A multzoko hirugarren jardunaldia jokatu-ko dute, eta B multzoko bigarren jardunaldia izango da.

Lehen postuetan aldaketak ekarriko dituzten partiduak

Bi partidu irabazi ostean Iritzitu dago A multzoan lider, eta bihar Sonografos izango dute aurrean. A eta B multzoan ere partidu interesgarriak egongo dira jokoan, bi kasuetan lehenengo eta bigarren sailkatuak izango direlako zein baino zein gehiago. Lider berriak izango ditugu.




URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

PUB HAIZEA





Mimi Barthelemy ipuin kontalaria Kulturaten izango da gaur.

Munduko kontalarien saioa gaur Kulturaten

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Mimi Barthelemy eta Alexis Diaz ipuin kontaketa saioa izango da da gaur, egubakoitza, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan. Beatriz Egizabalek aurkeztuta, Barthelemy eta Diazen emanaldia *Munduko kontulariak* programaren barruan kokatzen da. Basauri, Durango, Berango eta Elorrioren emanaldiak iragarrita daude asteburuan. Haiti, Kolonbia, Frantzia, Kuba eta Euskal Herriko kontalariek hartuko dute parte.

Arrasaten, esan bezala, Alexis Diaz Pimienta kubatarra eta Mimi Barthelemy haitiarra izango dira gaur arratsaldean. *Repentista* bezala ere aski ezaguna da Diaz. *Ensalada de palabras con Pimienta (o cómo comer poesía y no subir de peso)* eta *Chamaquili en el país de las palabras tristes* izenburuko piezak ekarriko ditu kubatarrak. Barthelemyri dagokionez, abeslaria eta idazlea ere bada. Hurrei zuzendutako Haitiko ipuinak ekarriko ditu eta, aldi berean, helduendako *El fulgurante* kontakizuna eskainiko du Kulturateko emanaldian.

Erakusketa Kulturaten

Bestalde, *El placer de leer* argazki erakusketa ikusgai dago Kulturaten maiatzaren 7ra arte. Martitzenetik domekara ikus daiteke erakusketa, 17:30etik 20:30era bitartean.



Alexis Diaz Pimienta.

Hurrengo komiki solasaldiak, maiatzaren 24an eta ekainaren 14an


E.M. | ARRASATE

Antonio Altarriba idazle eta komikigile ezagunaren gidaritzapean, atzo hasi ziren komiki solasaldiak Kulturaten. Atzoko saioa Art Spiegelmanen *Maus* lanari eskainitakoa zen, eta maiatzerako eta ekainerako beste bi saio iragarri dituzte. Hain zuzen ere, maiatzaren 24an David Mazzuchelliren *Asterios Polyp* lana izango dute aztergai eta ekainaren 14an Jiro Taniguchiren *Barrio leja-*

no landuko dute. Gaztelaniaz izango dira saioak, 18:30ean eta 20:30ean.

Antonio Altarribaren eskutik

Esan bezala, solasaldien koordinatzailea Antonio Altarriba (Zaragoza, 1952) izango da. *El arte de volar* komikiaren gidoi autobiografikoa (Kim ezagunak ilustratutakoa) da haren lanetako bat. EHUKo irakaslea, hainbat komunikabiderek kolaboratzen du Altarribak.



Antonio Altarriba idazlea.

'Biodiskografiak' ikuskizuna Kulturaten apirilaren 27an

E.M. | ARRASATE

Biodiskografiak, Xabier Montoia, Iban Zaldua eta Ibon Rodriguezen ipuin kontakizun musikatua Arrasatera iritsiko da datorren egubakoitzean, apirilaren 27an. Kulturaten egingo dute emanaldia, 22:00etan.

Ipuinak eta diskoak

Zalduaren *Biodiskografiak* liburuan oinarrituriko hitz eta musika emanaldia da Kulturatera iritsiko dena. Liburuko ipuinak irakurriko ditu egileak berak, eta Xabier Montoiak zein Ibon Rodriguezek musika jarriko diote idazlearen bizitzan garrantzia

izan duten kantei. Istorio bat sortzeko edo oroitzapen bat esnatzeko gaitasuna izan duten albumak aukeratu ditu idazle donostiarrak. Tartean dira The Beatlesen *Revolver* diskoa eta Paul Wellerren *22 Dreams*. Batez ere, 80ko hamarkadako kantuak dira, egilearen nerabezero garai-koak.

Ipuin bilduma argitaratu zuen Iban Zalduak *Biodiskografiak* lanean. Denera, 39 ipuin labur batu zituen eta horietako bakoitza disko batek inspiratu zuen. Autobiografiaren eta fikzioaren artean mugitzen dira istorio musikalak.

Hudson Falcons eguenean gaztetxean

E.M. | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan, AEBetako Hudson Falcons taldea izango da eguenean, hilaren 26an, gaztetxean, 22:00etan. New Jersey hiritik datoz eta aurretik ere Arrasaten egondakoak dira. Europan barrena egingo duten hirugarren bira luzean Arrasatekoa izango da Euskal Herrian egingo duten geldialdi bakarra. 1990eko hamarkadan sortutakoa taldeak punk-rock-and-roll estiloak lantzen dituena, beti ere Mark Linskey abeslari beteranoaren estilo bereziak gidatuta. Musika adituen arabera, barru-barrutik datorren musika da, punkaren amorrua eta rockaren samurtasuna batzen dituena. Bada, azken lana aurkeztuko dute eguenean Arrasaten.

'Shame' eta 'Viaje al centro de la Tierra 2' asteburuan Amaian

Asteburuan bi film eskainiko dituzte Amaia antzokian. Steve McQueen zuzendariaren azken lana, *Shame*, ikusteko aukera izango da zapatuan (19:30 eta 22:30), domekan (19:30) eta astelehenean (20:30). Era berean, hurrei zuzendutako *Viaje al centro de la Tierra 2* zapatuan eta domekan eskainiko dute, 17:00etan.

Restaurante
UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

arbolapeta

arrasate

beinke

BASATI

TABERNA

943 71 17 68

2.400.000 euro aurten Gizarte Zerbitzuetarako

2012rako onartu den aurrekontuan kopurua mantentzea lortu duen sail bakarrenetakoa da

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Bergarako Udal Gobernuaren 2012ko aurrekontuak %4,8ko jaitsiera izango du iazkoarekin alderatuta; aurrekontuaren atal gehienek jaitsiera nabarmena izango dute, baina Gizarte Zerbitzuetako aurrekontua mantendu egingo da. Hain justu ere, 2.400.000 euro bideratuko ditu Udalak Gizarte Zerbitzuetara.

Gaur egun bi administratzailek eta bost teknikariek dihardute bertan lanean eta ondorengo sailetan banatzen da beraien jarduna: Hirugarren adina eta mendekotasuna duten pertsonak; Oinarriko Gizarte Zerbitzuak; Emakumea, atzeritarrak eta gazteak; Prebentzioa eta azkenik enplegua.

Profila aldatuz doa

Eta zertara bideratuko dira nagusiki 2.400.000 euro horiek? Zatirik handiena hirugarren adineko pertsonendako eta mendekotasun egoeran daudenak izango da. Dena dela bizi dugun krisi ekonomikoarekin Gizarte Zerbitzuetara jotzen duten herritarren profila aldatzen joan da. "Egoera ekonomiko larria bizi dutela-eta laguntza bila etortzen direnen artean, egia da orain, duela urte batzuk etortzen ez ziren herritarrak daudela orain", adierazi digu Gizarte Zerbitzuetako arduradun Xabier Legorburuk.

Etorkinak gizarteratzen

Etorkinak dira Gizarte Zerbitzuetara maiz jotzen duen beste kolektiboa eta denetarik dagoela adierazi digu Legorburuk: "Batzuk Bergaran gizarteratuta daude, baina beste batzuk ez. Lan egiteko baimenik ez dutenak edo egoitza-baimenik ez dutenak gizarteratzea oso zaila da". Baina, etorkinak gizarteratzea da, besteak beste, bulego honen



Gizarte Zerbitzuetako leihatila. | E.M.

lana. "Diru-laguntza bat jaso ahal izateko gizarteratzeko hitzarmena sinatu behar izaten dute etorkinek". Atzeritarrek jasotzen dituzten diru-laguntzen harira, azken aldi gero eta gehiago dira etorkinek laguntza gehiegi, edo bertakoek baino gehiago, jasotzen dituztela uste duten ahotsak. Iritzi hauek oso arriskutsuak direla uste du Legorburuk. "Herritar bati laguntza bat ukatzen zaionean askotan esaten digute, 'Noski! Hemen atzeritarra izan behar zara laguntza jasotzeko'. Hori ez da zuzena. Guk beti esaten dugu laguntzak jasotzeko baldintzak berdinak direla bertako zein atzeritarrendako, eta orokorrean erraztasun gehiago izaten dituzte bertakoek".

Zentzu berean, eta krisi ekonomikoak lehertu zuenetik, gero eta gehiago dira baita ere Gizarte Zerbitzuetan iruzur kasuak ematen direla uste duten herritarrek. Gai horren inguruan ere gehiegi eta gaizki hitz egin dela uste du Legorburuk. "Beste alor batzuetan iruzurra dagoen moduan hemen ere badago, baina ez gehiago eta ez gutxiago. Uste dut Gizarte Zerbitzuek orokorrean ondo kontrolatzen eta ezagutzen dituztela espedienteak eta kasuak eta jarraipen bat egiten zaiela".

Aurrefabrikatutako etxeetara itzuli dira oporren bueltan Aranzadiko 100 ikasle

Asmoa da Gabonetarako ikasle guztiak Seminarioko eraikinean kokatzea

A.B. | BERGARA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin sinatutako azken akordioak zioen moduan, Aranzadi Ikastolak Aste Santuko oporren aurreko egunean, apirilak 4, utzi zuen Martinez de Irala eraikina.

Aste Santuko oporren bueltan Aranzadi Ikastolako 250 ikasle Seminarioan hasi dira. Horietatik 100 Seminarioko jolastokian ipini dituzten behin-behineko etxeko aurrefabrikatuetan eta gainontzeak Seminarioko eraikinean.

Horixe litzateke Aranzadiko ikasle guztiak Seminarioan kokatzeko planaren lehenengo fasea; ondoren, egokitzapen gehiago egingo dira, etxe aurrefabrikatuak utzi eta ikasle guztiak Seminarioko eraikinean kokatzeko. Ondo bidean Gabonetarako amaituta egongo dira lanok.

Martinez de Irala, hutsik

Aranzadiko zuzendari Ane Barrusok adierazi du zoramena izan zela ikasleak eskolan zeuden bitartean leku aldaketa egitea. Barruso, baina, arduratuta agertu da; haren hitzetan, Hezkuntza Sailarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Aranzadik Martinez de Irala oporren aurretik utzi behar diren arrazoia zen San Martin eskolak obrak lehenbailehen hasita Martinez de Irala ahalik eta bizkorren erabiltzeko, baina lanon hasiera atzeratuko den susmoa azaldu du. "Martinez de Irala utzi genuen egunean bertan Hezkuntza Saileko arkitekto bat izan zen han eta esan zidan lagin batzuk hartzera etorri zirela, eta azterketa



Aurrefabrikatutako etxekoak kanpotik. | ARRITXU BARRUSO



Ikasleak aurrefabrikatutako etxekoetan. | A.B.

horiek egin ostean proiektua lan-tzen hasiko direla". Hori horrela izango balitz eta Martinez de Iralako proiektua oraindik egiteke egongo balitz, desengainatuta sentituko lirakeela esan du Barrusok. "Martinez de Irala presaka eta korrika utzi eta gure ikasleak aurrefabrikatuetan sartu eta bakkarririk falta da Martinez de Irala hutsik egotea orain".

San Martin eskolako zuzendari Begoña Otxoak azaldu du Martinez de Irala egokitzeko lanak lehenbailehen hasiko dituztela, baina datarik ematea ezinezkoa zaiela. Otxoak adierazi du orain lanak hasi aurreko prestaketak egiten hasiko direla, adibidez eraikineren egoera zertu, eta obren zatirik garrantzitsuena udako oporretan egingo dutela.

Ura modu egokian erabiltzeko kanpaina abiarazi du Udalak

A.B. | BERGARA

Asteon hasi eta ekainaren 15a bitartean, Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuak ura modu egokian erabiltzeko kanpaina izango du martxan. Horrenbestez, Bergarako kirol instalazioetan ura aurreztearen aldeko mezuak zabalduko dituzte.

Agorrosin kirolgunean kartelak ipini dituzte, esaterako, gogorarazteko erabiltzaile bakoitzak bost litro ur kontsumitzen dituela batez beste.

Bada, Labegaraieta kiroldegian, Fraiskozuri plazako Udala Pilotalekuan eta bestelako kirol instalazioetan ere jarriko dituz-

te kartelak, erabiltzaileak sentsibilizatzeko eta ura modu arduratsuan erabiltzeko helburuarekin.

Sentsibilizazio kanpaina horretan, Udala Ipintza Institutuko ikasleen laguntza izan du. Hain justu ere, Agenda 21eko, batxilergoko lehenengo mailako Informatikako eta ZIG-eko (Zereginak Ikasteko Gela) ikasleek prestatu dituzte kartelak eta kanpaina erabiliko diren leloak eta esaldiak.

Mujika
gozotegia

Gozogintzan nahi duzuna
Eskatu artisautza eta tradizioa.

Artekalea 3 - BERGARA
Tel.: 943 76 10 34
mujikagozotegia.blogspot.com
mujikagozotegia@gmail.com

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

UREDERRA
ITURBINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Maiatzaren 12ko Erromeria Eguneko bazkarirako txartelak salgai gaurtik

Herri bazkaria izango da Muniben; txartelak 15 eta 12 eurotan eskuragarri

E.M. | BERGARA

Erromeria Eguna ospatuko da Bergaran maiatzaren 12an, eta egunean bertan egingo den bazkarirako txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko. Eguerdiko hitzordu horrekin batera, trikiti doinuak eta euskal dantzak izango dira eguneko protagonista nagusiak.

Bergarako trikitilari eta dantzariekin kalejira eta dantza ikuskizuna izango da eguerdian, eta herri bazkaria Muniben izango da. Arratsaldean, berriz, herriko trikitilarien saioaren ondoren, Erdizka Lauetan taldearekin erromeria izango da Muniben, 16:30ean; eta 19:30ean Triki kalejira egingo dute parte-hartzaileek.

Esan bezala, bazkarirako txartelak Depor tabernan, Ariznoan eta kultura etxean daude eskuragarri, maiatzaren 6ra bitartean. Helduek 15 euroren truke esku-



Herriko dantzari talde bat San Martin plazan. | GOIENA

ratu ahal izango dituzte txartelak eta 12 urte artekoendako 12 eurotan izango dira salgai.

Pazkoak: kartela eta bilerak

Pazkoetako kartel lehiaketarako lanak entregatzeko epea apirilaren 24an bukatzen da. 400 euroko saria

eskuratuko du irabazleak. Bestalde, martitzenean jaien inguruko bilera irekia izango da kultura etxean, 20:00etan. Aurretik, elkar-teen arteko gastronomia lehiaketa antolatzeko bilera deia egin diete interesatuei. Kultura etxean da bilera, 18:30ean.

Sendian programako ikastaroa datorren astean

E.M. | BERGARA

Udalak, Diputazioaren laguntzarekin, ikastaro bat antolatu du menpekotasunen bat duten pertsonaren batekin bizi diren lagundeko. Sendian programaren barruan egingo da eta, besteak beste, honako gaiak landuko dituzte: zaintzailearen zama eta nor bere burua zaintzeko estrategiak; zaintzailearen sentimen-

duak; zaintza teknikak; eta menpekotasuna duen pertsonarekiko komunikazioa.

Ikastaroa datorren astean izango da, astelehenetik egubakoitzera, 15:00etatik 17:00etara.

Ikastaroan parte hartu nahi dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena (943 77 91 65), edo ongizatea@bergara.net helbidera idatzita.

Beroa elkartean hitzaldia

Bestalde, Gipuzkoako Harrera Familien Beroa elkarteak *Hazi, hezi eta bizitzeko aukera bat* izenburuko hitzaldia iragarri du eguaztenerako, hilaren 25erako. Izaskun Ugarte Beroako presidentea eta Leticia Martin psikologoa izango dira hizlari kultura etxean, 19:00etan. Parte hartzeko dei egin dute Udaletik.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN

Bergarako Odol Emaileen Elkar-teen gogoratu duenez, odol ateratzea egingo dute eguaztenean, hilaren 25ean, ambulatorioan, 18:00etatik 20:30era.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte dago zabalik. Egun horretatik aurrera errekararekin eskatuko da. Udaletik jakitera eman dutenez, helbideratutako erreziiboak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrontean. Argibideak kontu-hartzailetzako 943 77 91 64 telefonoan.

1937AN JAIOTAKOEN BAZKARIA HILAREN 28AN

1937an jaiotako bazkaria apirilaren 28an Zumelagan. Txartelak (20 eurotan) Yoar oinetako-dendan, apirilaren 26ra bitartean.

MARIAREN LAGUNDIA: HITZALDIAK

Guraso Elkartearekin elkarlanean, hitzaldi sorta antolatu du Mariaren Lagundia Ikastolak. Alex Muela bergararrak *Arrisku jokabideak aurre-nerabezaroan eta nerabezaroan* gaia jorratuko du eguaztenean, hilaren 25ean, 18:00etan.

EQUOREN HITZALDIA MARTITZENEAN

Equo alderdiak hitzaldia iragarri du martitzenerako, hilaren 24rako. Petrolio eskasiaren ondorioak eta *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa jorratuko dute, kultura etxean, 19:30ean.

BIZIKASIK ANTOLATUTAKO IKASTAROK

Bizikasik pare bat ikastaro iragarri ditu: *Jendaurrean nola hitz egin* (apirilak 24, 26 eta maiatzak 3 eta 8) eta, bestetik, *Ipuin kontaketa tailerra* (apirilaren 25etik maiatzaren 10era). Plazak mugatuak dira. Izen-ematea kultura etxean.

SAN JOXEPEKOAK LOGROÑORA MARTITZENEAN

San Joxepe elkarteak Logroñora irteera iragarri du apirilaren 24rako. Bazkal aurretik Iregua bailaran zehar ibiliko dira. Argibideak: 943 76 21 40.

IRAKURKETA KOLEKTIBO ARANZADI IKASTOLAN


Liburuaren Eguna harira, irakurketa kolektiboa antolatu du Aranzadik. Eguaztenean izango da, 17:15ean, psikomotritzitate gelan. Asier Elortza eta Asier Olabarrieta musikariekin batera, Justina Elexpuru, Iker Muruamendiaratz, Karmele Agirregabiria, Olatz Olaso eta Ane Barruso zuzendariak jardungo dute.

UDALEKU MUSIKALAK MUSIKA ESKOLAREKIN

Musika Eskolak Udaleku Musikalak iragarri ditu ekainaren 25tik uztailaren 6ra. Izen-ematea, apirilaren 26ra arte zabalik. Argibideak Musika Eskolan.

ERRAMU ZAPATUKO PRESOEN ALDEKO ZOZKETA

Bergarako presoan aldeko bilguneak azokako produktuez betetako saskiaren zozketan 1.285 zenbakia izan da sarituta. Txartelaren jabeak 652 77 78 93 telefonora dei dezake.



AIERDI S.A.
Aholkulariak

2011ko ERRENTA
AITORPEN KANPAINA

AHOLKULARITZA FISKALA, LAN AHOLKULARITZA ETA KONTABILITATEA ETA ASEGURU OROKORRAK

Artekale 1 behea - Tel.: 943 76 03 50 - Faxa.: 943 76 03 95 - BERGARA • Atzeko kalea 1 - Tel.: 943 71 60 96 - Faxa.: 943 71 61 13 - OÑATI

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

OHARRAK

'BERGARAKO BESARKADA': HITZALDIA GAUR

Bergarako besarkada-ren gaineko hitzaldia egingo du David Zapirain historialariak gaur, egubakoitza, Irizarren, 19:30ean. Era berean, 1840an *Besarkadaren hitzarmena* gogoratzeko egin zen moduan, brokel-dantza dantzatuko dute Xamatze-ko kideek.

APIRILEAN MUSIKA: HIRU EMANALDI ASTEBURUAN

Kantu ikasleen emanaldiarekin hasiko da gaur, egubakoitza, Apirilean Musika zikloa. 200 ikasleliko gora hartuko dute parte. Mariaren Lagundiaren elizan izango da emanaldia, 19:00etan. Zapatuan, Burlatako akordeoi taldeak eta Orkestra Sinfonikoak, Bergarako Musika Eskolako Gazte Bandarekin arituko dira Santa Marinan, 20:00etan. Eta domekan Ahotsen soinu emanaldia egingo dute Bergarako Musika Eskolako abesbatzek Santa Marinan, 18:30ean.

LIBURU AURKEZPENAK ETA MUSIKA GAZTETXEAN

Jon Cadiernoren *Minutus creatio* eta Uri Colodroren *Maite zaitut* liburuen aurkezpena izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 19:00etan. Bihar, *Mujeres presas* hitzaldia 18:00etan eta Krisis, KKK, Su-etena eta Kalamidaz taldeen kontzertua 22:00etan.

MAKILLATZEN IKASTEKO IKASTAROA JARDUNEKIN

Ihintza Orbegozo izango da irakaslea eta eskolak maiatzeko bi zapatutan (hilaren 5ean eta 12an) egingo dituzte. Argibideak Jardunen.

OIHAN VEGAREN BAKARRIZKETA SAIOA

Oihan Vegak *Euskararen espektakulue* izenburuko bakarrizketa eskainiko du gaur, egubakoitza, Zabalotegin. Bi saio izango dira, 20:00etan bata eta 22:00etan bestea.

POL-POLEKO BETERANOEN IRTEERA

Pol-Poleko beteranoek Teruel aldera irteera antolatu dute maiatzaren 1eko zubirako. Izen-ematea apirilaren 25era arte dago zabalik.



Maite Toledo, Aroztegi aretoan, kaleratu berri duen *Jet lag* liburuarekin. | E.M.

Maite Toledok bi liburu eman ditu argitara

Atzo aurkeztu zituen 'Tekno+turismoa' saiakera eta 'Jet Lag' olerki liburua

EDU MENDIBIL | BERGARA

Maite Toledo idazle antzuolarrak *Tekno+turismoa* izenburuko saiakera eta *Jet Lag* olerki liburua aurkeztu zituen atzo, eguna, Aroztegi aretoan. Aipatutako bi lanok Beta argitaletxearekin eman ditu argitara dagoeneko

han eta hemen hainbat sari jaso dituen Bergarako udaletxeko langileak.

Turismo kontzeptu berria

Hainbat tokitara egin dituen bisitaldiak batzen ditu Toledok *Tekno+turismoa* saiakera liburuan:

"Gure artean errotuta dago turismoa industrialia, museoetara eta fabrika zaharretara egin ohi dena. Teknoturismoa kontzeptu zabalagoa da, ordea; izan ere, horiez gain, industria, zientzia edota teknologia-guneetara egindako bisitaldiak ere batzen ditu. Era

berean, beste zenbait baliabide erabili ditut tokian tokiko biztanleen bizimodua erakusteko: lana, ikerketa, hezkuntza, hizkuntza edota ohiturak, esaterako". Toledok aurreratutakoaren arabera, Bergara eta Debagoiena izan dira erreferente *Tekno+Turismoa* idazteko orduan: "Turismoa aldaera horren berri ematea izan da erreportaje honen ematea, baita haren sustapenak ekarriko lituzkeen onurak azaltzea ere, gure eskualdea Euskal Herriko bihotzean kokatutako industria-gune garrantzitsua delako. Gaiaren inguruko teoria, ordea, antzeko ezaugarriak dituen edozein lekutarako da baliagarria. Profesionalak izan ditut gogoan idazteko orduan: bidaiariak, ikasleak, irakasleak, enpresa buruak, kulturako teknikariak...".

Bizitzako ajeak eta pozak

Saiakera eta poesia ez dira genero irakurrienak. Bien zalea dela aitortzen digu Maite Toledok: "Saiakeraren plan orokorra due-la lau bat urte zirriboratu nuen; olerki liburuari, berriz, iaz eman nion forma, nahiz eta olerkiak lehenago idatzitakoak diren". Olerkietan bizitzako ajeak eta pozak islatu nahi izan ditu: "Sortzeko premia bati erantzuten dion esperientzia estetiko-literarioa da: bizitzeko eta bidaiatzeko gustuko duen edozeinentzat izan daiteke". Edozelan ere, liburu biekien ere azken helburua bera da, irakurleengana iristea da alegia.



Iker Osinaga, Espainiako Txapelketara

Iker Osinaga Espainiako Karate Txapelketan lehiatuko da aste bukaeran Madril. Infantil mailan Gipuzkoako eta Euskadiko txapelduna izan ondoren, iaz Santanderren eskuratutako laugarren postua hobetzen saiatuko da Madril. Euskadirekin autonomien arteko txapelketan laugarren postua lortu zuen Caceresen eta bigarrenak izan ziren Zaragozan. Azaroan Josu Zalakain eta Andoni Muxika lehiatu ziren Espainiako Txapelketan, kadete mailan, Tarragonan.

SHOTOKAN

NATUR HOUSE

Nutrizioan eta dietetikan adituak

Lor ezazu zure pisu ideala gure plan pertsonalizatuekin.
Kilo bat gutxiago, irribarre bat gehiago delako.
Kontsulta doan!

Simon Arrieta Plaza 3 – BERGARA – Tel.: 943 764856



Nerea Rodriguez dietista eta Gemma Oianguren

Gazteek biltegi zaharra berreskuratu gura dute

Auzolanean egiteko asmoa dute; biharko, ingurunea aztertzeke dei egin dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Udaberriarekin batera, hainbat proiektu jarri dituzte martxan Eingeinkekoek; tartean, Bolibarrrerako bidean dagoen biltegi zaharreko ingurunea auzolanean txukuntzea. Eingeinkeko kide Joseba Gabilondok azaldu du udarako gertu gura dutela izatea, eta hori dela-eta, bihar, zapatua, egin dutela lehen hitzordua, 11:00etan, plazan. Honakoa azaldu digu: "Oso toki polita da, eta topagune bihurtu gura dugu. Bihar han egin daitekeena aztertuko dugu; naturarekin lotutako elementuak erabili nahi ditugu auzolan horretan".



Biltegi zaharreko gunea utzita dago gaur egun. | MIRIAN BITERI

Ortu komunitarioa

Bestalde, ortu komunitarioa ere egiteko asmoa badute gazteek. Dagoeneko sasoiko produktu ekologikoak landatzeko lur zati zabal lortu dute herrian bertan, zaharren egoitzak utzita, eta datozen asteotan lurra mugitzen hasi direla dio Gabilondok.

Dagoeneko zazpi lagunek agertu dute interesa, eta Eingeinketik gogorarazi dute interesa duten gazte guztiek proiektuan parte har-

tzeko aukera daukatela. Horren harira, honakoa azaldu du: "Hasiera batean, gazteendako egin dugu deialdia, ikusten dugulako gazteek zailago dutela lur zati bat izatea, baserritarrek ez badira. Dena dela, langabezia daudenendako edo edozeinendako ere zabalik dago". Interesatuak lantaldiak@eingeinke.org helbidera idatzi behar dute.

Gabilondok jakinarazi digu Eingeinkek diruz lagunduko

duela horretarako materiala, eta autokontsumorako izango dela baratzetik irteten dena. Horrekin batera, azaldu du konposta egiteko aukera ere izango dela han; horretarako, Mankomunitateak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko asmoa dute. Horretaz gainera, herriko baserritarrekin egotea pentsatu dute, ortu bat zelan eroan behar den ikasteko.

OHARRAK

SHOW LEHIAKETA

Gaur, egubakoitza, show lehiaketa dute Tortolis ludotekan, 18:00etan.

MARGO ERAKUSKETA

Gaur arte bisita daiteke Ibarraundin aurtengo margo lehiaketara aurkeztutako lanak. Goizean, 09:00etatik 14:00etara, eta arratsaldean, 17:00etatik 19:00etara egongo da zabalik museoa.

AQUARIUMERA IRTEERA

Gaztelekuan askotariko ekin-tzak dituzte datozen egunotan: gaur, txapa tailerra; bihar, Donostiako aquariumera irteera; eta etzi, filma.

KIROL HITZORDUAK

Norgehiagoka bi daude asteburuan Manuel Muñoz kiroldegian. Bihar izango dira horiek: 16:00etan, areto futboleko, herriko gazteak Diocesanasen kontra lehiatuko dira; eta 18:00etan, seniorren saskibalo partidua dago. Bera Bera Grosen kontra jokatu dute etxekoek.

XABIER ITURBE BATZOKIAN

Kutxabaneko presidenteorde Xabier Iturbek krisiari buruzko hitzaldia eskainiko du astelehenean, apirilak 23, herriko batzokian. 19:00etan hasiko da berbaldia.

Lorea Diaz de Gereñu | Eskoriatzako Zero Zabor taldeko kidea

"Epe motzean, zabor gutxiago zelan sortu erakustea da gure asmoa"

Herritarrek sortutako taldea da; astero biltzen da eta nahi duenak parte hartzeko aukera du

M.B. | ESKORIATZA

Eskoriatzan ere Zero Zabor (ZZ) taldea eratu dute hainbat herritarrek. Hiri hondakinen arazoa irtenbidea topatzeko lanean dihardu talde horrek, eta, horren harira, atez atekoaren sistemaren aldeko apustua egiten du. Taldeko kide Lorea Diaz de Gereñuk epe motzera duten erronkaz egin digu berba.

Nolatan sortu duzue Zero Zabor taldea Eskoriatzan?

Orain dela gutxi sortu da Eskoriatzan, eta Debagoieneko beste herriekin batera bat egiten dugu ZZ filosofiarekin. Gizarte eredu jasangarriagoa posible dela sinesten dugun herritarrek gara.

Zein da zuen asmoa?

Epe motzean, hondakinen arazoa da daukagun erronkarik larriena, eta horri irtenbide egokiena bilatu behar zaiola kontziente izan behar dugu. Gaur egungo sortu erabili-bota eredu linealaren aurrean, beste eredu baterantz

joan behar dugu; produktuak berrerabili eta birziklatzeko diseinatu behar ditugu, baldintza horiek betetzen ez dituzten produktuei bi aukera utzita: hain justu ere, birdiseinatu edo sistematik kanpo utzi. Bitartean, sortzen ditugun hondakin eta zaborrei irtenbidea eman behar zaie, eta atez atekoa da momentu honetan hori lortuko duen sistema egokiena, gure ustez. Hortaz, epe motzean, zabor gutxiago zelan sortu erakustea da gure asmoa, eta horren inguruko informazioa zabaltzeko asmoa dugu, besteak beste.

Zeintzuk izango dira lan ildoak?

Aste batzuk badira hitzaldiekin hasi ginela, hondakinek sortzen duten arazoaren inguruan. Esaterako, martxoaren 27an eta 28an, *Zaborrak guk sortu, guk kudeatu* lelopean, hitzaldi bikoitza eskaini genuen, zaborraren kudeaketak azken hamarkadan bailaran eta Gipuzkoan izandako bilakaeraren berri emateko. Bide batez, taldea-



Lorea Diaz de Gereñu. | GOIENA

hitzaldi bera. 19:00etan izango dira biak Ibarraundin. Gero, urtean zehar, informazio zehatzagoa zabaldu nahi dugu atez ateko bilketaren inguruan, datorren urtean martxan jartzeko aukera dagoelako. Taldea astero biltzen da eta esan beharrik ez dago zabalik dagoela nahi duenak parte hartu ahal izateko, informazioa jasotzeko edo ekarpenak egiteko.

Debagoieneko Mankomunitateak esku artean dituen datuek diote Eskoriatza dela eskualdetik gutxien birziklatzen duen herria. Atez atekoarekin kopuru horrek gora egingo duela uste duzue?

Bai, hala erakusten dute sistema hau ezarrita dauden herrietako datuek. Atez atekoarekin zabor kopurua gutxitu egiten da eta hondakinen birziklatze maila igotzea lortzen da.



Hilaren 27ra arte aurkez daitezke udaleku irekietarako begiraleendako curriculumak

Uztailaren 3tik 20ra egingo dituzten udaleku irekietarako begiraleak behar dituzte. Udal Gazteria Saitetik jakinarazi dute dagoeneko zabalik dagoela curriculumak jasotzeko epea; hilaren 27a baino lehen aurkeztu behar dira Tortolis ludotekan, 16:30etik 19:30era, eta kultura etxeko bigarren solairuan, 09:00etatik 14:00etara. Bestalde, iturri beretik jakinarazi dute Diputazioaren *Gazte Oporraldiak 2012!* kanpaina martxan dagoela, eta apirilaren 24ra arte eman daitekeela zozketarako izena www.gipuzkoa.net/oporraldi webgunean edo herriko kultura etxean, goizez.

Liburuak trukatzeko 'Bat ekarri, bi eruen' azoka eta umeendako tailerrak egingo dituzte gaur

Kultura eta Euskara udal zerbitzuek eta liburutegiak elkarlanean gertatutako *Kataia Eten Barik* egitasmoaren barruan, liburuak trukatzeko *Bat ekarri, bi eruen* izeneko azoka egingo dute gaur, egubakoitza, 18:00etatik 19:30era, plazan. Azken asteotan liburutegira eramandako liburu bakoitzaren truke bi liburu jaso ahal izango dira, liburutegian emandako txartelak aurkeztuta. Bitartean, umeendako tailerrak ere izango dira. Horrez gainera, bestelako ekintzak ere antolatu dituzte datorren astean, hala nola, ipuin kontaketak edo ikus-entzunezko muntaia poetikoa.

Errepublika eta Espainiako gerrari buruzko kartelak daude ikusgai kultura etxean, gaurtik

Bigarren errepublikaren 81. urteurrenaren harira, herriko udal txeko balkoian errepublikaren ikurra jartzearekin batera, garai hartako kartelen gaineko erakusketa antolatu du Ezker Anitza-IU taldeak. Gaur, egubakoitza, zabalduko dute kultura etxean, eta hilaren 29ra arte bisitatu ahal izango da honako orduetartean: astelehenean, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu eta domeketan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Bereziki errepublikako kartelak egongo dira han ikusgai; garai hartan askotariko 2.000 karteletik gora inprimatu ziren, eta horietako batzuk batu dituzte erakusketa horretan.

Ima Beristain | Alkatea

"Antzuolako herria energetikoki efizientea izatea nahi dugu"

Debagoieneko Ospitalerako autobusa eta herriko zerbitzuak kalitatez mantentzea ditu Udalak erronka

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Dagoeneko bederatzi hilabete pasa dira Ima Beristain Antzuolako Udalera heldu zenetik. Balorazio positiboa egiten du; lantalde "jatorra" eta "ilusio handikoa" duela kontatu du Goiena telebistako *Harira* saioan. Orain Antzuolaren gainean gehiago dakiela eta beste modu batera ikusten duela herria dio. "Denok udal txean lanean eman beharko genuke denboraldi bat, nolako lana den jakiteko", esan du Goiena telebistan.

Bilduk gehiengo eroso du erabakiak hartzeko orduan.

Zenbat eta jende gehiago lanerako, orduan eta hobeto egiten dira gauzak. Nire ustez, elkarrekin lan egitea da garrantzitsuena. EAJko kide bat bergararra da, eta partekatzen ditu gauzak gurekin; gainontzeko oposizioko zinegotziak ez dira debagoiendarrak. Harreman naturala dugu.

Zerk eman dizu poztasuna?

Herritarren babesa sentitzea. Lasai etortzen dira niregana edo zer esatera: animuak emateko edo kritikatzeko. Gauzak hitz eginda konpontzen dira, eta hori baloratzen dut.

Debagoieneko ospitalerainoko autobus zerbitzu zuzena noizko?

Apirilaren 16an martxan jarri da. Orain dagoen zirkularra mantenduko dugu, eta, guztira, zazpi zerbitzu gehiago izango dira. Antzuolarrei eskatu nahi diet mesedez erabiltzeko, denondako onura izango delako. Garraio publikoaren alde egin nahi da.

Nolakoak dira 2012rako onartu diren aurrekontuak?

Zorpetze handia daukagu -2.620.000 euro-; sarrerak gutxiago dira -2.500.000 euro inguru-. Ez zaigu aukera askorik geratzen inbertsioak egiteko. Ahalegina, ordea, egin dugu murrizketarik egon ez dadin; zerbitzuei eustea da gure erronka nagusia orain.

Zein izango da zuen inbertsio nagusia agintaldian?

Autobusa herri barrutik atera gura dugu; herrian arazo handia

sortzen da, kaleak estuak dira -eta. Hori bideratzen ari gara. Gure asmoa da Sagasti auzoan biribilgunea egin eta geltokia jartzea. Diputazioak Zupide parean biribilgunea egitea aginduta zuen, baina ez dauka dirurik; horregatik, eurekin lantzen ari gara beste mota bateko sarrera merkeagoa egiteko asmoa eta autobusa herri barrutik ateratzeko. Aurten ere, eskola aurreko jolaslekua berri gura dugu; guraso talde batek eskaria egin digu eta diru partida bat horretarako bideratu nahiko genuke.

Parte-hartzea bultzatu gura duzue Udaletik?

Gure asmoa da herria eta Udala bateratzea. Herritarrek guregana erraz gerturatzea nahi dugu. Aurrekontuak horregatik aurkeztu genituen herritarren aurrean. Diputazioak horrelako proiektuak egiteko laguntzak ematen ditu, eta eskaera egin diogu. 2013ko aurrekontuak antzuolarren parte-hartzearekin egingo ditugu.

Eguneko zentroa, etxe tutelatua, haurreskola... zerbitzu guztiak mantentzeko borondatea duzue?

Bai, duda barik. Oso zerbitzu onak ditugu, eta hori mantentzea da gure erronka. Herritarren erabilerarako egokituko ditugu ahalik eta jende gehiagok erabiltzeko. Herritarrek gustura daude zerbitzuekin, eta mantentzeko ahalegina egingo dugu.

Baserrietako ur-saneamenduaren lanekin jarraituko duzue?

Diputazioak dirulaguntza eskainiko du eta ur-saneamenduari jarraipena emateko partida bat bideratu dugu. San Martzial auzoan egiten jarraituko dugu.

Argiteriaren ikerketa egin duzue.

Emaitzak ez dira batere onak izan, behar baino argindar kopuru handiagoa kontsumitzen dugulako. Baina gasak eta gasolioak ere arazoak ematen ditu. Antzuola energetikoki efizientea izatea nahi dugu epe ertainera. Gastua erdira murriztea da asmoa; hori bideratzen ari gara eta bagabiltza enpresekin kudeatze moduak



Ima Beristain, Antzuolako alkatea, Goiena telebistako platoan. | ENEKO AZKARATE

gertutik ezagutzeko batzarretan. Beste herri batzuetan nola egin duten ikusiko dugu orain.

Irisgarritasun planik?

Ikerketa egin dugu erdigunean; irisgarritasun plana eraikuntza berriak egin diren inguruetan ere egin dugu. Beste leku batzuetan ere egin behar dugu, oztopo arkitektonikoak saihesteko; udaletxean, esaterako. Orain gure udaletxeak ez du irisgarritasun plana betetzen eta erronka hortxe daukagu.

Torresoroak hiru urte bete ditu. Zein da egiten duzuen balorazioa?

2009ko martxoan zabaldu zituen ateak Torresoroak, erabilerak ona izan duela uste dut; orain amaiera falta zaio: harmailak jartzea. Horretarako diru kopurua

behar dugu, baina lehentasuna herriko beste gauza batzuk dute-nez, zaila da. Herritarren batek eskatu digu harmailak jartzea, baina, gure lehentasunen artean, esan moduan, beste lan batzuk daude nahiz eta aurrez bageneukan diru partida bat horretarako bideratuta. Baina, une honetan aukiekin Torresoroan aurrera eta atzera gabiltza; momentuz horrela konpondu beharko gara. Dena den, esan herritarrek erabiltzen dutela ekintza eta jardue-za ezberdinetarako: enpresen batzarrak egiteko, dantza entseguak egiteko, antzerki emanaldietarako, musika taldeendako, Udalak aurkezpenak egiteko... Antzuolarren aldetik eskaera handia egon da orain arte behintzat, pozgarria da hori.

Auzolana indartu gura duzue.

Herritar batzuek, esaterako, bizikleta garbitzeko gunea nahi dute. Baina, Udala ezin da lan hori egitera iritsi dirurik ez duelako; hala, Udalak materiala jarriko du eta eurek gune hori martxan jarriko dute. Nire ustez, denon artean gauzak lortzea garrantzitsua da eta herritarrek behar eta nahi dituzten ekintza, ekimenak aurrera ateratzeko bide ona da.

Bergararako bidegorria noizko?

Diputazioako planoetan, hiru proiektu batera doaz: autobia, ur-zikinak araztegi eramateko lanak eta bidegorria egitea. Azken 25 urteetan gauzatze zain gaude. Bergarako alkatearekin, Diputazioa joango gara bidegorria egiteko eskaera berria egitera.

Eta ur zikinak, beraz, noizko?

Hori ere Diputazioaren arabera. Ur zikinak jasota daude, baina Bergarara eramateko lanak falta dira. Gauza bat hasten denean egiten beste bat apurtu behar da;

HERRITARREN ALKATEARI GALDEZKA

Ze harreman dauka Udalak gaztetxearekin? Nola kudeatuko du?

"Gaztetxearen eta Udalaren arteko harreman ona da. Eurek kudeatuko dute. Orain arte ikusi da lan ausarta egin dutela eta gogotsu egindako lana izan dela. Udalak eraikina ordaindu du; baina aurrera begira auto-kudeaketa egingo dute eta mantentzeko gai izango dira. Demostratu dute inizatiba badutela. Errekek garbitzeko ekimena, adibidez, eurek bultzatutakoa da. Gainera, eurek margotu gura izan dute eta laster zabalduko da, dena prest dutenean".

Buztinzurin autobusak trabatuta geratzen dira, noiz konponduko da?

"Herritarrek autoa gaizki aparkatzen dute. Plastikozko hesi zuri-gorriak jarri ziren autoak ez aparkatzeko Buztinzurinean. Aguazilaren eskumena ez da isunak jartzea eta Udaletik Ertzaintzari deitu behar diogu autobusa ezin pasa geratzen delako. Antzuolan ez dago aparkatzeko arazorik, Sagasti auzoan tokia dago. Baina ohitura txarra dago. Autobusa, esan bezala, herritik ateratzea da asmoa, honi irtenbidea emateko".

Eskola aurreko parkean dauden zintzilikarioak noiz aldatuko dituzue?

"Edukiontzia zeuden tokian jarri genituen hondakinak batzeko zintzilikarioak; baina kale horretako bizilagunekin hitz egin dugu, nora aldatu erabakitzeko: batzuek Buztinzurinean eta beste batzuek Ondarre plaza inguruan nahi dituzte. Bideratzeaz gaude. Guraso talde berak ere, parkeko ziburuak berritzeko eskaera egin digu. Egoera txarrean daudela ikusita, egindako eskaerari erantzun diegu eta ziburu berriak jartzen saiatuko gara".



"Autobusa herri barrutik atera gura dugu; arazo handia sortzen da, kaleak estuak direlako"

"Diputazioan, Bidegorria eskatuko dugu berriro, Bergarako alkatearekin batera"

"Antzuolarrei, ospitalerainoko autobus zerbitzua erabiltzeko eskatu nahi diet"

"Herritar guztien artean, auzolanean, gauzak lortzea oso garrantzitsua da, nire ustez"

OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

Maria Eugenia Arrizabalaga | EAJko zinegotzia

"Agintzeko gehiengo eroso duzuen arren, ez dago herriarendako proiekturik"

"Urtebete pasa da ia udaletxe berria eratu zenetik. Bilduk gehiengo eroso du eta erabakiak hartzeko zailtasunik ez; ez du inorren beharrik. Baina Antzuolako herriko etorkizuna markatuko duten proiektuak falta dira; herritarrei onurak ekarriko dizkien proiekturik ez dago. Politika orokorrari dagozkion mozioak landu dira osoko bilkuretan, eta ez, aldiz, herriari onurak ekarriko lizkioketen asmo eta proiektuak. Udalaren egoera ekonomikoa ere latza da 2008ko maileguen ondorioz, eta inbertsioetarako ez du".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Industrialdea eraikitzea, eskolako haurren parkea, Antzuola Sagastiko biala, herria energetikoki efizientea izateko proiektua, ur zikinak Bergarako araztegiara eramatea, Antzuola-Bergara bitarteko bidegorri tartea egitea... proiektuak asko dira eta ditugu, eta ahalegina egingo dugu, noski, baina dirurik ez dago. Hankak lurrean jarri behar dira; dugun aurrekontuaz ez dago dirurik. Proiektuak izan arren, zaila da horiek aurrera eramatea".

OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

Herriko enpresen zerga ikuskaritza programa zertan da? Batutako diruaz zer egiteko asmoa du Udalak?

"Enpresa zergak Udalarekin eguneratuta izateko helburuaz jarri zen ikuskaritza aurreko agintaldian; proiektuak eguneratzea, jarraipena egitea da asmoa. Baina oraindik ez da bukatu, ezin da esan zenbat diru batuko den eta zertarako erabiliko den".

AHTren obra herritik pasatzen da. Herriak zein onura izango ditu? Noizko industrialdea Antzuolan?

"AHTk eragindako txikizioa ezin da inola ere ordaindu. Industrialdea lortzeko lanean bagabiltza. Bere garaian, Ipurtikan planteatu zen egitea, baina Jaurlaritzak inguru babestu izendatu du. AHTkoekin hitz egin dugu Ertzila inguruan ere egiteko. Baina hemen lanak martxan daude eta ezin da ezertan hasi. Irain aldean ere planteatu diegu; erantzunik ez dugu jasotzen".

beraz, lanak batera egin behar dira; izan ere, paraleloki doaz autobia, bidegorria eta ur zikinaren proiektuak.

Atez atekoak urtebete.

Oso balorazio positiboa egiten dugu; herritarrengan harrera ona izan du eta %90 birziklatzea lortu da Antzuolan. Sarrerak eta gastuak positiboan geratzen dira: hondakinak jasotzearen kostua igotzen da, baina honen tratamendua askoz ere merkeagoa da eta ontzi arinen kopurua gainera bikoiztu egin da. Ingurumena, osasuna eta heziketa ona lortzen dela baloratu behar dugu.

PSE-EE eta EAJ esan eta esan ari dira Antzuolan %40 zabor gutxiago batu dela. Nolatan?

Hondakinaren %40 gutxiago batu zela aipatu genuen datuetan; baina berehala akatsa izan zela esan genuen. Alderdi sozialistak eta EAJk datu hori erabili dute aurka egiteko. Krisiagatik jaitsi da hondakinaren bilketa, eta %2an kokatzen da egun.

Dendetan paperezko poltsak emateko kanpainarik egingo duzue?

Mahai gainean dugu, baina oraindik ez dugu ezer erabaki; ezta mankomunitatean ere. Poltsa biodegradableak Lapatzen arazoak eragiten ditu; beraz, ondo aztertu beharreko gaia da.

Euria egiten duenean kartoia eta papera busti egin daiteke, estalkirik jartzeko asmorik?

Ez dugu planteatu. Herritar talde batek, esaterako, gai honi irtenbidea eman guran, papera edukiontzi urdinera eramatea adostu du. Gero, hortik, ateratzen dute txandaka. Horrelako soluzioak bilatzeko esango nieke.



Atez atekoaren emaitzak faltsutzea egotzi dio PSE-EE alderdiak Bilduri

GOIATZ ARANA / M.A | ANTZUOLA

Carlos Urrestarazu zinegotzi sozialistak esan du ez dela egia atez ateko hondakinaren sistema bilketarekin %80 birziklatzen dela, "bosgarren edukiontzia moduan hondakinak batzeko sistema bat delako eta, beraz, batarekin zein bestearekin %0 birziklatzen delako".

PSE-EE alderdiko kidearen esanetan, "atez atekoarekin batutako materia organikoaren %25ek ez du balio tratamendu-plantetan; aldiz, portzentaje hori bost aldiz txikiagoa da -%5- bilketa bosgarren edukiontzia bitartez egiten den kasuetan".

"Materia organikoaren %80 batzen da atez atekoarekin, baina zenbatek balio du birziklatzeko?", hori dago gakoak, Carlos Urrestarazuren iritziz. "Hori kontuan izanik batetik, eta atez atekoa zikina, garestia, osasunerako kaltegarria eta deserosoa dela kontuan izanik bestetik, nahiago dugu edukiontzi sistema garbiagoa, ekonomikoagoa, jasangarriagoa eta estetikoagoa delako", adierazi du Urrestarazuk.

Zinegotzi sozialistak "zentuz" jokatzeko eskatu du, eta birziklatzea gure kultura hiritarraren parte izatea lortu behar

dugula gaineratu. Bada, azaldu du ez duela onartuko herritarren birziklatze-kontzientzia zailtasun jartzea. Hala, Gipuzkoan urteak daramatzagula birziklatzen eta "emaitzak gero eta hobek" direla argudiatu du Goienara bidaliko prentsa oharrean: "%43ko birziklatze-tasarekin, Gipuzkoa da gehien birziklatzen den lurraldeetako bat. Aurreko bi legegaldietan, gainera, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari zuten alderdi politikoei hondakinaren arazo larriari irtenbide integrala ematen zion testu bat adostu zuten".

2.270.000 euroko kostua

Carlos Urrestarazuk 2.270.000 euroko kostua ekarriko duela gipuzkoarrontzat azaldu du: "EAJren babesarekin, Bilduk agintea duen Gipuzkoako herrietan plangintza integrala geldiaraztea erabaki du, eta, ondorioz, hondakinak Euskaditik kanpo eramatera behartzen gaitu, horrek dakarren gastu ekonomikoarekin eta ingurumen kostuarekin. Gipuzkoatik Bizkaira, Iparraldera, Segoviara, Soriara eta Burgosera 31.000 tona zabor bidaltzeak 2.270.000 euroko kostua du gipuzkoarrontzat".

Urteko batzar orokorra egingo dute erretiratuek zapatuan

Urteko batzarreko lehen deialdia 16:30ean izango da eta bigarrena, aldiz, 17:00etan. Landuko dituzten gaien artean, 2011ko memoria eta diru kontuak izango dira; baita 2012-rako aurrekontuak eta programa ere. Horrez gain, batzordeko hiru kide berri aukeratu dituzte zapatuan, hilaren 21eko batzarrean.

Patinaje eta erditze osteko gimnasia ikastaroak apirilean

Udal gimnasioko jardueretan izena eman dezakezue. Apirilaren 24an hasiko da patinaje ikastaroa. Hilaren 23ko astean, aldiz, erditze osteko gimnasia hipopresiboa (ikastaroko egunak eta ordutegiak hitzaldian adostuko dira, irakaslearekin). Informazio gehiago 943 76 66 61 telefonoan edo antzuolakogimnasia@gmail.com helbidean.

OHARRAK

ANELKAR

Senegalera eskolako materiala bidaltzeko laguntza. Apirilaren 23tik 27ra herriko eskolan edo liburutegian utzi.

ABESBATZA

Entsegu eguaztenean izango da, udaletxean, 20:30ean.

HAURRESKOLA

Datorren ikasturteko matrikulazio epea zabalik maiztazaren 2tik 11ra. Eskaera haurreskolan hartu behar da.

FUTBOLA

Antzuola-Zumaiako. Eztalan, 16:00etan, zapatuan.

PATXIKO TXERREN

Patxioko Txerren ipuingintza-aren emaitzak jakinaraziko dira. Ondoren APIKA taldearen ipuin saioa, 19:00etan, Torresoroan, domekan.

ERAKUSKETA

Alaitz Jauregiren ikasleek Xinkonan egindako eskulanak Olaranen, 18:30-20:30.

Lanbus autobus zerbitzua bertan behera utzi dute

- ▶ Hiru urteko hitzarmena martxoan bukatu zen
- ▶ Abuztura arte behin-behineko zerbitzua egongo da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

2009ko martxoan hasi zen Lanbus autobusa zerbitzua ematen. Udalak hiru urterako hitzarmena sinatu zuen herriko lau enpresarekin: Fagor Industrial, Ulma Construcción, Ulma Packaging eta Ulma Pipingekin, hain justu ere.

Bada, zerbitzuak ez ditu esperotako emaitzak eman, eta martxoaren 28an hartutako erabakiaren arabera, Lanbus zerbitzua bertan behera uztea erabaki zuen Udal Gobernuak. Udal webgunean argitaratutako oharrek dio: "Pesa enpresak eskainitako zerbitzua garestia gertatu da eta hainbat enpresendako jasan ezina da hiru urterako onartutako finantzazioa ereduari jarraipena ematea".

Hori horrela, Pesak Lurraldebeuseko sistemaren txartela erabiliz eskaini duen zerbitzua "bertan behera" geratzen da. Dena den, autobus zerbitzua eman emango da, behin-behineko, abuztura arte. "Autobus enpresa

pribatu batek beteko du herrigunetik Ulmako negozioetarako garraio zerbitzua. Fagor Industrialek behin-behineko zerbitzua kanpo geratzea erabaki du", dio www.oinati.eu atariak.

Enpresen sarrera eta irteera ordutegietan ibiliko den autobusak Lanbusek zituen geldialdiak mantenduko ditu eta Ulma Packaging, Piping eta Construcciónera joango da.

"Zerbitzu merkeagoa"

Herrigunearen eta udalerrian kokatutako enpresen arteko langileen garraioa errazteko helburuz sortu zuten Lanbus garraio zerbitzua. 2009ko otsaileko osokoan hartutako erabakiaren arabera, Udalak Lanbus zerbitzuaren kostuaren hirutik bat ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, baina hiru urteko epearekin. Erabakiak zioen baita ere, hiru urteko epea beteta, enpresen esku geratuko zela zerbitzuaren finantzazio osoa.

DATUA

3

URTE

Hori da Udalak eta herriko lau enpresak Lanbus zerbitzua martxan ipintzeko sinatutako akordioaren iraupena.

DATUA

3.000

EURO

Hori da Udalak, abuztu bukaera arte, hilero egingo duen aportazioa, behin-behineko zerbitzuarekin jarraitzeko.

Akordioan adostutako epeak beteta, enpresek ikusi dute ezin zutela finantzazio osoa euren gain hartu, eta halaxe esan zioten Udalari.

Horren aurrean, "zerbitzu merkeagoa ematen duen beste enpresa bat kontratatu eta finantzazioaren hirutik bat ordaintzen jarraitzeko konpromisoa" hartu du Udalak. Hori horrela, abuztu amaiera arte, behin-behineko zerbitzua dute autobus zerbitzua.

Udalak zerbitzua ziurtatzeko, hilero 3.000 euro ipiniko ditu. Diru horrekin Ulmako hiru negozioetako langileak enpresaren aurrean utzi eta hartuko ditu. Dena den, beste enpresetako langile batzuek ere erabili ahal izango dute autobusa, baina alde aurretik zehaztutako geltokietan geratuko dela kontuan hartuta.

Beste eredu batzuen azterketa

Lanbus zerbitzua eteteko erabakiarekin batera, Udalak beste konpromiso bat ere hartu du: udalerririk barruko autobus zerbitzuaren azterketa egiteko konpromisoa. Horren barruan, Arantzazura domeka eta jaiegunetan doan autobusa ere ikertuko dute. Bi zerbitzu horiengatik 120.000 euro ordaindu ditu Udalak azken hiru urteetan. Herri barruan autobus zerbitzua emateko dauden beste eredu batzuk aztertze konpromisoa hartu du: adibidez, Bergarakoa. Han bi lineako autobus zerbitzua daukate.

Irailean hartuko dute azken erabakia.

Udalekuetako begiraleek izena emateko azken eguna

M.B. | OÑATI

Uztailaren 2tik 27ra arte egingo dituzten *Milakolore* udalekuetan begirale izan gura dutenendako izena-emateko epea bihar, zapatua, bukatzen da. Interesatuak udal bulegoan egin behar dute eskaera: NAREN, tituluaren eta EGA edo baliokidearen fotokopiak, eskaera orria, eta meritua egiaztatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte.

Kontratua uztailaren 2tik 30era egingo diete, eta hautagaiak aukeratzeko, titulazioa, ikasketak, prestakuntza-ikastaroak, euskara maila, lan-esperezia eta Oñatin errolatua egotea hartuko dituzte kontuan.

Puntuaketaren arabera aukeratuena zerranda osatuko dute eta udal txekio iragarki taulan eta atarian argitaratuko dituzte.

Prestakuntza-saioak

Bestalde, udalekuetako begirale izango diren hautagaiak ezinbesteko prestakuntza-saioak egin beharko dituzte maiatzaren 19an eta 26an, eta ekainaren 30ean.

Batzar irekia Uemaren berri emateko

M.B. | OÑATI

Oñatiko Udala Uemako kide izateko bidean da, eta prozesuaren berri emateko batzarra egingo du herritarrekin hilaren 25ean, 19:00etan, kultura etxean. Batzarra irekia da, eta herritar guztiak gonbidatu dituzte.

Oñatiko Udalak 15.000 euro gorde ditu 2012ko aurrekontuetan Uemako kide izateko prozesua martxan ipintzeko. Prozesu horren nondik norakoak eta orain arte egindako pausoak azalduko dituzte herritarren aurrean.



Lagun Aroko Baron eta Korolev, ikastolako batxilergoekin

Donostiako Lagun Aro GBC taldeko Jimmy Baron eta Yaroslav Korolev jokalariek Txantxiku Ikastolan egon dira bisitan asteon. *Eleanitz English* egitasmoa indartzeko asmoz, ingelesez egin zuten berba lehen batxilergoko ikasleekin.

Euren ibilbidea erreparatu eta euren herrialdeei buruz egin zuten berba; eta noski, baita Lagun Aro GBC taldeak ACB ligan egiten diharduen denboraldiaz ere: taldeak lortutako garaipen handiak erreparatu zituzten.

Josu Zubiak musika eta magia batuko ditu Antton tabernan

Josu Zubiak oñatiarra izango da protagonista gaur, egubakoitza, Antton tabernan. Gitarra-jotzaile oñatiarrak kontzertua egingo du 20:00etan. Gipuzkoako Kantu txapelketan parte hartu eta egun Ganbarako kide den kantariak musika goxoa eskainiko du. Gainera, gitarra ondo jotzeaz gain, magia ere egiten du, eta biak ala biak batuko ditu.

Ate irekien eguna eta matrikulazio epea zabalik Txiki-Txokon

Olakua auzoan dagoen Txiki-Txoko haurreskolak ate irekiak egingo ditu hilaren 25ean 18:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago gura dutenek 943 71 64 05 telefonora deitu ahal dute.

Bestalde, maiatzaren 2tik 11ra matrikulazio kanpaina hasiko dute 0-2 urte arteko umeendako.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saiorako sarrerak salgai

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Zazpikoloroa* ikuskizuna egingo dute maiatzaren 5ean, 17:00etan, Txantxiku Ikastolaren Egunaren barruan. Sarrerak salgai dituzte dagoeneko ikastolako idazkaritzan, sei eurotan. Ikusizunean, ikastolako laugarren mailako ikasleek parte hartuko dute.

Oñati eta Kirikiño abesbatzak elkarrekin agustindarren elizan

Oñati Abesbatzak Bilboko Kirikiño abesbatzaren bisita izango du bihar, zapatua. Elkarrekin kontzertua egingo dute agustindarren elizan, 20:15ean, elizkizuna bukatu ondoren.

Bi abesbatzek, bakarka, saio bana egingo dute. Kontzertua bukatzeko, elkarrekin abestuko dute.

Atez atekoaren gaineko hitzaldia Pello Zubiriarekin

Zero Zabor filosofia Debagoieneko herrietan zabaltzeko ekintzetako bat Pello Zubiria kazetariaren gaurko hitzaldia izango da: 18:30ean, kultura etxean. *Atez atekoa, bosgarren edukiontzia...Norena da birziklatzeko ardura?* delako hitzaldia egingo du. Bi sistemen arteko konparaketa egingo du Zubiriarekin.

Gazteak eta helduak operara hurbiltzeko saioa

Opera Divertimento taldeak 'Bazen behin... opera' ikuskizuna egingo du domekan Santa Anan

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Opera Divertimento delako talde lirikoak operaren munduan sartzeko bideak erakutsiko ditu etzi, domeka, Santa Ana antzokian (17:00) egingo duen ikuskizunean: *Bazen behin... opera*. "4-12 urte arteko gaztetxoak eta helduak operaren mundura gerturatzeko ikuskizun originala eta hezitzailea da", esan dute protagonistek. Emanaldia euskaraz egingo dute.

Sarrerak hiru eurotan saltzen dituzte www.barrabarra.eu atarian.



Maestrini konposatzailearen eskutik ezagutuko dute ikusleek opera. | GOIENA

Beethoven, Monteverdi...

Ikuskizuna XIX. mendeko Florentziako jauregi batean kokatzen da. Michaele izeneko neskatua eguneroko musika eskola jasotzera joango da Maestrini maisu eta konposatzaile handiaren etxera. Eguneroko solfeo eskolak alde batera utzi, eta operaren historia kontatzeko eskatuko dio ikasleak maisuari. Hortxe hasiko dute operaren historiaren errepaso:

Monteverdi, Glück, Mozart, Rossini, Beethoven... izango dira protagonistak. Ordubeteko ikuskizuna egingo dute bost pertsonaiek: bi abeslarik, bi aktorek eta pianistak.

Dejabu konpainia

Bestalde, Dejabu konpainiak *Gure bide galduak* delako antzezlanaren eskainiko du, gaur, egubakoitza,

22:30ean, Santa Anan. Franco hil ondorengo lehen urteak abiapuntu hartzen dituen istorioak, baserrietik Irakasle Ikasketak egitera doan neska baten gogoetak kontatzen ditu. Bost aktore igoko dira oholtzara, eta zuzeneko gitarra doinuekin jantziko dute kontakizuna.

Sarrerak www.barrabarra.eu atarian, 10 eurotan.

Orereta Txiki Abesbatza Ganbarako txikiekin elkartrukean

M.B. | OÑATI

Aste Santuko oporretatik indartuta dator Ganbara Txikitxo Abesbatza. Imanol Elizasuk zuzentzen duen Orereta Txiki Abesbatzarekin elkartrukea egingo du aste bukaeran: bihar, hilak 21, 19:00etan, Santa Anan.

Bi taldeen zuzeneko entzuteko sarrera doan da, baina gonbidapenak beharrezkoak dira. Emanaldia hasi baino ordubete lehenago eskuratu ahal izango dira antzokiaren sarrerak.

Elkartrukea izanik, Ganbara Txikitxo Abesbatzak Erreterian egingo du zuzeneko: Aitor Biainen taldeak maiatzaren 5ean kantatu du han.

Bestalde, Ganbara Txiki taldekoek txistorra-jana egingo dute bihar, zapatua. Pintxoak eta edaria alaitzeko musika ipiniko dute herriko plazan.

Pazko Astean Valentzian

Ganbara Txiki Abesbatzakoak Valentzian egon dira Pazko Astean, lau egunean. 40 laguneko taldea egon zen zuzenean abesten eta aisialdiko irteerak egiten; besteak beste, Terra Mítica eta Zientzien eta Arteen Hirian egon ziren. "Oso ondo ibili gara eta kontzertu polita eskaintzeko aukera izan dugu. Nekatuta bueltatu gara, baina esperientzia errepikatzeko gogoarekin", esan dute.

OHARRAK

DEIALDIA

Odol-ateratzea egingo dute gaur, egubakoitza, Txantxiku Ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara arte. Hurrengo ateratzeak egingo dituzte maiatzaren 18an eta ekainaren 15ean.

DEIALDIA

Baserrietan sortutako plastiko zuriak eta beltzak maiatzaren 22an batuko dituzte. Oñatin lau

lekutan utz daitezke plastikoak: Zañartun, Zuazola ondoan; Olabarrietako autobus geltokian; E'TEO atzealdean; eta Murgian, Asentzio ermitaren ondoan.

GARBIGUNEA

Urrutzuko garbigunea zabalik dago astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30era, eta 15:00etatik 19:00etara; eta zapatuetan 09:00etatik 13:30era arte.

Apirilaren **26**an
eskuratu CDa BERRIAREKIN zure kioskoan



+ 2€

Gernika (1937-2012)

MIKEL LABOA

Gernika (Lekeitio 4, 1972)

Bi bertsioen arteko elkarrizketa

• **Lehen bertsioa** 1974an grabatua.
Ahotsa eta gitarra: Mikel Laboa

• **Azken bertsioa:** 1999an zuzenean grabatua.
Orkestazioa: Carlos Puig
Euskal Herriko Gazte Orkestra,
Donostiako Orfeoia
eta Mikel Laboa,
J. Antonio Sanz Alfaroren
zuzendaritzapean.

14 minutuko pieza berria



berria
elkar

Gazteen eta helduen arteko jakituria trukatzeko saioak

Lau ikastaro antolatu ditu Udalak maiatzerako, eta izen-ematea zabalik dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gazte eta helduen arteko jakituria trukatzeko ikastaroa antolatu du Udalak. Hainbat ikastaro egingo dituzte maiatzean; horietako bitan teknologia berrien gaineko kontuak erakutsiko dizkiete gazteek erretiratuei, eta beste bitan, sukaldaritza eta erremedio naturalen gainekoak helduek gazteei.

Izenematea zabalik dago apirilaren 26a artean; Arkupe kultura etxera, udaletxera edo Basotxo erretiratuen elkartera jo daiteke.

Belaunaldien arteko trukaketa

Ikasi, elkarbanatu, hazi, komunikatu leloarekin gazte eta helduen arteko jakituria elkarbanatzeko egitasmoa jarri du abian. Horrekin hiru helburu lortu gura dituzte: belaunaldien arteko jakituriaren trukaketa; belaunaldien arteko komunikazio bidea zabaltzea; eta auzolana sustatzea. "Izan ere, krisi sasoiaren ezinbestekoa da auzolana bultzatzea eta beste herri batzuetan izandako esperientziak ezagutu ondoren erabaki dugu geurean antolatzea", dio Maider Etxaniz Gazteria tek-

EGITARAUA:

MAIATZAK 3

18:00-19:30 Basotxo

Sukaldaritza: haragi-bolak, paella, bakailoa...

MAIATZAK 17

18:00-19:30 Basotxo

Erremedio naturalak: ukenduak...

MAIATZAK 10

18:00-19:30 KZgunea

Telefono mugikorak: mezuak bidali, argazkiak atera...

MAIATZAK 24

18:00-19:30 KZgunea

Internet: egunkaria irakurri, intereseko kontuak topatu...

nikariak, eta gaineratu du: "Gazteek teknologia kontuetan badute zer irakatsi helduei; eta alde-rantziz, sukalde kontuen eta erremedio naturalen jakitun dira helduak. Horregatik, eta beti ere ikasteaz eta irakasteaz gain ondo pasatzeko asmoarekin jarri gura dugu abian egitasmoa".

Hala, lau saio antolatu dituzte maiatzerako. Horietako bi izango dira erretiratuek gazteei emandako ikastaroak eta Basotxo erretiratuen egoitzan egingo dituzte; eta beste biak izango dira KZgunean, teknologia berrien gainean gazteek helduendako gertatutakoak, hain zuzen.

ESANAK

"Sukalde kontu eta erremedio naturalen jakitun dira helduak"

MAIDER ETXANIZ
GAZTERIA TEKNIKARIA

Begiraleak behar dituzte uztaileko udaleku irekietan lan egiteko

M.A. | ARETXABALETA

Gazteria Zerbitzuak begiraleak behar ditu uztailearen 2tik 20ra bitartean egingo dituzten udaleku irekietarako. Curriculumak aurkezteko epea apirilaren 27an bukatuko da: Gazteria Zerbitzuan (udaletxeko lehenengo solairua) edo posta elektronikoko bidez bidalita: gazteria@aretxabaleta.net. Argibide gehiago gura dituenak ere bertan jasoko ditu.

18 urte betetakoak

3 eta 12 urte arteko 200 neska-mutiko inguru elkartu izan dira uztaileko udaleku irekietan gurean, eta hiru astetan horiei lagun egingo dieten begiraleak gura dituzte. Hainbat baldintza bete behar dituzte horiek, tartean, 18 urte beteta izatea; euskaraz jarduteko inolako arazorik ez izatea -EGA agiria izanez gero hobeto-; eta umee-kin jardun eta jolas egiteko gaitasuna izatea.

Horiez gain, baloratuko dituzte aretxabaletarra izatea; egindako ikasketak; begirale jardunean duen eskarmentua; eta Galartzan begiraleekin egindako ikastaroan egon izana.

Gazte Oporraldiak abian

Bestalde, Aldundiak Gazte Oporraldiak 2012 egitasmoa iragarri du, 14 eta 17 urte arteko gazteei zuzendutako udaleku kanpaina. Beste batzuen artean hona eskaintzen dituztenak: Zarautz Surf, Son Bou, Maule, Delta del Ebro (Tarragona), Gazte Rock, La Marina (Alacant), La Vera Jerte (Caceres), Navarredonda de Gredos (Avila), Hondarribia Antzerkia, eta Tragacete (Cuenca).

Zozketa bidez egingo dute aukeraketa eta horretarako izen-ematea apirilaren 24an bukatuko da; Aretxabaletako Gazteria Zerbitzuan (udaletxean) edo Internet bidez: www.gipuzkoa.net/oporraldi.

Herri lagunkoia ote den Aretxabaleta hausnartuko dute erretiratuek

'Hiriak eta ingurune lagunkoia' izeneko berbaldia izango dute hilaren 26an Basotxon

M.A. | ARETXABALETA

2012a Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldi Arteko Solidaritatearen Europako Urtea da eta apirilaren 29a hori gogorarazteko eguna. Hori horrela, Basotxo erretiratuen elkarrekin zahartze aktiboaren gaineko hausnarketa bultzatu gura du eta Aretxabaleta herri lagunkoia den aztertu. *Hiriak eta ingurune lagunkoia* berbaldia antolatu du horretarako apirilaren 26rako, Izaskun Maria Ortiz Martinez adituak bideratuta.

Kontzeptuak ezagutu

"Herriak guztiek eta batez ere, guk, nagusiok, garapen pertsonalerako ahalik eta aukera

gehien izatea gura dugu. Eta horretarako herri lagunkoian bizitzea beharrezkoa da", diote Basotxoko kideek. Ildo horretatik zera galdetu gura dute: "Aretxabaleta lagunkoia da?". Horixe aztertuko dute datorren egunean: "Baina aurretik hainbat kontzeptu ezagutzea komeni zaigu", diote. Hain zuzen Kutzaren bitartez datorren Ortiz Martinez adituaren laguntza izango dute horretan; hark azalduko die: zer den zahartzaro aktiboa; herri eta ingurune lagunkoien ezaugarriak zehaztu; EAEko herri lagunkoia aurkeztu; eta Interneten horren gaineko argibideak topatzeko jarraibideak eman.

'Etorkizuna erraustuz' izeneko film emanaldia dago gaur Arkupen, Zero Zabor taldeak antolatuta

Debagoienean antolatutako Zero Zabor astearen barruan *Etorkizuna erraustuz* film emanaldia izango da gaur, Arkupen (18:00). Olaztin (Nafarroa) dagoen Portland enpresak errausteko asmoen berri eman ondoren egindako dokumentala da, eta horrek osasunean eta ingurumenean dituen eragina aztertzen da bertan.

Zero Zabor astearen barruan gurean egingo den azken ekitaldia da. Domekan, osteran, Villabona, Usurbil eta Hernanira joango dira zero zabor politikaren eragina ezagutzera.

Nafarroako erresuma gogoan

Nafarroako erresumaren 500. urteurrena gurean ere gogoan izango dute Nafarroa Bizirik egitasmo barruan. Bandera egongo da ikurrinaren alboan urte osoan, eta materiala saldu eta argibideak eman dituzte astean; halako gehiago ere egingo dituzte.



Bartzelonara doa 'Zast!' kontakizun musikatua

Hiru emanaldi egingo dituzte, baita katalanez ere; azkena, apirilaren 28an, Euskal Etxean da

M.A. | ARETXABALETA

Bartzelona aldera doa *Zast!* proiektuko kideak datorren astean. Bertan aurkeztuko dute helduendako kontakizun musikatua, apirilaren 26tik 28ra; azken egun horretan Bartzelonako Euskal Etxean izango dira.

Aurretik, baina, gaur hain zuzen, Arizmendi Ikastolako Almen gunean emanaldi berezia egingo dute gaztetxoendako; eta bihar, zapatua, azken hilabeteko berrikuntzak aurkeztuko dituzte Garesen (Nafarroa).

Lide Marrek, katalanez

Beñat Zamalloa aretxabaletarren eta Maialen Arratibel arrasatearraren burutazioak forma hartu zuen urtarrilean eta lehen ikuskizuna eskaini zuten orduan Aretxabaletan bertan: "Askotariko testuak daude, ipuinez gain, horregatik da kontakizun musikatuaren ikuskizuna", zioen Zamalloak orduan.

Orduetik hona indarra hartzen joan da proiektua, eta, hiru hilabete geroago, Bartzelonan aurkeztuko dute musikak eta hainbat

eratako testuek osatutako ikuskizuna. Hiru emanaldi egingo dituzte; horietako bi euskaraz eta katalanez izango dira -apirilaren 26an, ETSAB eta 27an, Casal de Joves de Gracia- eta azkena, Euskal Etxekoan -Literaldien barruan-, euskaraz bakarrik.

Zast! kontakizuneko lantaldea berritzen joan da; hona Bartzelonara joango direnak: Maialen Arratibel (gitarra eta ahotsa); Leire Elustondo (pianoa eta ahotsa); Iñaki Kortazar (perkusioa); Beñat Zamalloa (narratzailea); eta Eñaut Zubizarreta (txeloa). Katalanezko narrazioak Bartzelonan bizi den Lide Mar aretxabaletarrak egingo ditu.

Eta Bartzelonatik bueltan, maiatzaren 4an hain zuzen, Bergaran eskainiko dute emanaldia *Egubakoitzak kartzelan* zikloaren barruan.

Liburu eta disko truke azoka, irakurketa maratoia eta beste asko Literatura Astean

Herriko eragileek, tartean ikastetxeek, Udalarekin batera antolatu dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Astelehenean, apirilak 23, Liburuaren Nazioarteko Eguna dela gogoan Literatura Astea antolatu du Udalak herriko hainbat eragilerekin elkarlanean, tartean ikastetxeak, Loramendi elkarte eta euskaltegia. Kultura Sailak bere aldetik hainbat ekitaldi geratu ditu eta guztien artean egitarau mardula osatu dute.

Udalaren eta eragileen artean antolatutako ekimenen artean hiru daude: batetik, liburu truke azoka astelehenean egubakoitzera bitartean Durana kalean (16:00-20:00): liburu edo disko bat eroan eta beste bat hartzeko aukera izango da. Bestetik, irakurketa maratoia, astelehenean, hilak 23 Durana kaleko 11. atarte aurrean (18:00-19:30) -eguraldi txarrarekin plazako arkupetan-: uneoro irakurtzen egongo da norbait eta edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. Eta hirugarrena, *Atxabaltan be leidu* gomendioak: euskaltegiko kideek hainbat libururen gaineko gomendioak geratuko dituzte.

Kultura Sailak antolatuta

Kultura Saila, ostera, dagoeneko hasi da ekitaldiekin, eguaztenean



Neskatala liburu bati begira liburutegian. | M.A.

Jose Antonio Azpiazu idazle legazpiarrak emandako berbaldiarekin hain zuzen. Bihar, ostera, ipuin kontaketa saioa izango dute umeek liburutegian (11:30): Jakin kontalariak munduan zehar topatutako istorio eta kondairak ekarriko dizkie 4 urtetik gorako neska-mutikoei.

Eta apirilaren 28an, zapatua, Isasmendi abizenaren gainean Ramon Benavente Freixas kataluniarrak idatzitako *Goroetako Isasmendi baserria. Isasi Isasmenditarren jaiotetxea* liburua aurkeztu eta azalpenak emango ditu Arkupen (12:00).

'Funtsezkoa ikusezina'

Kurtzebarri eskolan ere hasi dira egiten Literatura Astea *Funtsezkoa ikusezina begientzat* leloarekin, eta atzo Miren Agur Meabe idazlearen bisita izan zuten. Ikasle nagusienek, ostera, *Printze Txikia* ipuina kontatuko diete txikienei eta ipuin kateatuak ere osatuko dituzte. Nagusienek, gainera, *bookcrossing* edo liburuak askatu ekimenean hartuko dute parte, hau da, liburuak irakurritakoan herriko txoko batean utzi beste batendako.

NIRE USTEZ



OIER ETXEBARRIA

Gu ere elefante hiltzaile

Spainiak erregearen azken abentura denon ahotan dabil egunotan. Ez dut horri buruz gehiago esango; horren ordez, beste ikuspuntu batetik begiratu eta munduko egoera nolakoa den kontutan izanda, beste batzuek gu nola ikusten gaituzten azaldu nahi dut.

Normalizat daukagun baina munduko pertsona askorentzat erakustaldi diren ekintza asko daude gure artean: beste askorentzat hain luxuzko produktua den edateko urarekin jolastu eta alperrik botatzen dugu; soberan dagoen jateko askok zakarrontzirako bidea hartzen du; markadun produktuak hobesten ditugu, oso antzerako edo berdinak diren marka bakoak baztertuz; apurtutako arropak konpondu beharrean, berriak erosten ditugu; 4-5 urteko kotxea saldu eta berria erostea gustatzen zaigu; behar ez dugun etxe garestirako bizitza osorako zorpetzen gara... Nola heldu gara honaino? Zerk bultzatu gaitu guzti hau hain onartua izatera?

Honen aurrean, lehenengo gure kontzientzia piztu beharrean gaudela uste dut eta behin hori lortuta, egoera aldrebes honetan, gu ere eraldatzaile izan gaitezkeela sinisten hasi behar dugu. Elefanteak hiltzen ibili beharrean, salba dezagun mundu hau!

Portzieto, gora Cristina eta bere adorea!! Bigarren portzieto: astearteetan 22:00etatik 22:30era argindarra itzaltzen hasita gaude batzuk, prezio igoeraren aurka protestan; animatzen zara?

"Astearteetan argindarra itzaltzen hasita gaude protestan"

OHARRAK

'EL EXOTICO HOTEL MARIGOLD' FILMA

Intocable filma iragarrita egon arren helduendako *El exótico Hotel Marigold* izango dute aste bukaeran. *Intocable* filmak izandako arrakastaren ondorioz momentuz ez dago kopiarik lortzeko aukerarik eta hortik etorri da aldaketa. Egubakoitz eta zapatuan (22:00); domekan (19:30); eta astelehenean (16:00) emango dute filma.

Umeek, ostera, *Los Muppets* izango dute bihar eta etzi (17:00).

PINTURAJAM IKASTAROA

Jaiki elkarteak antolatuta pintura jam saioa egingo dute bihar (16:00-19:30) Laia Bedos irakas-

learekin: marrazteko teknikak aztertuko dituzte gorputz espresioa eta jolasak erabilita. Prezioa, 15 euro. Argibideetarako eta izena emateko deitu 943 53 43 96 telefonora edo idatzi [jaiakiel-karte@yahoo.es](mailto:jaiakiel-karte@ yahoo.es) helbidera.

'DRIVE' FILMA EGUENEAN

Zine klubaren barruan *Drive* filma emango dute hilaren 26an (19:30) Arkupen. Sarrera, 4 euro.

BERTSO AFARIA LARRINON

Urteroko bertso afaria egingo dute Larrinoko San Kristobal elkartearen hilaren 28an. Imanol Lazkano eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolariak izango dituzte lagun.



ALFREDO MEABE

Astero sarituak Aretxarterekin

Astero dabil banatzen sariak bezeroen artean Aretxarte merkatarien elkarte. Aste Santu aurreko azkena Jose Cabellok jaso zuen, Leibar arrandegian 10:30ean erosketak egiteagatik, hain zuzen. Saria Leintz mertzeriako Rosik eman zion, 50 euroren balioa zuen hainbat produktuz betetako otarra.

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxe: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF
inprimategia

30 urte
baino gehiago
zure
zerbitzura

Ramon Ajuria | Aramaioko alkatea

"ABBren egoitza nagusia maiatzean inauguratuko dugu"

Aramaio Baserri Barri, AHTko lanak eta auzoetako premiak berbegai, beste hainbat gairen artean

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ramon Ajuria izan genuen martitzenean Goiena Telebistan, *Harira* saioan. Hainbat gairen gainean egin zuen berba eta, besteak beste, iragarri zuen maiatzean gertu egongo dela Aramaio Baserri Barri ekimenarendako egoitza nagusia, Mendiolako zentroa.

Nolakoak izan dira legealdi berriko lehen hamar hilabeteak?

Hasteko, aurreko udalbatzaren lana aipatu nahiko nuke. Sartu ginenean asko lagundu ziguten eta oraindik ere laguntzeko gertu daude. Ondo egindako lanari jarraipena ematen ari gara.

Politikan sekula egon gabeakoak ginen, ikasten gabiltza. Gure taldeko zinegotzi bat kanpoan dago eta Aramaio Alkartasuna alderdiko bi zinegotzirekin batera ari gara lanean. Legealdi hasieran udal gobernua alderdi guztiekin osatzea proposatu genuen baina EAJk ez zuen bat egin. Hala ere, EAJko Iñaki Nafarratek oposizio konstruktiboa egin behar zuela esan zigun eta horrela ari da izaten.

Lanean nahiko ondo ari gara- la esango nuke; harreman ona dugu herritarrekin.

Abiadura Handiko Trena egiteko lanek bereziki kaltetu duten herria da Aramaio. Nola daude lanak?

Adifek dio aurten amaituko dutela azpiegitura lanekin Gerora etorriko liriteke errailak, elektrizitatea eta bestelako lanak. Luze joko du.

Hala ere, ezin dugu ahaztu errepidea urtebete luzez itxita izan genuela eta horrek eragindako kalteen ordainak eskatuta daude Adif eta Espainiako Sustapen Ministerioan. Apirilaren 8rako eman behar zuten erantzuna, baina ezer ez. Eskakerekin aurrera egin dezaten agiri gehiago betetzea eskatzen ari dira; horren gainean ez dago ezer garbi.

Aurreko legealdian jaiotako Aramaio Baserri Barri ekimenarekin jarraitu duzue. Zein fasetan dago orain?

Hasiera fasea gaindituta, hazkunde fasean dago. ABB fundazio moduan eratuta dago eta Udalak hiru ordezkari ditu zuzendaritza taldean.

Gainera, ABBren egoitza nagusia izango den Mendiolako berrikuntza eta ikerketa zentroa hila-

bete barru, maiatzean, inauguratuko dugu. Lanak egun gutxi barru amaitzea espero da. Jaur-laritzako nekazaritza arloko arduraduna etortzeko da. Asmoa da lehen taldea, Aramaio Sagardogileen Elkarte, ekainean egoitza berriko ekoizten hastea. Egundeko bederatzi talde daude eta horietatik zazpi bertako produktuak ekoizten dituzte. Horrez gain, Aramailur kontsumo taldea dago eta baita AOBT ere, Aramaio ondarea berreskuratzea helburu duen taldea. Taldeen arteko harremana oso ona da. Orain talde bakoitzak ABB fundaziora zein ekarpen ekonomiko egin zehazten dihardute, izan ere, talde guztiek ez dute ibilbide bera eraman. ASE, esaterako, aspaldi hasi zen funtzionatzen.

Bestalde, beste herri batzuen artean piztutako erantzuna dela- eta harrিতa gaude. Asteburu

honetan bertan Oñatiko alkatea eta nekazaritza arloko bederatzi zinegotzi etorriko dira. ABBren oinarria parte hartzea da eta guk hori lehen sektoreari begira jarri dugu. Baina parte hartze horretan herri bakoitzak bere berezitasunak ditu, eta guk ere beste ereduak ezagutu gura ditugu.

Hiltegi zaharreko obrak atzeratu egin ziren. Amaituta dago guztiz?

Bai lanak amaituta daude eta eraikina erabiltzeko moduan dago. Beheko pisua Aramailur kontsumo taldearendako izango da printzipioz -hil honetan erabiltzen hasiko dira- eta komun publikoak ere bertan jarriko ditugu. Goiko pisuan, bestalde, udal artxiboa joango da. Beste erabilera batzuk emateko aukera ere egongo da.

Austriako enpresa batek Aramaio Biomasa sistema jartzeko herri aproposa zela adierazi zuen. Hala da?



Ramon Ajuria Aramaio alkatea Goiena Telebistako platoan, 'Harira' saioa hasi aurretik.

Bai. Energia biomasa deritzon sistemaren bidez lortzea gai oso garrantzitsua da guretako. Iaz gas fakturak izugarri hazi ziren eta energia berriztagarrien aldeko apustua egiteko beste urrats bat ematera animatu zuen aurreko udalbatza. Bi hitzetan, egurra erabiliz ur beroa lortzean datza eta hala energia etxeetara banatzea. Euskal Herrian kasu batzuk

badaude, baina eraikin publikoetara bideratuta. Guk herritarrei helaraztea gura dugu, Ibarra auzotik hasita. Esperientzia pilotua izango litzateke, beraz.

Inbertsio handia eskatzen duenez, Energiaren Euskal Erakundearen laguntza beharko genuke; proiektua aurkeztuta dago dagoeneko eta begi onez ikusten dutela esan digute. Ea aurrera doan...

Auzoek berebiziko garrantzia dute Aramaion. Nolako da Udalaren eta auzo alkateen arteko harremana?

Oso ona. Tarte hau aprobetxatu gura dut euren lana eskertzeko, zenbait gai eurekin batera bideratu ditugulako eta eman duten laguntza izugarria izan delako.

Udalak lehen tasuna eman die auzoei eta auzo alkateen eskaerak modu berezian jaso eta aztertzen ditugu. Hala, eskaeren artean premia-koena zein den aztertu eta auzolanaren bidez lan ezberdinak egiteko ohitura hartu dugu. Iaz Uribarri auzoan egin ziren auzolanak eta aurten Untzillan egingo dira.

Zeintzuk dira gaur egun auzoetako premia nagusiak, orokorrean?

Une honetan, hobi septikoak kentzea eta saneamendu orokorra egitea. Jaur-laritzako ur agentziako arduradunekin egon ginen eta ados daude gure proposamenarekin. Hala, lan horiek aprobetxatu gura ditugu behar den moduko bidegorria egiteko. Hau da, erreka ondotik urearen kanalizatorako obrak aprobetxatuko genituzke Arrasateko araztegitara urak ekarri eta Arrasateraino bidegorria osatzeko. Aukera oso polita ikusten dugu Arrasateraino oinez edo bizikletan joateko. Kasu honetan ere Diputazioak erabakiko du, Ingurumen Sailak.

OPOSIZIOAREN BALORAZIOA

Iñaki Nafarrate | EAJko bozeramailea

"Ez dago koordinaziorik, borondate ona egon arren"

"Udal gobernua orain arte eraman duen ibilbidearen gainean ezin daiteke balorazio onik egin. Nire ustez, lana koordinaziorik gabe egin da eta koordinazioa udaletxean zein beste edozein administrazioetan beharrezkoa da. Borondate ona egon arren, udal ordezkarien arteko koordinazio falta oso nabaria da. Lana ondo egin ez proiektu gehiago gauza daitezkeela uste dut, izan ere, egun dauden zinegotziak inoiz baino prestuago daude eta inoiz baino baliabide gehiago dituzte. Hala ere, horri guztiari ez zaio behar den moduko etekin ateratzen".

► ALKATEAREN ERANTZUNA

"Bere ikuspuntua errespetatzen dut baina ez nago ados. Udal gobernua talde bat moduan ari da lanean, talde lana da-eta gure lehen oinarria. Koordinazio falta dagoela? Izan daiteke, baina lan honetan berriak izatearen ondorio moduan ikusten dut. Eskerrak aurreko legealdiko taldearen laguntza izan dugula hasieratik. Gainera, ezin dugu ahaztu zinegotzi bat ere falta dela taldean, hamar hilabetetarako kanpora joan zelako. Esango nuke orokorrean zinegotzi guztiak oso lan ona egiten ari direla".

OPOSIZIOA ALKATEARI GALDEZKA

Etxaguen auzoko obrak izugarri atzeratu dira. Noiz hasiko dira lanak?

"Aurreko legealdian ez ziren lanak hasi beste arazo larriago batzuk egon zirelako. Obra handia da eta orain bultzada eman diogu lanak ahalik eta lasterren has daitezken. Joan den egubakoitzean sinatu genituen aktak eta astebete barru hasiko dira lanak. Zortzi hilabetez luzatuko direla aurreikusten dugu".

Muruko obra egiteko dirulaguntza galdu egin da ez delako ezer egin...

"Ez da utzikeria izan. Iaz, Aldundiaren foru-planeko 62 obra atzera bota ziren eta horietako bat izan zen Murukoa. Aurten eskatu behar dugu dirulaguntza datorren urtean hasteko; oso beharrezkoa da. Lan handia eskatzen du, batez ere saneamendu aldetik".

Aurreko legealditik lantzen ibili arren ez da Plan Orokorra egin. Noizko?

"Eusko Jaur-laritzak onartu du dagoeneko eta duela hilabete bidali genuen Aldundira. Euren erantzunaren zain gaude, bi hilabeteko epea dute. Diputazioan ez dugu ustekaberik espero, Jaur-laritzak arazo barik onartu zuen-eta".



I ENKO AZKARATE

"Bidea itxita egoteak eragindako kalte ordainen gainean ez dakigu ezer"

"Biomasa sistemak inbertsio handia eskatzen du baina ea aurrera doan..."

"Premiak auzoetan: hobi septikoak eta saneamendu orokorra egitea"

tu hori aurreikusita dago. **Nolako harremana duzue Aldundiarekin?**

Harremana ez da txarra. Baina hitz politikak izan arren gutxitan jasotzen ditugu erantzun eraginkorrak. Itxaropentsu gaude batez ere kultura, euskara eta kirol arloko arduradun den Itziar Lamarain arrasatearrarekin. Izan ere, musika eskola egiteko proposamena ondo ikusi du eta espero dugu legealdi honetan aurrera egingo duela. Era berean, baina, eskualde mailan diskriminatuta gaude. Zuiako koadrila osatzen duten sei herritatik bostetan Bildu dago alkatetzan eta beste koadrilak baino diru gutxiago jasotzen dugu.

Aramaio, Arabako langabe gutxien dituen herria. Bizi ditugun garaiondako albiste pozgarria, ezta?

Estatistikei begiratu gero %3ko langabezia tasa dugu Aramaion.

Oso kopuru baxua da baina kontuan hartu behar dugu aramaioar askok Arrasaten egiten dutela lan. Formakuntza aldetik lan handia egin da eta akaso hor egon daiteke gakoa.

Gai horrez arduratzen den teknikari bat eguazteno etortzen da udaletxera.

Lurgorri eguneko zentroak urtebete egin du. Pozik zaudete?

Oso pozik gaude. Aramaioko zazpi erabiltzaile ditu eta oso pozik gaude. Hainbat ekintza egiten dituzte eta adineko jendearendako oso leku garrantzitsua da.

Udal aurrekontuak aspaldi onartu zenituzten. Bi hitzetan, nolako aurrekontuak dira?

Bai, iazko azaroan onartu genituen. %26ko jaitsiera izan dute 2011ko aurrekontuarekin alderatuz. Fofel-ek, Udalaren diru iturri nagusiak, %15eko jaitsiera izan du aurten. Murrizketa aipagarriena Hirigintza arloan egin da. Bestalde, zergak ez igotzeko apustua egin dugu. Lehentasuna eman diogu aurreko legealdiko proiektuekin jarraitzeari.

Aramaion hondakinak atez ate biltzea aurreikusten duzue?

Oraindik ez dugu aztertu baina gure programan argi esan genuen erraustegien aurka gaudela eta ahalik eta gehien birziklatzea dela etorkizuna. Ondoko herrietako esperientzietan oinarrituko gara atez atekoa Aramaioarako ere aproposa den ikusteko.

Amaitzeko, noiz izango dugu aguzila Aramaion?

Ekainean irtengo da postua. Hamar hautagai daude eta, besteak beste, mezularitza lana, kontsumo ezberdinen kontaketa egitea eta obren kontrola eramatea izango dira bere lanak.



Uztaileko udalekuetarako izen-ematea zabalik dago

Uztailaren 4tik 17ra izango dira aurten, goizez

J.B. | ARAMAIO

Dena dago gertu Udalak uztaileko prestatu dituen udalekuetarako. Uztailaren 4tik 17ra izango dira, biak barne, eta 10:00etatik 13:00etara denetari-ko ekintzak egingo dituzte, Aramaion bertan. 3 eta 12 urte arteko haurrei zuzendutako udalekuak dira eta baserri auzoetan bizi diren haurrendako autobusa egongo da.

Udalekueetan parte hartu gura duten haurrek maiatzaren 25a baino lehen eman behar dute izena, udaletxean edo San Martin eskolan. Honako bi dokumentu hauek aurkeztu beharko dira izena ematerakoan: izen-emate orria beteta umearen datuekin eta Aramaioko Udalak, Euskadiko Kutxa edo Vital Kutxan duen kontu korrante zenbakian, haurren izenean

36 euroko ordainketa egin dela egiaztatzen duen agiria. Hau da, izen-ematearen prezioa 36 euroko da.

Begiraleak behar dira

Udalak jakinarazi du aurten ere begiraleak behar dituela. Interesatuak maiatzaren 25a baino lehen egin behar dute eskaera, honako telefono honetara arratsalde deituta: 945 44 53 74 (Ana Muñoa).

Begirale guztiek derrigorrezkoa den formazio berezia jasoko dute ekainaren 9an. Bestalde, baldintza bakarra da 17 urte baino gehiago izatea, baina baloratuko da begirale titulua edo Irakasle ikasketak izatea, EGA izatea, umeein esperientzia izatea eta aramaioarra izatea. 240 euroko soldata jasoko dute begirale guztiek.



Udalekueetan, askotariko ekintzak: San Fermin egunean, entzierroa. UDALA

HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

Gantzaga auzoan papera birziklatzeko edukiontzia falta da. Noiz jarriko dute?

"Galdera egin duen herritarrari arrazoi osoa eman behar diot. Izan ere, badakigu aspalditik falta dela papera birziklatzeko edukiontzia. Gai horren atzetik ibili gara eta eskaera egin genuen bere garaian Aldundian; horiek jartzearena Diputazioaren ardura da. Beraz, Gantzagan falta den edukiontzi urdina ere Aldundiak jarri beharko du, eta, horrela, auzotarrek edukiontzi guztiak izango dituzte erabiltzeko moduan. Uste dugu laster jarriko dutela, ea datorren hilerako den".

Kiroldegian kantxa bakarrik erabiltzen da. Gimnasio bat jar daiteke, adibidez?

"Ados nago Aramaion behar den moduko gimnasio bat jartzearekin. Beharra badagoela ardi dago, baina ez dago leku aproposik: orain, adibidez, udaletxeko osoko bilkuren aretoan pilatesa egiten da. Gimnasioa aurreikusten zuen proiektua bidalita dago Aldundira eta gai horren gainean egin dugu berba egun Diputazioko Kultura eta Kirol arloko arduradun Itziar Lamarainekin. Esan zigun halako proiektu handiek ez daudela ados; agintaldi honetan, behintzat, ez da egingo".

Ur depositu berria egitekoa zen, baina noizko egongo da erabilgarri?

"Goikoerrotako depositu zaharrak pitzadura askotxo ditu eta ura galtzen du. Aurreko agintaldian depositu berria jartzeko lursaila erosi zen eta Diputazioko teknikariekin egon ginenean ur deposituena euren dako lehentasuna zela esan ziguten. Hala ere, iaz Araba osoan bi depositu berri bakarrik egin zituzten. Beraz, Diputazioko erabakia da eta horren aurrean guk ezin dugu gauza handirik egin; behin eta berriz eskatzea besterik ez zaigu gelditzen. Udalaren aldetik egin dira urrats guztiak".

Azken urteetan izandako denden itxieraren aurrean zer egingo duzue?

"Krisiaren ondorioa izan daitekeela dirudi, baina azken bi denek jabeak erretiratu egin direlako itxi dituzte atekak. Belaunaldi berriek negozioarekin jarraitu ez dutelako itxi dute, hain zuzen. Hala ere, kontuan hartu behar da azken bi urteetan bi taberna berri zabaldu direla Aramaion, eta, beraz, ez dut uste krisiarekin zerikusi handirik duenik. Gai horrekin sentsibilizatuta gaude, eta, adibidez, denda berri bat zabaltzeko babesa eman diogu partikular bati".

Alaves ikusteko irteera antolatu du Zuiako koadrilak domekarako

Domekarako, hilak 22, Alaves eta Salamanca taldeen arteko partidua ikusteko irteera antolatu du Zuiako Koadrilak. Gaur 13:00ak arte eman daiteke izena, Koadrilaren kontu korrontean ordainketa eginda eta agiria udaletxean entregatuta. Aramaiotik 17:00etan pasatuko da autobusa. Argibide gehiagorako deitu udaletxera: 945 44 50 16.

'Limitaduraren errekonkista' bihar, Orixolen hasita

Aramaio eta Otxandio gazte asanbladek antolatuta, jai berezia egingo dute bihar. *Limitaduraren errekonkista* moduan bataiatu dute eta jolas ezbedinen bidez urtebeterako *limitadua* nori dagokion zehaztuko dute, sinbolikoki. Orixolen hasiko dira jolasekin eta gero Otxandiora jaitsiko dira jaiarekin jarraituz. Edonor dago gonbidatuta.



BLANCA MENDIALDUA

Alaiak-ekoak, gustura Cadizen

Alaiak erretiratu elkarteko 46 lagunek astebete egin zuten Cadiz aldean. Hainbat txoko eder bisitatu zituzten, giro ederrean. Datorren urtean ere beste bidaia bat egingo dutela adierazi dute.

ELGETA

Oxel Erostarbe 'Harira' saioan martitzenean

L.Z. | ELGETA

Goiena telebistako *Harira* saioan izango da Oxel Erostarbe martitzenean, hilak 24. Saioa 21:30ean hasiko da, eta zuzenean egingo dute.

Aralar auzia tarteko azken asteotan albiste izan da Erostarbe, eta gaiari buruz galde-tuko dio elkarrizketan Eneko Azkarate kazetariak. Horrekin batera eta Debagoieneko gainerako alkateekin egin den moduan, herriko gorabeherak izango dituzte aztergai ordubeteko iraupena izango duen saioan. Kazetariak hainbat galdera egingo dizkio alkateari, baina saioan, Elgetako Bilduren eta EAJren balorazioak eta kezkek ere jasoko dituzte.

Herritarrek galdezka

Herritarrek ere Erostarberi galderak egiteko aukera izango dute. Galderak zuzeneko saioan egiteko deitu 943 25 05 03 telefono zenbakira. Galdera aurrez egin nahi izanez gero, berriz, idatzi *harira@goiena.com* helbidera.

Eta sare sozialak aukeratzuz gero jo Twitter bidez #harira traola estekara edo @elgeta-goiena Twitter kontura.

Pedro Mari Uberak jarraituko du Xalbadorpeko presidente karguan

2012rako kultura hitzorduak, irteerak eta hitzaldiak iragarri dituzte elkartetik

LARRAIZ ZEBERIO | ELGETA

Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkarteak egin du urteko batzar orokorra, eta zuzendaritza batzordean aldaketa gutxi eman dira. Pedro Mari Uberak jarraituko du presidente karguan, eta Jose Manuel Sarasua da presidenteordea. Guadalupe Ibarbia idazkaria da, eta Luis Mari Arantzeta diruzaina. Gainerako batzordekideak dira Nati Arrieta, Irene Bolinaga, Begoña Ardantza, Karlos Fernandez eta Maria Asun Agirre. — azken biak berriak—. Zuzendaritza batzordea utzi egin du Fermín Iribarrek.

2012rako egitaraua

Ekintzaz beteriko egitaraua presatatu dute Xalbadorpe elkartearen datozen hilabeteetarako. Abendura bitartean bost irteera, bi hitzaldi —Kutxak babestuak—, eta hamaika kultura hitzordu antolatu dituzte. Besteak beste, gastronomia zein martxa neuruko txapelketetan parte hartzea, jaietako Herri Egunean esku bat botatzea, Mizpirualdeko bileretan parte hartzea edo podologia zerbitzua antolatzea.

Ekainean eta abenduan pila-tzen dira ekintza gehienak,



Zuzendaritza batzordeko kide batzuk. | L.Z.

herriko jaien eta Gabonen bueltan. Hurrengo ekintza irteera bat da.

Irteera Ordiziara

Maiatzaren 2an, eguaztena, egingo dute hurrengo txangoa erre-

tiratuek. Goizean Ordiziako azoka eta Miramon bisitatuko dituzte. Bazkaria, berriz, Aginagako sagardotegi batean egingo dute. Interesatuak apirilaren 25a baino lehen eman behar dute izena. Prezioa 24 euro da.

FRONTENIS TXAPELKETA

Bihar, zapatua, lau finalerdiak

Eguaztenean jokaturako partiduan erabaki zen txapelketa mistoko finalerdietarako laugarren bikotea nor izango den.

Hala, aste bukaera honetan mutilen txapelketako zein txapelketa mistoko bina finalerdiak jokatu dira. Bihar goizean bi partidu jokatu dira, eta arratsaldean beste bi.

AURREKO ASTE BUKAERAKO EMAITZAK

Idoia Serna-Asier Osoro / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga	25-15
Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo	25-15
Iune Dosuna-Xanti Dosuna / Maite Mandaluniz-Jabier Larrañaga	25-24

FINALERDIAK ZAPATUAN, HILAK 21, 10:00ETAN

Idoia Elkoro-Enrike Elkoro / Iune Dosuna-Xanti Dosuna
Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Mikel Beretxinaga-Odei Zenitagoia

FINALERDIAK ZAPATUAN, HILAK 21, 18:00ETAN

Andoni Elortza-Eneko Maguregi / Iban Retolaza-Xabier Ubera
Rebeka Ubera-Mikel Arkarazo / Idoia Serna-Asier Osoro



Bota dute Patronatuaren eraikina

Hutsune handia geratu da Domingo Iturbe patronatuaren eraikina zegoen tokian. Goitu enpresako beharginak asko aurreratu dute Pazko Astearen eraikina botatzeko lanak ia amaituta daude. Langileek, orain, ingurua garbitzeko lanetan dihardute, eta Udala frontoi estalia egokitzeko eta goiko aldean parkea egiteko lanak esleitzeko tramiteetan dabil.

Gaur fadoa Espaloian eta bihar rock kontzertua gaztetxean

Gaur, barikua, 22:30ean hasiko du emanaldia Sorraluzeko Ventos de Saudade fado taldeak. Lau fadolari euskaldun horiek portugesez kantatzen dute. Sarrera zazpi euro da; bazkideendako bost euro.

Eta bihar, zapatua, Burdinakia, Strikers eta The Fridays Crew taldeak izango dira gaztetxean 22:30etik aurrera. Sarrera bost euro da.

Afaría egingo dute aurten Ozkarbi elkarteko bazkideek

Maiatzaren 5erako, zapatua, iragarri dute Ozkarbi Eguna. Bazkideek egun horretan egin ohi duten bazkaria afari bihurtu dute aurten. Afaria 21:30ean izango da; aurrez txikiteoa egongo da trikitalariez lagunduta, eta afal ostein, berriz, dantzaldia. Interesatuak lehenbailehen eman behar dute izena elkarteko postontzian edo ozkarbi.elkartea@gmail.com helbidera idatziz.

Domekan Intxortako frontearen omenezko ekitaldia Asentzión

Intxorta 75 urte delako ekitaldia egingo dute domekan, hilak 22, Intxortako Atean. Elgetako frontea jausi izanaren 75. urteurrena ekarri nahi dute gogora ekitaldi horrekin Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultur elkarteak.

Ekitaldia 12:00etan hasiko da Intxortako Atean. Jarraian, bazkaria antolatu dute Espaloian.

Kantsatzeke mendi taldearekin Gorbeia aldera domekan

Kantsatzeke mendi taldeak mendi irteera antolatu du domekarako. Taldea 08:00etan abiatuko da Herriko plazatik eta ibilaldia Areatzako Pagomakurren hasi eta amaituko da. Gaur, barikua, da izena emateko azken eguna *kantsatzeke@gmail.com* helbidean. Prezioa 10 euro da.

Aperriboy, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

LEINTZ GATZAGA

Sukaldaritza energetikoaren gaineko ikastaroa datorren astean

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Sukaldaritza energetikoa zer den ezagutzeko aukera izango dute gatzagarrek Gurel guraso elkartearen eskutik. Aditu baten eskutik saio bi egingo dituzte (18:00-20:30): martitzenean, hilak 24, teoria ezagutzak eta eguenean, hilak 26, praktikak sukaldean. Izena emateko epea gaur buka-

tuko da eta Labidea dendara jo behar dute interesatuak; prezioa, 5 euro da.

Gorputzaren beharrei egokitu

Jakien energia gorputzaren beharretara egokitzen duen sukaldaritza mota da energetikoa. Sukaldaritza makrobiotikoaren oinarri batzuk hartzen ditu eta ez du

produkturik baztertzen, naturalak eta biologikoak badira behintzat. Horren guztiaren nondik norakoak azalduko dituzte Toki Eder elkartearen eta bertako sukaldaria erabiliko dute ikasitakoak praktikan jartzeko.

Loreen Eguna hilaren 28an

Bestalde, Loreen Eguna apirileko azken zapatuan egitea erabaki du Gurelek, baina eguraldiak laguntzen ez badu atzeratu egingo dute. Loreak landatu eta herriko txokoak txukunduko dituzte orduan.

Mundumira gertatzeko batzordeen bilera dago gaur

Maiatzaren 18tik 20ra bitartean ospatuko den Mundumira jaialdia gertatzeko herrian sortu dituzten batzordeek bilera egingo dute gaur, egubakoitza (19:00), udaletxean. Hilabete geratzen da munduko kulturen jaialdirako, eta zirkulazioa, txosna eta gainerako kontu guztiak lotzen hasiko dira.

NAZIOARTEKO VIII. MAGIA MOSTRA

2012, MAIATZAK 4 - 5 eta 6
ELGETAKO ESPALOA KAFE ANTZOKIAN

4 - BARIKUA 22:30 MAGIA SAIOA
Prezioa: 15 €

MagoMigue
'AluCine' ikuskizun berriarekin



**Munduko
Magia saria**

. Kartomagiako munduko txapelduna
. Publikoaren saria
Elgetako 2006ko Magia Mostran

5 - ZAPATUA 22:30 MAGIA GALA
Prezioa: 18 €

P-Cubique
'Cubic Act'
- Ilusio handiak -

**Lehen saria
Europako magia
txapelketan**

. Lehen saria
Frantziako magia
txapelketan



Enric Magoo
'Frankie J.B.' ikuskizuna
- Magia komikoa -

Mandrakes d'Or saria

. Zilarrezko barita Montecarlon
. Magia komikoaren saria
Lausanne hiriko jaialdian



Charlie Mag
'Gala ikuskizuna'
- Magia usoekin -

**Lehen saria mundu
mailako mago gazteen
txapelketan**

. Lehen saria Suitzan



Silvana
- Antzerki magia -

**Lehen saria
Alemaniako Street
Magic Festival
jaialdian**

. Originaltasunaren
saria Blackpool-eko
jaialdian.



6 - DOMEKA

13:00 MAGIA KALEAN - Doan

. Brando eta Silvana. 'Circus'.
. Enric Magoo.



Sarrerak dagoeneko salgai. Bazkideendako bi ikuskizunetarako sarrerak: 23 € - www.espaloa.com - Tel.: 943 78 90 85

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



Elgetako
Udala



LAGUNTZAILEAK



MENDI LASTERKETA

Ibarrekoak dira Aloñako Igoeran parte hartuko dutenen ia erdiak

220 korrikalari abiatuko dira domekan; Jazinto Lizarralde omenduko dute

XABIER URTZELAI | OÑATI

Aloñako Igoerak zortzi urte beteko ditu domekan (10:30, plazan) eta hasieratik gertatu moduan, kanpoko korrikalariak bai, baina etxeakoak motibatzen ditu gehien. Urtero moduan ibarreko atleta mordoa izango da domekan Aloñako maldetan gora, eta iazko parte-hartzearekin alderatuta (240 iritsi ziren helmugara) kopurua apur bat jaitsi bada ere, antolatzailerak Xanti Mendiola azpimarratu du atleten mailak gora egingo duela.

Hori bai, lasterketa irabazteko faboritua azken hiru urteotan Aloñan jaun eta jabe izan den Walter Becerra da; hark du errekorra 2009az geroztik (1:12:55). Baina kontrario gogorak izango ditu ondoan, besteak beste Ionut Zinca, Aitor Osa edota Agusti Roc. Emakumezkoetan, berriz, iaz Ana Condek errekor berria ezarri zuen (1:27:37), baina aurten ez da proban egongo. Haren ordean, Azara Garcia izango da faboritotako bat.

Omenaldia, Jazinto Lizarralderi
Antolatzailerak domekako lasterketa aprobetxatuko dute Jazinto

ESANAK

"Hegan egiteko haize egokia egongo da... ea aterri dagoen"

IÑIGO DIAZ | AMILLENNA



Iazko edizioan, Walter Becerra Urriagandik pasatzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Lizarralde omentzeko. Oñatiarrak makina bat mendi zeharkaldi egin ditu; gazteagotan egun berean hainbatetan joaten zen Aizkorri-ra (5 aldiz jarraian joandakoa da, tontorrean esne botilak gordeta izaten zituen, indarrak hartzeko) eta ultratrail probak zer ziren ere ez genekigunean Lizarraldek distantzia luzeak egiten zituen mendian. Hala, 1981ean 140 kilometro egin zituen 37 orduetan (Gorbea, Anboto, Udaltx, Aizkorri, Ganbo eta Txindoki).

Parapentea, bigarren urtez
Iaz moduan, aurten ere korrikalariarekin batera parapente proba

X-Pyr proba prestatzeko aitzakiarekin, Aloñara

Domekan 16 lagunek hartuko dute esku Aloñako parapente lasterketan, eta horietako asko Pirinioetan egingo duten X-Pyr lasterketa prestatzeko aitzakiaz datoz: "Alpeetan egiten den X-Alps lasterketa oinarri hartuta sortu den proba da, Pirinioetan". Abuztuaren 5ean hasiko dute iraupeneko lasterketa hori, eta parte-hartzaileek, oinarriko ekipazioaz, 12 egun izango dituzte Pirinioak zeharkatzeko, Larrun mendian hasi, eta Port de la Selvaraino, Gironan. Eta aurreratu moduan, Oñatikoa hitzordu aproposa da lasterketa gogor hori entrenatzeko.



Amillena taldeko kide bat, hegan. | X.U.

ERRUGBIA

Iker Elortzak domekan jokatu du Espainiako Kopako finala, Palentzian

Ampo Ordiziak El Salvador izango du aurrean, 13:00etan

X.U. | ARRASATE

Ampo Ordizia otsailean sailkatu zen Espainiako Errege Kopako finalerako, eta iritsi da finala jokatzeko ordua. Sailkatu berri-tan Iker Elortzak *Harmailatik* saioan adierazi zuen Ordiziako zale asko espero zituela finalean Palentziako zelaian, baina aurreikuspen guztiak txiki geratu dira: "Klubak aurreikuspenen 1.500 lagun inguru joango zirela, baina, dakigunaren arabera, 2.500 lagun inguru joango dira, ez Ordiziatik bakarrik, baita Euskal Herriko beste errugbizale asko ere bai".



Iker Elortza, aste barruan, Arrasaten. | X.U.

Hala, Arrasatekoak onartu digu aste barruan ez dela urduri egon, baina Palentziara iristearrekin batera hasiko dela nerbioak igartzeko: "Ligan El Salvadorren kontra jokatu ditugun bi partiduetan irabazi egin ditugu, baina final batean edozer gerta daiteke. Dena dela, dakigun moduan jokatzeko badugu, Kopa irabazteko aukera handiak izango ditugu".

Kopan bakarrik ez, ligan ere denboraldi oso ona egiten dabil Ampo Ordizia, joan den asteburuan Urbietan Gernikari irabazi ostean ligako finalerdietarako sailkatu dira-eta: "Taldea ondo dago, eta denboraldi amaiera honetan ditugun partiduetan garrantzitsu hauetan emaitza onak lortzeko asmoz. Izan ere, bigarren sailkatzen diren horiez ez da inor akordatzeko, finalak irabazi egin behar dira".

MENDIKO LASTERKETA

Ekainaren 9an egingo dute Gabez Takarraren proba

X.U. | ESKORRIATZA

Iaz egin zuten Eskorriatza Gabez Takarraren mendiko lasterketa lehenengo edizioak 70 korrikalari batu zituen. Modu apalean egin nahi izan zuten lehen lasterketa hura, baina harrera polita izan zuen, eta aurten antolatzailerak beste pauso bat eman nahi dute, bigarren edizioarekin.

Hala, antolatzailerak dagoneko adierazi dute ekainaren 9an egingo dutela lasterketa hori, eta aurtengo hitzorduan 200 korrikalari batu nahi dituzte. Maiatzean aurkeztuko dute lasterketa.

egingo dute. Iaz zapore gazi-gozoz geratu ziren Amillena antolatzailerak, haize zakarraren eraginez ezin izan zutelako salto egin, eta aurten ere eguraldi iragarpenak ez dira onak: "Domekarako haize egokia egongo dela aurreikuspenen dugu, iparretik joko du, nahiko suabe, baina euria egiten badu ezin izango dugu salto egin", adierazi digu Iñigo Diazek. Hala, haizeak 25 kilometro ordutik gorako indarra badu egingo dute salto egin: "Iaz 70-80 kilometro ordutik haize ufadak izan genituen, eta hori pasada bat da. Hala ere, arratsaldean bi lagunek salto egin zuten, baina akrobaziako parapente bereziekin".

Hala, domekarako euri iragarpena badago ere, uneren baten atertu egiten badu salto egiteko aprobetxatuko dute: "Aterri dagonean salto egiten badugu ez dago arazorik, airean gaudenean euria hasten bada behera jaisteko denbora izaten dugulako. Izan ere, euriak ere denbora behar izaten du lurrera iristeko".

Parte-hartze kopurua iaiztik hona jaitsi egin da, baina oso jende ona etorriko da: "Iaz 34 lagunek eman zuten izena, baina asko ez zeuden halako lasterketan ibiltzera ohituta. Halakoe-tan dabilzanek 8-10 kiloko ekipazioa izaten dute, baina asko parapente normala soinean hartuta igo eta jaitsi ziren, 18 kiloko motxilarekin. Eta, errepeaso polita hartu zuten [Barre]".

GIMNASIA ERRITMIKOA

Gimnasia erritmikoko eskola arteko B mailako txapelketa egingo dute bihar Labegaraietan

Debagoieneko gimnastak, Bergarako eta Antzuolako Ariznoakoak eta Arrasateko Dragoikoak, lehian ibiliko dira zapatuan Labegaraietan. Eskola arteko B mailako txapelketa egongo da jokoan (10:00etan hasita), eta arratsaldean benjamin mailako gimnasia topaketa egiteko aprobeztatuko dute hitzordu hori. Arratsaldeko saioa 16:45ean hasiko dute.

SASKIBALOA

Kategoriari eusteko borrokan Soraluze BKEk partidu garrantzitsua jokatuko du gaur, etxean

Gipuzkoako Txapelketara igo berri, Soraluze BKEri bi jardunaldi geratzen zaizkio kategoriari eutsi ahal izateko. Hala, gaur, egunakoitza, Labegaraietan jokatuko duten partidua garrantzitsua izango da, eta klubetik deialdia egin dute, zaleak taldea animatzen joan daitezten. Taker Orbelaa izango da gaurko kontrarioa, eta 20:00etan hasiko dute partidua.

DUATLOIA

Beñat Arnaitz da Nafarroako duatloi txapelduna, Eguesko lasterketa irabazi ostean

Beñat Arnaitzek bikain aprobeztatu du Aste Santuko oporraldia, asteburuan Eguesen egindako duatloi lasterketa irabazi zuen-eta. Ez zen giro izan lasterketan, euria eta hotza, baina aretxabaletarra ondo ohituta dago baldintza horietan korritzen. Garaipen horrekin Nafarroako txapeldun ere izendatu dute, Lagunak Salto-ki taldean korrituta Nafarroan dagoelako federatuta.

TXIRRINDULARITZA

Jokin Etxabe selekzioarekin lehiatuko da asteburuan, Aian egingo duten Gipuzkoako Klasikoan

Gaspe mailan egutegian dagoen hitzordu garrantzitsuenetako bat izango dute asteburuan, Gipuzkoako Klasikoan. Aurtengo edizioa Aian egingo dute, eta bertan izango dira, Euskal Herriko talde gehienek batera, kanpoko asko. Sumofic-Igartua taldeak ez du hitzordura kale egingo, baina Jokin Etxabe faltako du, Bergarako Euskal selekzioaz korritzeko aukeratu dutelako.



Hondarribiaren kontrako lehia. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

Aloñak Trintxerpe hartuko du; Mondra liderraren etxera doa

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Ohorezko erregionalean geratzen diren sei jardunaldietan Aretxabaletak eta Mondrak merezi dute arreta gehien, motibo ezberdinegatik.

Aloña Mendik (36) eta Bergarak (41) geratzen diren partiduetan ez dute askorik jokoan. Matematikoki Oñatiko taldeak oraindik ez ditu nahikoa puntu, baina Oñati aldean ez dugu uste inor urduri ibiliko denik. Hala ere, oraingi asteburuan saikapean ondo-ondoan dagoen Trintxerperi irabazita eskuratuko lukete

erabateko lasaitasuna (domeka, 16:30). Hori bakarrik ez, ahalik eta ondoen amaitu nahi dute denek. Bergarak ere asmo horrekin jokatuko du Ondarroan, eta Aretxabaletak lehia polita izango du Real Unionen kontra.

Mondra liderraren etxera

Mondrak beste motibo batzuenatik merezi du arreta eskaintzea. Hondarribiaren kontrako garaipenaren ostean, asteburuan bizi irten nahi dute Anaitasunaren zelaitik (zapatua, 16:30); posible dela sinistuta daude.

ERRUGBIA

Ekainaren 2ko txapelketa serio prestatuko du ARTk

X.U. | ARRASATE

Ekainaren 2an egingo du Arrasate Kanpanzar Errugbi Taldeak aurtengo nazioarteko zazpina-ko txapelketa, eta hitzordua ondo prestatzeko asmotan, Elorriok, Durangok eta Arrasatek hiru torneo jokatuko dute, lagunartekoa. Kontua da liga amaitzen dutenetik ekaineko torneo bitartean gorputzaldi onari eustea, hila-bete geldi egon barik.

Hala, lehenengo hitzordua asteburuan jokatuko dute, Mojategin. Bihar, 17:00etan elkartuko dira Elorrio, Durango eta Arrasate Mojategin. Hurrengo hitzordua maiatzaren 5ean izango da, Durangon.



Beñat, jokoan. | J.A.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



23.900€-tik aurrera

> FORD Kuga
2012 | Diesela | 0 Km

Araba etorbidea, z/g ARRASATE
943790744 • www.mugarri.es

• Ford Focus 2012 Diesela KM 0	18.500 €
• Ford Focus 2012 Diesela KM 0	17.500 €
• Ford Focus 2012 Diesela KM 0	19.200 €
• Ford Transit 2012 Diesela KM 0	21.700 €
• Ford Fiesta 2012 Diesela KM 0	10.500 €
• BMW 120 2004 Diesela	10.800 €
• Ford Fiesta TDCI 70 2008 Diesela	7.300 €
• Ford Fiesta 1.3i 70 2008 Gasolina	6.300 €
• Ford Focus TDCI 110 2011 Diesela	12.800 €



15.000 €

> Renault Espace 150 DCI
2007 | Diesela | Granatea | 108.000 km

San andres auzoa 8
ARRASATE • 943 71 24 72

MERKEALDIAK

• Renault Megane II 85 Dci 2006 Diesela Beltza 60.000 km	6.000 €
• Renault Laguna III 150 Dci 2007 Diesela Beltza 80.000 km	12.000 €
• Renault Clio Gran Tour 75 zp 2011 Gasolina Grisa 11.300 km	10.500 €
• Renault Fluence 105 Dci 2009 Diesela Granatea 15.000 km	15.000 €
• Renault Kangoo 70 Dci 2012 Diesela Txuria 0 km	12.550 €
• Renault 6 Modus 75 zp 2011 Gasolina Beltza 6.600 km	9.550 €
• Renault Twingo 75 zp 2011 Gasolina Beltza 0 km	9.000 €
• Renault Wind 100 zp 2010 Gasolina Urdina 0 km	13.000 €
• Renault Megane Coupe 130 Dci 2009 Diesela Beltza 15.000 km	15.000 €



16.950 €

> Citroen C5 2.0HDI Business
2010 | Diesela | Gris argia | 36.000 km

Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

San andres auzoa 5
ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen DS3 eHdi Special Edition II 90 2012 Diesela Txuria/Beltza 525 km	17.250 €
• Citroen Berlingo Com. 1.6HDI 90 SXMult 2011 Diesela Gris argia 12.991 km	13.700 €
• Citroen C3 1.4HDI Attraction 2011 Diesela Gris argia 15.500 km	10.300 €
• Citroen C4 1.6HDI Cool 110 FAP 2010 Diesela Beltza 47.634 km	10.700 €
• Citroen C4 G.Picasso 1.6HDI Seduction CMP 110 2011 Diesela Morea 28.500 km	17.200 €
• Citroen DS4 1.6e-HDI Design STT 110 2011 Diesela Urdin iluna 2.000 km	20.900 €
• Ford Focus 1.8 TDCI Trend 100 2004 Diesela Gris argia 184.900 km	3.900 €
• Hyundai Trajet 2.0CRDi 2005 Diesela Urdin argia 95.400 km	7.300 €
• Citroen Xsa. Picasso 2.0 HDi SX 90 2003 Diesela Gris argia 118.790 km	4.300 €

KULTURA



Antzuolako dantzariak udaletxe aurrean, herriko plazan, zinta-dantzaren erakustaldia egiten. | OINARIN DANTZA TALDEA

Aramaiokoak, lehen aldiz

Aurten, lehenengoz, Aramaioko Lagun Artea dantza taldearen saioaz gozatzeko aukera izango da. Izan ere, Aramaioko dantzariak ez dute inoiz Debagoieneko Dantzari Egunean parte hartu eta dantza erakustaldirik egin.

Hala, askotariko dantzak izango direla ikusgai aurreratu digute antolatzaileek: Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoak; Euskal Herri osoko, era guztietako dantzak izango direla Antzuolako kaleetan barrena azaldu digute Oinarineko kideek.

Dantza bizirik dagoela erakutsi gura du Antzuolak

200 dantzari eta txistulari inguruk herriko kaleak kolorez eta alaitasunez jantziko dituzte zapatuan, goizean goiz hasita

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Askorendako, urteroko kultura hitzordua bilakatu da Debagoieneko Dantzari Eguna. Aurten, Antzuolara eramango dute bailarako dantzariak ospakizuna.

Orain dela lau urte jaso zuen Antzuolako herriak Debagoieneko Dantzari Eguna azkenekoz. Urtero bezala, dantza talde ezberdinak batu eta bakoitzak bere dantza berezia egingo dutela kontatu digute ilusioz, Oinarin dantza taldeko Jon Lizarazuk eta Gorka Garitanok. Hala, antolatzaileak eta anfitrioiak dira antzuolarrak aurten. Etxeko lanak egin dituz-

tela eta zapaturako dena prest dutela esan digute. "Bazkaltzeko 200 lagunendako lekua prestatu behar izan dugu; eta kalejira egiteko zein kale eta ibilbide egingo dituzten dantzariak erabaki. Ardu eta lana da, baina gustura hartu duguna", kontatu digu Jon Lizarazuk. "Urte askoan dantza egin dut, txikitatik. Orain irakatsi ere egiten dut. Herriko plazan dantza egitea ohorea da, urduritasun puntu batekin, baina, betiere, gustura. Jai giro polita izaten da, lagunaren artean ondo pasatzeko eta kirol pixka bat egiteko. Jende berria ezagutzen da, hasi

berriak direnak, eta aspaldiko lagunak ikusteko aukera bat ere bada", gaineratu digu.

Dantza bizirik

"Orain dela hamabost urte sortu genuen Dantzari Eguna Debagoieneko dantza taldeek. Asmoa bailarari dantza bizirik dagoela erakustea eta dantza taldeei kanpora irteteko aukera ematea zen, dantza gure kulturaren zatia da-eta", azaldu digu Garitanok. Aurtengo Dantzari Egunean bost dantza talderen lana ikusteko aukera izango da. Hala, Arrasatek bi talde etorriko dira, Oña-



Lizarazu eta Garitano. | MIREN ARREGI

titik bat, Antzuolatik bat eta aurten, lehenengoz, Aramaioko dantza taldearen saioa ikusteko aukera izango da. Izan ere, orain arte, Aramaiok ez du inoiz Debagoieneko Dantzari Egunean dantza saiorik egin. Garitano dantzari antzuolarrak azaldu digu talde bakoitzak bere dantza berezia, herrikoa, eskainiko duela eta horren ondoren, guztiek elkarrekin dantza egingo dutela.

Egun osoko egitaraua

Talde guztiak batuko dira 10:30ean eta kalejira egingo dute herriko kaleetan barrena 12:00 aldera. 12:30ean goizeko saioari hasiera emango zaio talde bakoitzak bere dantza erakustaldia eginda. Askotariko dantzekin gozatzeko aukera: ikurrin-dantza, bunako, makil-dantza, txankarranko, arin-arina, fandangoa, agurra, esku-dantza, suelta, mistoa... Eguerdian bazkaria egingo dute, eskolako patioan. Arratsaldean bigarren saioari ekingo diote, eta, besteak beste, ondorengo dantzak izango dira: ezpata-dantza, brokel-dantza, makil-dantza eta uztai-dantza. Ikusteko moduko dantzak izango direla azpimarratu dute eta debagoienearrei Antzuolara joateko dei egin gura diete.

ARRASATEKO BASERRIKO
PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2012
apirilak 21

maiatzak 19
ekainak 16
uztailak 21
irailak 15
urriak 20
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
Engleku eta Garapen
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta
merkatariek konfiantza,
herbilatasuna eta kalitatea
eskaintzen dizkizute.



Inprobisazio tailerren zikloa Aretxabaletan, sormena lantzeko

Bihar, zapatua, egingo dute lehenengo saioa; gainerakoetan zabalik dago izena emateko epea

USOA AGIRRE | ARRASATE

Bat-bateko edo inprobisazioaren munduan lehen pausuak emateko asmoarekin antolatu du Aretxabaletako Jaiki elkarteak Jam Plin Plan! izeneko tailer zikloa. Lau tailer egingo dituzte –zapatuan lehenengoa– eta saio bakoitzean arlo ezberdin bat landuko dute: pintura, dantza, antzerkia eta musika. Antolatzaileen arabera, tailerren helburua da "jolas-tea, artea eta sormenaren bitartez talde partaidetza bultzatzea, garapen pertsonala zein taldeakoa, barruan daukagun haurra ateratzea eta, azken finean, inguru hauetan diziplina askotariko inprobisazio edo jam saioak egiteko pertsona taldea sortzea". Tailer zikloa bukatutakoan arlo ezberdinetako partaideak elkar-tu eta jam saioak adostea da Jaiki elkartearen asmoa: "Hilean behin hitzordua egin eta, dinamizatzailerik gabe, diziplina anitzeko bat-bateko sorkuntzari ekin nahi diogu".

Zapatuetan

Zapatu arratsaldeetan, 16:00-19:30 bitartean izango dira saioak. Lehenengoa, pintura jam saioa, bihar izango da Aretxabaletako kuartel zaharrean, Laia Bedósen eskutik. Izen-ematea itxita dago, baina gainontzekoetan izena eman daiteke. Saio bakoitzak 15 euroko kostua du.

Bigarren saioa maiatzaren 5ean egingo da: dantzaren inguruko inprobisazio saioa izango da Carla Fernandezek eskutik. Hirugarrena, maiatzaren 12an egingo da: Iurgi Etxebarriarekin bat-bateko antzerkia egiten ari-tuko dira. Azken saioa, berriz, musikaren gainekoa izango da, ekainaren 2an: Aitor Zenarrutza-beitiak partitura zurian dagoe-la musikaririk hunkigarriena sortzen lagunduko du. Azken hiru saiook Arkupeko dantza lokalean izango dira. Izena emateko deitu 943 53 43 96 telefonora edo idatzi jaikielkartea@yahoo.es helbidera.



Radio Moscow taldeko kideak. | GOIENA

Radio Moscow taldearen blues-rock doinuak Oñatiko gaztelekuan

U.A. | ARRASATE

Gaztemaniak musika zikloaren barruan, Radio Moscow talde estatubatuarra Oñatiko gaztelekuan ariko da zuzenean gaur, egubakoitza. Iowan sortu zuten taldea hiru nerabek eta dagoeneko hiru disko egin dituzte: *Radio Moscow* debutekoa, *Brian Cycles* eta kritikiko askorendako taldearen onena den *The Great Escape of Leslie Magnafuzz*. Rock psikodelikotik hasi eta 70eko hamarkadako talde handien blues estilora doazen abestiak dituzte. Jimi Hendrix Experience, Cream, Mountain eta MC5 taldeen konposizioen esentzia maisuki harrapatzen dutela diote musika aditu batzuk eta blues-rock berria

gustuko dutenen erreferentziatzeko talde bihurtu direla denbora gutxian.

Kalmanleon, gonbidatu

Estatubatuarraren aurretik joko du Oñatiko Kalmanleon taldeak. Potemkin eta Show Business taldeetako kideek sortutako proiektu berria da, stoner estiloan kokatzen dena. Oraindik ez dute ezer grabatu, baina beraien dozena erdi abesti eskainiko dituzte gaurko kontzertuan, estilo bertsuko beste talderen baten bertsioekin.

20:00etan hasiko da kontzertua eta sarrera 7 euro kostako da. Sarrerak aurrez eros daitezke www.kulturalive.com helbidean.

BH Klip lehiaketako sari-banaketa gaur Amaian

U.A. | ARRASATE

Arizmendi Ikastolak Goienaren kolaborazioarekin batera antolatu duen BH Klip bideo lehiaketako aurtengo saridunak gaur, barikua, jakinaraziko dituzte batxilergoko ikasleen moda desfilean, 18:30ean, Arrasateko Amaia antzokian.

Debagoieneko ikasle guztiek parte har zezaketen lehiaketan, eta, guztira, 37 bideo-lan aurkeztu dituzte, denak ere bi minutu ingurukoak. Bideoa egiteko orduan aintzat hartu behar izan duten gaia izan da *Bailara gaztea*, eta erabili beharreko objektua bizikleta izan da. Gaurko ekitaldian hiru sari banatuko dituzte: epaimahaiaren sariak (bideo-kamera bana) DBHko lan onenari eta batxilergoko lan onenari; eta ikuslearen saria. Horretarako, lehiaketaren blogean eman ahal izan dute ikusleek botoa: goiena.net/blogak/bhklip. Epaimahaiak kontuan hartu ditu originaltasuna, teknikoki duen egokitasuna, bizikletaren erabilera eta musika.



ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABALETA



ETXE MOBEL
ALTZARIAR
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABALETA
FAGOR
banatzaile ofiziala



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABALETA
expert
banatzaile ofiziala

Arkauz zure etxea da.

GRUPO ARKAUZ
ARETXABALETA 1950-2012 ARRASATE

60 urte baino gehiago

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK **BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK **AIERDI AHOLKULARITZA**

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK **BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK **JESUS LASKURAIN PEREZ**

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK **URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK **JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Mobil homea Iratzen. Nafarroako kanpinik onenean. 45 metro koadro ingurukoa. 6-8 pertsonarendako. Bikotearendako logela bat eta bi oheko bi logela. Jangela-egongela eta sukalde hornitua. Portxea eta lorategia. 686 77 04 97 edo jm.urratxi@hotmail.com

Oñati. Etxebizitza salgai Errekalden 31n. Hiru logela, komuna, sukalde hornitua, egongela, balkoia garbiketa gunearekin. 80 metro koadro eta 7,20 metroko ganbararekin. Oso argitsua da. 184.100 eurotan tasatua dago eta prezioa adosteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 653 73 08 03

Saint Lary. Estudioa salgai, Frantziako Pirinioetan. Pistetan bertan. Guztiz jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 664 12 22 11

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxebizitza ematen da errentan Erguinen. Osorik edo logelaka. Deitu 650 02 79 29 edo 629 16 76 44 telefono zerbakietara.

Bergara. Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Dena kanpoaldera begira. Igogailua, lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukalde. Hornitua eta jantzia. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 607 32 74 32

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 82 metro koadrokoa. Hiru logela. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 657 79 45 61

Oñati. Errekalde auzoan. Hiru logela. Argitsua. Hornitua eta jantzia. Igogailua. Garajea ere alokatzeko aukera. Deitu zerbaki honetara 19:00etatik aurrera. 679 87 87 48

104. ERRENTAN HARTU

Antzuola. Antzuolan etxea behar du gu errentan. Baserrira ere hartuko genuke. Deitu 626 73 40 19 edo 699 24 86 99 telefono zerbakietara.

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. 630 71 35 83

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. 15 metro koadroko garaje itxia salgai Espoloinan. 20.000 euro. Deitu 19:30etatik 22:00etara zerbaki honetara: 606 74 15 32

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garajea ematen da errentan Larrea etxean atzetik (Usaetxe enparantzan). 60 euro hilabetean. E-posta soliveira@hotmail.es. Kontakua: Sergio. Edo deitu zerbaki honetara: 678 53 82 48

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ARETXABAETA
Taberna ematen da errentan.
Kokapen oso ona.
943 53 38 27

4. LANA

402. ESKAERAK

Aretxabaeta, Arrasate edo Bergaran emakumea lan desberdinak egiteko gertu: garbiketa lanak, nagusiak zaindu. 647 10 58 72

Arrasate. Arratsaldetan edo asteburuetan lan egingo nuke tabernetan edo nagusiak zaintzen. 606 64 16 09

Arrasate. Bertako emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Esperientziaduna. 943 79 60 89

Arrasaten, Aretxabaetan edo Eskoriatzan. Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomaturia eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

Bergara. Denertariko errekauek eta erosketak egiten dira. Bergaran bakarrik. 666 46 69 69

Bergara. Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko arratsaldetan. 610 34 97 88

Bergara. Emakume bergararra gertu arratsaldetan umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 665 75 41 32 zerbakira.

Bergara. Neska gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta garbitasun lanak egiteko. Esperientziaduna. 680 77 06 46

Bergara. Neska gertu etxeko garbitzeko goiz edo arratsalde. 605 51 96 89

Debagoiena. Gizon arduratsua lanerako prest. 677 62 22 21

Debagoiena. Gizon gaztea C eta C1 gida-baimenarekin, lanerako prest. 683 42 87 04

Debagoiena. Mutil gaztea ileapaindegi lanetan esperientziaduna, lanerako prest. 683 42 87 04

Debagoiena. Mutil gaztea ostalaritzan lan egiteko prest: sukaldari laguntzaile, tabernari laguntzaile, plater-garbitzaile eta abar. 634 62 33 95

Debagoiena. Neska gertu orduka lan egiteko, ospitalean gauek eginaz, nagusien zaintzan edo garbiketetan. Deitu 636 80 87 68 telefonora.

Debagoiena. Adineko jendea zaintzeko prest nago, baita garbiketa lanak egiteko ere. Interneta egoteko prest. Victoria Justiniano. 605 41 88 20

Debagoiena. Autoen mekanikaria naiz eta lana egiteko prest nago. Bestelako lanak ere egingo nituzke. Nere telefonoa: 645 54 43 25

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak zaindu, garbiketa edo bestelako lanetan jarduteko. Deitu 671 80 12 89 edo 935 16 94 54 telefonora.

Debagoiena. Emakumea prest nagusiak zaindu, garbiketa edo bestelako lanetan jarduteko. 603 77 58 82

Debagoiena. Eraikuntzarekin lotutako edo bestelako edozein lanerako mutila prest. Deitu 677 70 93 80 zerbakira.

Debagoiena. Esperientziadun emakumezko batek, nagusiak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzte. Maita. Deitu 650 17 74 87 edo 943 76 48 26 telefono zerbakira.

Debagoiena. Gizonezkoa gertu eraikitza laguntzaile, margoketa, lorazain zein nagusien zaintzan jarduteko. Deitu 671 80 12 89 edo 935 16 94 54 telefono zerbakietara.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere. GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan eman
- 104. Errentan hartu
- 105. Etxeak osatu
- 106. Bestelakoak

2. GARAJEAK

- 201. Saldu
- 202. Erosi
- 203. Errentan eman
- 204. Errentan hartu
- 205. Bestelakoak

3. LOKALAK

- 301. Saldu
- 302. Erosi
- 303. Errentan eman
- 304. Errentan hartu
- 305. Bestelakoak

4. LANA

- 401. Eskaintzak
- 402. Eskaerak
- 403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

- 501. Jaso
- 502. Eman
- 503. Bestelakoak

6. MOTORRA

- 601. Saldu
- 602. Erosi
- 603. Alokatu
- 603. Konpondu
- 604. Bestelakoak

7. ANIMALIAK

- 701. Saldu
- 702. Erosi
- 703. Eman
- 704. Bestelakoak

8. DENERTARIK

- 801. Saldu
- 802. Erosi
- 803. Eman
- 804. Hartu
- 805. Trukatu
- 806. Galdu
- 807. Aurkitu
- 808. Bestelakoak

9. HARREMANAK

- 901. Agurrak
- 902. Harremanak
- 903. Deiak
- 904. Bestelakoak

10. RELAX



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokoosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- Bergara:**
- Matxiategi 102 m². 4 logela. Igogailu, berogailu eta trastelekuarekin.
 - Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 240.405€.
 - Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
 - Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. Prezio ona.
 - Masterreka 70 m². 2 logela. Igogailu eta garajearekin.
 - Zabalategi 55 m². Balkoi eta trastelekuarekin. Prezio itziesiarekin. 114.192€.
 - Justo Garate plaza. 80 m². 3 logela. Ia berria. Garajea aukeran.
 - Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berritua. Oso ondo. 144.243€.
 - Zabalategi 80 m². 3 logela. Igogailuarekin. 154.760€.
 - Ibargarai 54 m². Garajearekin. Aukera ona. 234.395€.
 - Simon Arrieta 80 m². 2 logela. Balkoi, igogailu, berogailu eta trastelekuarekin. 210.354€.
 - Zubiaurre 51 m². 102.000€.
 - Zabalategi 54 m². Balkoiarekin. 96.000€.
 - Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
 - Bolu 140 m² duplexa. Terraza eta garajearekin. Aukera ona.
 - Ibargarai 74 m². Igogailu eta garajearekin.
 - Burdiñate 53 m². Apartamentua, oso ondo.
 - Bidekurutzetan 60 m² obra egiteko. Oso prezio ona.
 - Zubieta 240 m², ortuarekin.
 - Urteagan etxebizitza estreinatzen. 195.000€.
 - Bidekurutzetan etxebizitza estreinatzen. 1, 2, 3 eta 4 logela. AUKERA ONA.
 - Masterreka 104 m². 3 logela. Estreinatzen. Trastelekuarekin. 294.495€.
 - Martoko 140 m². Duplexa. Berria. Aukera ona.
 - Loretxokan etxebizitza estreinatzen. 3 eta 4 logelakoak. AUKERA ONA.

Antzuola:

- Baserrira 200 m². 3 logela. Berria. Garajearekin. Lursailarekin.
- Buzinzurri apartamentua estreinatzen. Aukera ona.
- Buzinzurri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Behoke auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.

Soraluze:

- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

Elgeta:

- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Salvador 90 m². 3 logela. berogailu eta trastelekuarekin. 82.000€.

Ordenagailua. Ordenagailua eta pantaila salgai. Pentium 4, 1,5 Gb RAM. Disko gogorak 160 Gb. Fire-ware txartela. Sistema eragilea W-XP Sp-3. 100 Euro. 669 65 48 87

Umeak eramateko. Umeak autoan eramateko aukila salgai. 9-18 kilo artekoa. Deitu 658 12 43 38 telefonora.

Xurgagailua. (aspiradora). Akaroen aurkakoa eta kontsumo baxukoa. Gutxi erabilirik. 659 62 02 49

802. EROSI

Umeendako karroa. Bigarren eskuko bi umeentzako Bugaboo Donkey. Babyjogger city select, candy peach edo antzeko karroa erosiko nuke. 605 76 08 29

804. HARTU

Birkindako aukila. emateko badaukazu, gustura hartuko genuke. Oñati. Deitu 662 57 48 84 telefonora.

806. GALDU

Erretrato kamara digitala Bergaran. Martxoaren 31n, Samsung kamara digitala, funda gorriarekin, Bergarako Ibargarai kalean galdu nuen. Aurkitu baduzu mesedez deitu zerbaki honetara: 688 60 92 02

Telefonoa Urkulun. Martxoaren 22an, arratsaldean, Urkuluko urtegiaren karkasa morea duen poltsikoko telefono beltza galdu nuen. Aurkitu baduzu mesedez deitu telefono zerbaki honetara: 685 72 19 86. Mila esker aldeztu aurretik.

9. HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Arrasatetik Donostiara autoan. Egunero Arrasatetik Donostiara joateko autoa partekatzen jende bila nabil. Arrasatetik 7:15ean iristen naiz eta Donostiatik 17:30etan, gutxi gora behera. Autoa partekatzen deitu 669 13 20 08 telefono zerbakira eta Imanolengatik galdetu.

Mutil bila. Kaixo, Mikel naiz eta ezkondu nago. Beste mutil batekin harremanak izan nahiko nituzke. Asmo bera daduzu, bidali SMS bat zerbaki honetara. Nire aldetik erabateko diskretzioa. 605 08 82 76

Neska bila. Neska polit, sentibera eta ezkongabea naiz eta antzeko neska bat ezagutuko nuke Arrasate edo Bergaran. Interesatuok deitu 615 75 09 90 telefono zerbakira.

GURE KIROLA

GOIENA TELEBISTA | HARMAILATIK
ASTELEHENERO, 20:45, 22:30



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA **goiena**

ASTEAGOIENAN



LEIRE KORTABARRIA

Lanbide Heziketa Azoka ezagutzeko aukera gaur

Mankomunitateko Garapen Agentziak eta Debagoieneko Lanbide Heziketa zentro guztiek antolatuta, ikastetxeek euren eskaintza plazaratzen dihardute. AsteOn saioan horri buruzko erreportajea eskainiko dizuegu.

'AsteON' Egubakoitza, 21:53



GOIENA

Oxel Erostarbe Elgetako alkatea 'Harira' saioan

Harira saioiko alkateen erronda-rekin jarraituta, Elgetako alkatea izango dugu martitzeneko saioan: Oxel Erostarbe. Eneko Azkarate aurkezleak egiten dizkion galde-rez gain, ikus-entzuleek ere egin ahal izango dizkiote galderak.

'Harira' Martitzena, 21:27

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUAZTENA, 25	EGUENA, 26
12:30 Magazinea	10:00 Ipupomamua	10:00 Hamaika.bit	12:25 Magazinea	12:30 Magazinea	12:15 Magazinea	12:30 Magazinea
13:15 Gipuzkoa kultura	10:26 Zorion Agurrak	10:32 Zorion Agurrak	13:25 Zorion Agurrak	13:25 Zorion Agurrak	13:00 Zorion Agurrak	13:15 Zorion Agurrak
13:45 Iruñeko Hotsak	10:31 28.Klip	11:02 Zorion Agurrak	13:30 Onein	13:30 Harmailatik	13:05 Harira	13:20 Ekogune
14:10 Onein	11:01 Planik bai?	11:07 Onein	14:00 Altxor Txokoa	14:15 AsteON	14:05 Beranduegi.tv	13:50 Ikusmira
14:33 Planik bai?	11:11 AsteON	11:42 Magazinea	14:31 Ikusmira	14:45 Berriak	14:23 Ikusmira	14:12 Hamaika.bit
14:43 Berriak	11:41 Garaien oartzuna	12:42 Bizitegia	14:48 Berriak	15:05 Eguraldia	14:46 Berriak	14:44 Berriak
15:03 Eguraldia	12:21 Bizitegia	13:07 Berriak	15:08 Eguraldia	15:10 Zorion Agurrak	15:06 Eguraldia	15:04 Eguraldia
15:08 Planik bai?	12:51 Ur eta lur	13:22 Garaien oartzuna	15:13 Ur eta lur	15:15 Harmailatik	15:11 Gipuzkoa kultura	15:09 Bizitegia
15:18 Bizitegia	13:15 Onein	14:02 Onein	15:37 Bertso saioa	16:00 Onein	15:41 Onein	15:39 Berbaz
15:48 Berbaz	13:45 Berriak	14:32 Gipuzkoa kultura	16:07 Nere herrie	16:30 Ikusmira	16:17 Berbetan	16:44 Berriak
16:48 Berriak	14:00 Magazinea	15:02 Esatea libre	16:30 Ikusmira	16:30 Berriak	16:47 Berriak	17:04 Eguraldia
17:08 Eguraldia	15:00 Gipuzkoa kultura	16:02 Bertso saioa	16:53 Berriak	16:47 Berriak	17:07 Eguraldia	17:09 Garaien oartzuna
17:13 Planik bai?	15:30 Harira	16:35 Zorion Agurrak	17:13 Eguraldia	17:12 Eguraldia	17:12 Garaien oartzuna	17:49 Ikusmira
17:23 28.Klip	16:30 Planik bai?	16:40 Berriak	17:18 Bertso saioa	17:17 Bizitegia	17:51 Harmailatik	18:11 Altxor Txokoa
17:49 Harira	16:40 Zorion Agurrak	16:55 AsteON	17:51 Onein	17:47 Harmailatik	18:34 Ikusmira	18:42 Ur eta lur
18:49 Berbetan	16:45 Berriak	17:21 Gipuzkoa kultura	18:13 Berbaz	18:32 Altxor Txokoa	18:57 Ekogune	19:06 Ekogune
19:24 Beranduegi.tv	17:00 Onein	18:06 Magazinea	19:13 AsteON	19:03 Hamaika.bit	19:27 Bertso saioa	19:36 Planik bai?
19:43 Berriak	17:37 Ekogune	19:06 Harira	19:43 Zorion Agurrak	19:35 Beranduegi.tv	19:55 Berriak	19:46 Berriak
20:03 Eguraldia	18:07 Gipuzkoa kultura	20:06 Beranduegi.tv	19:48 Berriak	19:52 Berriak	20:15 Eguraldia	20:06 Eguraldia
20:08 Planik bai?	18:37 Bertso saioa	20:21 Magazinea	20:08 Eguraldia	20:12 Eguraldia	20:18 Magazinea	20:09 Planik bai?
20:18 Harira	19:07 Zorion Agurrak	21:21 Ekogune	20:13 Magazinea	20:17 Magazinea	21:03 Berriak	20:19 Magazinea
21:18 Berriak	19:12 Altxor Txokoa	21:51 Bertso saioa	20:58 Berriak	21:02 Berriak	21:23 Eguraldia	20:59 Lehiaketa
21:38 Eguraldia	19:43 Berbaz	22:21 Zorion Agurrak	21:23 Eguraldia	21:22 Eguraldia	21:47 Hamaika.bit	21:09 Berriak
21:43 Planik bai?	20:43 Beranduegi.tv	22:26 Berriak	21:28 Harmailatik	21:27 Harira	22:19 Gipuzkoa kultura	21:34 Planik bai?
21:53 AsteON	20:58 Magazinea	22:41 Nere herrie	22:13 Magazinea	22:27 AsteON	22:49 Magazinea	21:44 Eguraldia
22:23 Esatea libre	21:58 Planik bai?	23:04 Bizitegia	22:58 Harmailatik	22:57 Magazinea	23:34 Berriak	21:47 Hamaika.bit
23:23 Planik bai?	22:08 Harira	23:34 Magazinea	23:43 Berriak	23:31 Berriak	23:59 Eguraldia	22:19 Gipuzkoa kultura
23:33 AsteON	23:38 AsteON	00:08 Eguraldia	00:07 Eguraldia	23:56 Eguraldia	00:02 Berriak	22:49 Magazinea
				00:04 Planik bai?	00:26 Eguraldia	23:34 Berriak
					00:31 Planik bai?	23:59 Eguraldia

ARRASATE IRRATIA

Hirigintzako batzordeburuari elkarrizketa

Omer Arregi Hirigintzako batzordeburua elkarrizketatuko dugu. Hirigintzako alorrean Udalak 2012rako dituen asmoez galdetuko diogu; tartean, TAO jartzeko asmoaz. Martitzenean izango da, 10:30ean, Arrasate Irratian.

Hudson Falcons taldea entzuteko sarrerak zozketan

New Jerseytik (AEB) dator Hudson Falcons taldea eta Arrasaten emango du Euskal Herriko kontzertu bakarra. Eguenean izango da, gaztetxean, Kooltur egitasmoaren barruan. Arrasate Irratian sarrerak zozketatuko ditugu.


GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Zapatua, 21	CORCUERA	Aranbarri plaza, 1	943 79 22 26
Domeka, 22	IRIZAR	Erguin, 11	943 79 12 39
Astelehena, 23	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Martitzena, 24	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Eguaztena, 25	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Eguena, 26	ETXEBERRIA	Zarugalde, 42, 44	943 77 16 30
Egubakoitza, 27	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias, 1	943 79 15 15
BERGARA			
Zapatua, 21	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 22	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 23	ESTELLA	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 24	MOZOS	Iparragirre	943 76 12 15
Eguaztena, 25	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza, 4	943 76 11 74
Eguena, 26	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 27	GUALLAR	San Antonio, 5	943 76 11 05
OÑATI			
Zapatua, 21	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 22	ANDUAGA	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 23	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 24	IGARTUA	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 25	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 26	GARATE	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 27	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
ARETXABAETA / ESKORITZA			
Zapatua, 21	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Domeka, 22	FRAILE	Herriko plaza, 10 (Are.)	943 79 21 99
Astelehena, 23	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Martitzena, 24	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguaztena, 25	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Eguena, 26	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28
Egubakoitza, 27	FERNANDEZ	Gorosarri plaza, 1 (Esk.)	943 71 48 28

Farmazien eskuko telefonotarako 2012 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehieneko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altitria TICek kudeatuta (www.althria.es).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



ZAPATUA, 21 Oraindik euria egingo du, baina aurreko egunetan baino urriago. Zeruan orokorrean hodeiak gailenduko dira.

DOMEKA, 22 Tenperaturak behera egingo du. Zerua lainotuta izango dugu eta euriarekin jarraituko dugu domekan ere.

EUSKAL HERRIA



Euriarekin jarraituko dugu asteburu osoan eta ez dugu zeruan eguzkia ikusteko aukerarik izango.

GAZTE INFORMAZIOA

LEHIAKETAK

Argazkilaritza. Non ikusten duzu Europa Euskadin? argazki lehiaketa gazteentzat. Epea: apirilaren 30a. IRUDIMENA 2012. argazki edo testuak sortu zure irudimena landuz! Azken eguna izango da: maiatzaren 15a. info@irudimena.com.

Kartelak. Irungo San Pedro eta San Martzial jaiki iragaritzeko kartel lehiaketa. Epea: apirilaren 25a.

LANA

Begiraleak. Aretxabaeta, Eskoriatza, Errenteria, Zestoa eta Arrasateko udaleku irekietarako begiraleak behar dira. www.gipuzkoangazte.info.

Ekintzaileak. Ekintzaile gazteentzako Erasmus programa. Europa osoko ekintzaile berri

eta enpresa arituen arteko elkartrukea egiteko programa. Epea: maiatzaren 31.

IKASTAROAK

Kurtso formatiboa. Europar boluntariotza zerbitzurako kurtso formatiboa. Maiatzaren 4tik 6ra Errenterian. Izena emateko azken eguna izango da: apirilak 30.

AISIALDIA

Gazte oporraldiak. Gipuzkoako Foru Aldundiko gazte oporraldiak. 14-17 urte arteko gazteentzako udalekuak! Izena emateko azken eguna izango da: apirilaren 24a.

Udatxoko. Udararako planik al duzu? Ikusi hemen dauden aukera guztiak: udalekuak, kanpaldiak, auzolandegiak, bidai solidarioak... www.gipuzkoagazteria.net/uda.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net Oñatiko Gazteendako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | gazteinformazioa@oinati.net



HILDAKOAK

Rosario Larrañaga Iturrino. Alemanian, martxoaren 30ean.

Manuel Francisco Marcos Sanchez. Arrasaten, apirilaren 3an. 40 urte.

Leon Aranzabal Ojanguren. Bergaran, apirilaren 4an. 77 urte.

Estefania Unzurrunzaga Lizarralde. Oñatin, apirilaren 6an. 88 urte.

Consuelo Bernal Mijancos. Bergaran, apirilaren 8an. 86 urte.

Ricardo Otaño Madinabeitia. Bergaran, apirilaren 9an. 90 urte.

Jose Antonio Elkoru Unzueta. Bergaran, apirilaren 10ean. 66 urte.

Ignacio Gillegi Larrañaga. Elgetan, apirilaren 11n. 70 urte.

Santiago Romero Lambea. Arrasaten, apirilaren 12an. 84 urte.

Josefa Santamaria Somabilla. Arrasaten, apirilaren 13an. 97 urte.

Irene Legorburu Aranburuzabala. Eskoriatzan, apirilaren 13an. 89 urte.

Maria Ugarte Lopez de Abetxuko. Arrasaten, apirilaren 13an. 92 urte.

Rosa Valado Borrajo. Bergaran, apirilaren 15ean. 91 urte.

Gotzon Barrenetxea-Arando Azkargorta. Bergaran, apirilaren 15ean. 88 urte.

Vicenta Azula Askasibar. Bergaran, apirilaren 16an. 99 urte.

Luis Esnal Lasa. Oñatin, apirilaren 17an. 93 urte.

Carmen Oyanburu Buldain. Bergaran, apirilaren 18an. 89 urte.



Saioa eta Jesus

Bihar, zapatua, Saioa eskoriatzara eta Jesus gasteiztarra Gasteizko udaletxean ezkonduko dira. Oso ondo pasatu eguna! Familiaren partetik. Zorionak, bikote!

OROIGARRIA



**Isabel
Diego Ortiz**
1932-05-28 / 2010-04-19
**Jose Ignacio
Uribarri Jausoro**
1941-06-26 / 2003-03-30



Azkenengo zuhaitzeka gerizpe azpian putaseme bat egongo da.

D.J. Burdin (Zika).
Eskoriatzan, 2012ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Jose Antonio
Elkoru Unzueta**



Bergaran hil zen 2012ko apirilaren 10ean, 66 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Maite izan zaitugunok ez zaitugu inoiz ahaztuko zurekin bizitako une alaiak beti gogoan izango ditugulako.

Bergaran, 2012ko apirilaren 20an.

ESKER ONA

**Gotzon
Barrenetxea-Arando Azkargorta**




Orain dela egun gutxi Bergaran hil zen, 88 urte zituela.

Lerro hauen bidez Gotzonen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Bergaran, 2012ko apirilaren 20an.

URTEURRENA

**Amaia Uriarte Urtaza
Ane Miren Telleria Iñurritegi
Mikel Urzelai Aiastui
Aitor Oñate Aiastui**



2005eko apirilaren 20an hil ziren auto istripuz, 24, 22, 22 eta 20 urte zituztela.

Zazpigarren urteurreneko meza gaur, egubakoitza, apirilak 20, 20:00etan, Oñatiko Bidaurreta elizan ospatuko da.

Beti gure artean zaudete

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Tere
Letamendi Garai**



1940-10-21 / 2011-04-05

Urteurreneko meza bihar ospatuko da Oñatiko San Migel parrokian 19:00etan.

*Zure keizpeak babestu
dau gure familixa osua
Zure keizpeak gozatu dau
inguratu zauen mundua*

*Zure keizpeak arinddu
gau askotxoren bizimodua
Zure keizpea lagungarri
dakigula gure onduan*

Oñatin, 2012ko apirilaren 20an.

URTEURRENA

**Maria
Urrutia Macazaga**



2011ko apirilaren 20an hil zen, 84 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, apirilaren 22an, 12:00etan, Osintxuko elizan ospatuko da.

*Utzi goituzu penetan
orain gure ametsetan
bizirik zaudete benetan
zenuko izarretan
eta gure bihotzetan.*

Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zuretik eskerrik asko etxeko izenean.

Babeslea:



Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

ESKELA EGUBAKOITZEAN NAHIZ ASTELEHENEAN ARGITARATZEKO,
DEITU BEZPERA EGUERDIRAKO: 943 25 05 05.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

ARRASATE BH Klip: sari banaketa

Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako bideo lehiaketa antolatu du Arizmendi Ikastolak, eta gaur izango da sarien banaketa, Batxilergoko ikasleen moda-desfilearen ostean. Ikusleen saria ere banatuko dute; *Goiena.net*-eko blogean bozka daiteke ikusleen saria.

Gaur, Amaia antzokian, 18:30ean.



GOIENA.NET



TONEDEAF TOURING

OÑATI Radio Moscow

Gaztemaniak musika egitarauaren barruan, Radio Moscow talde estatubatuarra Oñatiko gaztelekuan ariko da zuzenean. Estatubatuarren aurretik joko du Kaimanleon taldeak, Potemkin eta Show Businessko kideek sortutako proiektu berria. Gaur, gaztelekuan, 22:00etan.

MUSIKA**ARRASATE Hudson Falcons**

Hudson Falcons taldea New Jerseytik (AEB) dator eta aurretik ere Arrasaten egona da. Europan barrena egingo duten hirugarren bira luzean, Arrasatekoa izango da Euskal Herrian egingo duten kontzertu bakarra. Taldeak bere zortzigarren diskoa aurkeztuko du bira honetan. Arrasaten, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan eskainiko dute kontzertua.

Apirilaren 26a, eguena, gaztetxean 22:00etan.

OÑATI Opera emanaldi berezia

Érase una vez... la ópera emanaldia egingo du Opera Divertimento taldeak. Sarrerak salgai daude www.barrabarra.eu atarian 3,5 eurotan.

Apirilaren 22an, domeka, Santa Ana, 17:00etan.

OÑATI Udal Musika Bandaren zuzeneko emanaldia

Hileroko kontzertua egingo du Inaxio Ibarrondoren zuzendaritzapean.

Apirilaren 22a, domeka, Santa Ana antzokian, 12:45ean.

ELGETA Burdinakia, Strickers eta The Friday Crew

Rock emanaldia Elgetako gaztetxean. Sarrera: 5 euro.

Apirilaren 21a, zapatua, Elgetako gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA Musika emanaldia Zero Zaborren eskutik

Krisis, KKK, Su-etena eta Kalamidaz taldeen kontzertua Debagoieneko Zero Zabor taldearen eskutik.

Apirilaren 21a, zapatua Bergarako gaztetxean 22:00etan.

OÑATI Oñati Abesbatzaren kontzertua

Bilboko Kirikiño Abesbatzarekin batera abestuko dute Agustindarren elizan.

Apirilaren 21a, zapatua, Agustindarren elizan 20:15ean.

ARRASATE Itxungi Irratiaren aldeko kontzertua

Asta Kask, Material Rechazado, Dictadura eta Kaleko Urdangak taldeek joko dute, Itxungi proiektuarendako dirua lortzeko.

Gaur, gaztetxean, 22:00etan.

NON-ZER

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

APIRILA 20
APIRILA 27

OÑATI Kontzertua eta magia saioa Antton tabernan

Josu Zubia oñatiarrak zuzeneko emanaldia eta magia saioa egingo ditu.

Gaur, egubakoitza, Antton tabernan, 20:00etan.

BERGARA Kantu ikasleen emanaldia

Azkenengo urteetan klasiko bihurtu da kantu ikasleen emanaldia. Bergarako Musika Eskolan kantua ikasten dabilzan 22 ikasleak arituko dira. Musika mota ezberdinak entzuteko aukera izango da. Opera, oratorio, lied, klasikoaren artean, baina musikalak, herrikoiak eta pop estilokoak ere izango dira.

Gaur, egubakoitza, Mariaren Lagundian, 19:00etan.

ANTZERKIA**ANTZUOLA Apika taldearen ipuin saioa**

Patxiko Txerren ipuingintzaren emaitzak jakinaraziko dira. Ondoren, Apika taldeak ipuin saioa eskainiko du.

Domekan, Torresoroan, 19:00etan.

ARETXABALETA 'Munduan zehar... entzun nuen!' ipuin kontaketa

4 urtetik aurrerako neska-mutikoendako ipuin kontaketa saioa: *Munduan zehar... entzun nuen!*

Apirilaren 21a, zapatua, Udal liburutegian, 11:30ean.

OÑATI 'Dejabu panpin laborategiak' antzezlan

Helduendako emanaldia da eta sarrerak www.barrabarra.eu atarian eros daitezke 10 eurotan.

Apirilaren 20a, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

IKUSKIZUNAK**ELGETA Improvisibles taldea**

Clown generoko inprobisazioak egingo dituzte.

Apirilaren 26a, eguena, Espaloian, 20:00etan.

OSPAKIZUNAK**ARRASATE Gaztetxe Eguna**

Gaztetxearen urteurrenaren harira, Gaztetxe Eguna ospatuko dute.

Apirilean mahai gainean izan dituzten gaien inguruko gazte eztabaidekin emango diote hasiera egunari. Ondoren, triki bertso poteoarekin jarraituko dute. Bertsolariekin bukatu ondoren herri bazkaria. Arratsaldean Azkaiter Pelox bergararra eta 19:00etan ekitaldi nagusia egingo dute. Ondoren, kalejira egingo dute gaueko ska festaren aurretik.

Apirilaren 21a, zapatua, Arrasateko gaztetxean, 11:00etan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK**ARETXABALETA 'Etorkizuna erraustuz' emanaldia**

Zero Zabor taldeak antolatuta Olastiko erraustegiaren gainean 3MUGA-k ekoiztutako emanaldia.

Gaur, Arkupeko Zaraia aretoan, 18:00etan.

UMEAK**OÑATI 'Kezkamuxelak' tailerra**

Anthony Browne-ren izen bereko ipuina kontatuko diete 6, 7 eta 8

urteko arteko umeei. Ondoren pena-kentzaile bat sortzeko proposamena egingo diete, koloretako oihalak, zotzak eta hariak erabiliz. Gonbidapenak haur liburutegian jaso behar dira. Apirilaren 25a, eguaztena, haur liburutegian, 17:30ean.

ESKORIATZA Show lehiaketa

Umeendako show lehiaketa gertatu dute Tortolisaren.

Apirilaren 20a, egubakoitza, Tortolis ludotekan, 18:00etan.

ERAKUSKETAK**OÑATI Poesian oinarritutako erakusketa**

Juan Kruz Igerabideren *Jonas eta hozkailu beldurtia* liburuan oinarritutako erakusketa da. Haurrek beldurrari aurre egiteko, literaturak eskaintzen dituen tresnak erakusten ditu. Galtzagorri taldeak prestatutako poesia aretoa da. 8-9 urteko neska-mutikoendako erakusketa da. Goizez egongo da zabalik.

Apirilaren 23a, astelehena, Kultura etxean 09:00etan.

ANTZUOLA Alaitz Jauregiren ikasleen lanak ikusgai

Erakusketa: Alaitz Jauregiren ikasleek Xinkonan egindako eskulanak. Orlanen, 18:30 - 20:30.

Apirilaren 21a, zapatua, Orlanen, 18:30ean.

ESKORIATZA Errepublikan eta Espainiako Gerraren kartelen gaineko erakusketa

Apirilaren 20etik 29ra bitartean, Garaiko kartelak: Errepublika eta Gerra Zibila izeneko erakusketa izango da ikusgai.

Apirilaren 20a, egubakoitza, Kultura etxean, 18:00etan.

LITERATURA**ESKORIATZA Ipuin kontaketa**

Umeendako ipuin kontaketa, Almeneko DBH 2. mailako ikasleek gertatutakoa.

Apirilaren 23a, astelehena, Liburutegian, 18:00etan.

BERGARA Liburu aurkezpena

Jon Cadiernoren *Minutus creatio* eta Uri Colodoren *Maite zaitut* liburuen aurkezpena eta bi idaz-



GOIENA



ASIER SARASUA

ELGETA Fado gaua

Ventos de Saudade taldeak emanaldia egingo du Espaloia kafe antzokian. Fado doinuak jotzen ditu taldeak, baina kideak euskaldunak dira; zehazki, Sorraluzekoak. Abesti klasikoak eta modernoak joko dituzte.

Gaur, Espaloian, 22:30ean.

leekin solasaldia Angiolillo liburutegiaren eskutik.

Apirilaren 20a, egubakoitza, Angiolillo liburutegian, 19:00etan.

ESKORIATZA Liburu azoka 2x1

Liburu azoka eta umeendako tailerrak.

Apirilaren 20a, egubakoitza, plazan, 18:00etan.

IRTEERA**DEBAGOIENA** Villabona, Usurbil eta Hernanira irteera 'Zero Zabor' eredu praktikoko ikustera

Otarkeoak biltzeko zorro berberabilgarriak, esne makinak, pañal berrerrabilgarriak, arraindegia eta harategietan tupperren erabilera, handizka saltzen duten dendak, ... *Zero zabor* filosofia atez atekoa baino haratago doala ikusteko aukera egongo dela diote antolatzailuek. Hitzordua Villabonako plazan 16:00tan.

Apirilaren 22a, domeka, Villabonako plazan, 16:00etan.

ELGETA Mendi irteera Axulaurko atara

Kantsatzeke mendi taldeak antolatuta. 4-5 ordu. Izen-emateak apirilaren 20ra arte. Prezioa: 10 euro. Argibideak: kantsatzeke@gmail.com.

Apirilaren 22a, domeka, Irteera Herriko plazatik, 08:00etan.

HITZALDIK**ARRASATE** Makrobiotikaren gaineko hitzaldia

Egoitz Garro kontsultore makrobiotikoak eta irakasleak emango du hitzaldia eta makrobiotika gertutik ezagutzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Ekin Emakumeak elkarteak antolatu du, makrobiotika jendeari gerturatzeko helburuarekin.

Apirilaren 26a, eguena, Kultur Ateko Jokin Zaitegi aretoan, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Hiriak eta ingurune lagunkoiak' berbaldia Basotxon

2012a Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldi Arteko Solidaritatearen Europako Urtea da eta apirilaren 29a hori gogorarazteko eguna. Hori horrela, Basotxo erretiratuen elkarteak Aretxaba-

leta herri lagunkoia den aztertuko du. Horretarako Izaskun Maria Ortiz Martinez adituaren berbaldia izango dute Kutxari esker. Apirilaren 26a, eguena, Basotxo erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

BERGARA Maribi Ugartebururen hitzaldia

Ezker abertzaleko bozeramaileak hizpide izango ditu presoak, biktimak, erabakitze eskubidea, desarmaea...

Apirilaren 25a, eguaztena, Irizar jauregian, 19:00etan.

BERGARA Kaixo Menopausia

Debagoieneko Ospitaleak eta Lehen Mailako Arretako ambulatioek antolatutako. Osasun ikasgela honetan Rebeca García eta José Ramón Serranok, ESiko emagin eta ginekologoa, menopausiari buruzko informazioa emango dute: zer den, eragin ditzakeen aldaketak, sintomen tratamendua eta garai hau bete betean bizitzeko aholkuak.

Apirilaren 24a, martitzena, Irizar Jauregian, 19:00etan.

OÑATI Pako Aristiren hitzaldia

Euskal Herria errealitatea eta utopia delako hitzaldia egingo du Liburuaren Hilabetearen baitan.

Apirilaren 24a, martitzena, Kultura etxeko zinema-aretoan, 19:00etan.

OÑATI Nafarroaren konkistaren gaineko hitzaldia

Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena (1512-2012) delako hitzaldia egingo du Nabarralde elkarteak Beñi Agirrek.

Apirilaren 24a, martitzena, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean.

BERGARA 'Mujeres presas' hitzaldia

Mujeres presas hitzaldia Esti eta Miguel-en eskutik.

Apirilaren 21a, zapatua, Bergarako gaztetxean, 18:00etan.

BESTELAKOAK**ARETXABALETA** Euskarazko liburu eta disko truke azoka

Apirilaren 23tik 27ra euskarazko liburuen eta diskoen truke azoka egingo dute Durana kalean.

Apirilaren 23a, astelehena, Udaletxe zaharrean, 16:00etan.

ZINEMA**ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

Shame
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

Viaje al centro de la tierra 2
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

Flores de papel
Martitzena: 20:30.

BERGARA**ZABALOTEGI**

Las aventuras de Tintin
Domeka: 17:00.

Criadas y señoras
Domeka: 19:30.

OÑATI**KULTUR ETXEA**

Los idus de marzo
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30

ARETXABALETA**ARKUPE**

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

Los Muppets
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

OÑATI**KULTURA ETXEA**

Todos los días de mi vida
Barikua: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:30.

La invención de Hugo 3D
Zapatua: 17:00, 19:45.
Domeka: 17:00.

COLISEO 1

Indomable
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

COLISEO 2

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 20:00.
Astelehena: 20:30.

GASTEIZ**GURIDI**

Los juegos del hambre
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.

Take shelter
Barikua: 17:30.

La fría luz del día
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Grupo 7
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Todos los días de mi vida
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Blanca Nieves
Barikua: 17:30.

Los idus de marzo
Barikua: 22:30.
Domeka: 20:00, 22:30.

Battleship
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Ira de Titanes
Barikua: 20:00, 22:30.

FLORIDA

Intocable
Barikua: 17:30, 20:00, 22:30.

Lorax
Barikua: 17:00, 18:45.
Astelehena: 17:30.

Los infieles
Barikua: 20:30, 22:30.
Astelehena: 20:00, 22:30.

Tres veces veinte años
Barikua: 17:00, 20:35.
Astelehena: 20:00.

De Nicolas Sarkozy
Barikua: 18:40, 22:30.
Astelehena: 17:30, 22:30.

La pesca del salmón en Yemen
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:30, 20:00, 22:30.

Cairo Time
Barikua: 17:00, 19:45, 22:30.
Astelehena: 17:30, 22:30.
Eguaztena: 18:00, 20:15, 22:30.
Eguena: 17:30, 22:30.

Si quiero silvar silvo
Barikua: 18:00, 20:15, 22:30.

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 18:00, 20:15, 22:30.

GORBEIA

Los juegos del hambre
Astelehena: 17:30, 20:30, 23:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 20:00, 23:00.
Barikua: 15:30, 18:30, 21:30, 00:30.
Astelehena: 19:00, 22:00.

Soul Surfer
Barikua: 18:15, 20:20, 22:25.
Barikua eta zapatua: 00:30.
Zapatua eta domeka: 16:10.

La pesca del salmón en Yemen
Barikua: 18:10, 20:20, 22:30.
Barikua eta zapatua: 00:40.
Zapatua eta domeka: 16:00.

Battleship
Barikua: 17:30, 19:00, 20:00, 22:30, 21:30.
Barikua eta zapatua: 00:00.
Zapatua eta domeka: 16:30.

Titanic 3D
Barikua: 19:40.
Barikua eta zapatua, baita: 23:15.

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 18:00.
Zapatua eta domeka, baita: 15:45.

Blanca Nieves
Barikua: 17:35.
Zapatua eta domeka, baita: 15:30.

Ira de Titanes 3D
Barikua eta zapatua: 00:15.

Ira de Titanes
Barikua: 22:15.
Zapatua eta domeka, baita: 00:15.

La fría luz del día
Barikua: 20:15.

Intocable
Barikua: 18:00, 20:15, 22:30.
Barikua eta zapatua, baita: 00:45.

Lorax 3D
Barikua: 18:10, 20:10, 22:30.

Lorax
Eguena, zapatua izan ezik: 18:10.

Grupo 7
Eguena, zapatua izan ezik: 20:10, 22:10.
Zapatua: 22:10.

BOULEVARD

Los juegos del hambre
Barikua: 18:45, 19:45, 21:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00.
Barikua eta zapatua: 00:15.

La pesca del salmón en Yemen
Barikua: 17:50, 20:05, 22:20.
Zapatua eta domeka: 15:35.
Barikua eta zapatua: 00:35.

Battleship
Barikua: 19:00, 21:30.
Zapatua eta domeka: 16:30.
Barikua eta zapatua: 00:00.

Intocable
Barikua: 15:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00.
Barikua eta zapatua: 00:50.

Los juegos del hambre
Barikua: 18:45, 19:45, 21:30, 22:30.
Zapatua eta domeka: 16:00, 17:00.
Barikua eta zapatua: 00:15.

Lorax
Barikua: 18:25, 20:25.
Zapatua eta domeka: 16:25.

Blanca Nieves
Barikua: 18:10, 20:20.
Zapatua eta domeka: 16:00.

El exótico Hotel Marigold
Barikua: 20:00.
Zapatua eta domeka: 15:30.
Barikua eta zapatua: 00:25.

Todos los días de mi vida
Barikua: 18:00, 22:20.

[Rec] 3 Génesis
Barikua: 22:25.
Barikua eta zapatua: 00:25.

Grupo 7
Barikua: 16:00, 18:00, 20:00.
Zapatua eta domeka: 16:00, 18:00.

La fría luz del día
Barikua: 22:00, 00:00.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:00, 00:00.

Contraband
Barikua: 22:30.
Zapatua eta barikua: 00:40.

Viaje al centro de la tierra 2
Zapatua eta domeka: 15:45.

KRITIKA**TAKE SHELTER** ★★★★★

Zuzendaria: Jeff Nichols.

Herrialdea: Estatu Batuak.

Urtea: 2011.

Aktoreak: Michael Shannon, Jessica Chastain, She Whigham.

Iraupena: 123 minutu.

Ekaitz misteriozkoa

Hasieran *Take Shelter*-ek familia arrunt bati buruzko istorio bat dirudi. Bikote bat eta gorra den eta entzumena lortzeko tratamendua behar duen alaba dira filmaren protagonistak. Erdi mailako familia da: aita erakuntzan egiten du lan, amak etxean jostun lanak egiten ditu diru gehiago eskuratzeko eta biak alaba zaintzeaz arduratzen dira. Halako gauzak askotan ikusi izan ditugun arren, osagai kezagarri bat azalduko da: gizonak besteek ikusten ez dituzten ekaitzak eta tornadoak ikusten eta entzuten ditu eta horiekin lotuta familia eta bera arriskuan jartzen dituen amesgaiztoak izango ditu. Filma gizonaren egoera psikologikoa arduratzen da. Amesgaiztoak eta

irudipenek ondorio psikiko eta fisikoak sorrarazten diote. Lehenengo gertatutakoa ezkutatu mantentzen ahalegintzen bada ere, familiaren eguneroko bizitza eta kideen arteko harremanak zapuztuz joango dira. Oso ondo islatua dago pertsonaia nagusiak jasaten duen egoera: ezin du ulertu zer gertatzen ari den, besteei esan barik egoerari irtenbideak topatzen ahalegintzen da, amarekin duen elkarriketa... prozesu guztia ikusten dugu eta oso ondo antzematen da bikotearen arteko harremanen narriadura. Benetan ederrak dira biek dituzten eszena guztiak.

Hau dela eta, alde batetik familia baten arazoak ditugu

gizonaren arazo psikologikoa gainditu nahian, baina beste aldetik, ez gaude segur entzuten eta ikusten dituen seinaleak iraganari buruzko informazio apokaliptikoa ez ote den. *Take Shelter* ondo mugitzen da pertsonaien deskribapenean, Michael Shannonek eta Jessica Chastainek oso interpretazio onak egiten dituzte, baita sortzen den giro kezagarrian (zuzendariak bere denbora hartzen du egoera bakoitza erakusteko eta sortzen den giroa azaltzeko), ez dakigu oso ondo zer gertatzen ari den. Eta bukaerako eszenak nahiko nahasturik uzten gaitu gertatutakoari buruz.

ANTONIO ZABALA



47. ARTIKULUA:
Etxebizitza duina eta
egokia denontzako!



goiena

2012-04-20

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

BUKATZEKO

Zeurea izan daiteke espero duen oparia

- ▶ Fernando Rivierek leuzemia dauka eta hezur-muin trasplantea behar du sendatu ahal izateko
- ▶ Gurasoek eta senideek Interneten kanpaina martxan ipini dute eta babes handia jasotzen ari dira

ARRITXU BARRUSO | ARETXABALETA
Bederatzi hilabete besterik ez du, eta, bidegabea den arren, bizitzak lehenengo froga gogorra ipini dio Fernando Riviere txikiari. Duela bi hilabete leuzemia diagnostikatu zioten eta hezur-muin trasplantea beharrezkoa du gaitotasuna sendatzeko. Senideen eta gertuko hezur-muinak ez dira bateragarriak; horrenbestez, beharrezkoa du lehenbailehen bateragarria izango den hezur-muina topatzea; bizitza oparitu dion hezur-muina topatzea.

Opariaren zain

Fernandoren gurasoak, baina, ez daude geldirik, opari hori noiz iritsiko zain. Albistea jaso zutenetik ez dira geldirik egin, eta hezur-muina topatzeko kanpaina abiarazi dute. Lagunak eta gertukoak mugiarazi dituzte, eta hezur-muin emaile egin; oraingoz, ez da zortirik izan. Gainera, webgune bat ere ipini dute martxan (fernandonecesitamedula.wordpress.com) eta Facebooken orri bat irekin dute lelo berarekin. "Sekulako babesa jasotzen ari gara, eta, egia esan, hori barik honek ez luke zentzurik izango. Badakigu, gainera, jarraitzaile asko hezur-muin emaile egin



Fernando Riviere, gurasoekin. | AMAIA TXINTXURRETA

direla. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei", kontatu digu Leticia Alvarezek, Fernandoren amak.

Isabel Kirtze Fernandoren izeba da, eta hura ere buru-belarri ari da han eta hemen Fernandoren aldeko mezua zabaltzen: "Oso kezkatuta gaude guztiok. Medikuek

esan digute guk ezin diogula lagundu Fernandori, baina edozein izan daiteke bateragarria. Horregatik, garrantzitsua da ahalik eta hezur-muin emaile gehien lortzea. Ea norbaitek ekartzen digun topatzen ari garen opari hori".

Kirtzek gogorarazi digu, gainera, emaile egitea oso erraza

dela eta ez duela inongo arriskurik, odola ateratzea bezain erraza da. Emaile egiteko edo informazio gehiago jasotzeko 943 00 70 00 telefonora deitu behar da. "Pazientzia eskatu nahi diegu emaile egin nahi dutenei; ez dezatela amorarik eman. Badakigu telefonoak saturatuta daudela, baina erantzuten ez badute dei dezatela berriz, mesedez", dio Alvarezek.

Bizitza aldatu zaie

Egunak ahal dituen moduan pasatzen ditu Fernandok. Arnasa hartzea kosta egiten zaio, ez du ondo lo egiten eta goserik ere ez du izaten hartzen ari den botikengatik. Gurasoei bizitza zeharo aldatu zaie: "Konturatzen zara oso ondo bizi garela, eta, bat-batean, dena agonia bihurtzen da. Ezin dugu bizimodu normalik egin. Orain hemen zaude, baina ordu erdi barru, beharbada, Gurtzetako ospitalera bidean".

Bizitzak ipini dion oztopoa zaila da, baina Fernandok duen indar eta bizitasunarekin, eta guztion laguntzarekin, gaindituko du, seguru. Gogoratu, zure hezur-muina izan daiteke Fernando txikiari bizitza eman ahal diona.

AZKEN BERBA

AINTZANE
OARBIDE



Adierazpen
askatasuna

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak honela dio: "Adierazpen askatasuna oinarritzko giza eskubidea da". Ilustrazio garaian, Frantzia, ideien hedatze libreaken euskarri bezala ulertzen zuten askatasun adierazpena.

Bergarara iritsi zen Ilustrazioa Xabier Munibe eta Elhuyar anaien eskutik, besteak beste. Azkenaldian urrun sumatzen ditut Ilustrazioaren aire berri eta usain aurrera-koiak.

Urtebete pasatxo da Goienan idazten dudala eta normalean bihotzetik ateratzen zaizkidan sentimenduz edo gizartean guri-gurian dauden gaiez aritu izan naiz. Azkenaldi honetan, zenbait gai ukitzen dudanean erantzun gogorrak jaso izan ditut. "Deabruaren eskutik helduta noala" ere irakurri dut gutun batean. Voltaire eta Rousseauk ziotenez, "bestelako iritziek arte eta zientzietan aurrera egitea dakarte, eta baita benetako parte hartze politikoa ere".

Iritzi desberdinak errespetuz eta baldintza berdinetan adieraziz, edozeinek du aukera esaten dena egia, gezurra edo erlatiboa den epaitzeko.

Nire guraso eta aitona-amonek sufritu zuten adierazpen askatasun eza.

Nik nire iritzia ematen jarraituko dut.

APIRILEKO IRABAZLEAK ASTELEHENEAN

- Koolore etxearen kamisetak eta izerdi-jertseak.
- Danbakako kamiseta.
- Ipuinak umeentzat.
- Skunkfunkeko kamiseta.
- Puzzleak umeentzat.

Zu izan zaitezke irabazleetako bat! Adi astelehenean!

goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com | Urteko kuota: 50 €.



MAGIA MOSTRARAKO SARRERAK

Astelehenetik aurrera, Espaloiko
Magia Mostrarako sarrerak
eskuragai!

goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

